

Hautaketa prozesuetarako galdera sorta: Eusko Jaurlaritzako Laguntzako Langileen Talde Profesionala (atezaina, mandataria, menpekoa...)

2022



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hautaketa prozesuetarako
galdera sorta: Eusko
Jaurlaritzako Laguntzako
Langileen Talde Profesionala
(atezaina, mandataria,
menpekoa...)

IVAPek kontserbatu egiten ditu argitaraturiko lanen ondare-eskubideak (copyright), eta lan horien berrerabilpena baimentzen eta sustatzen du, BY-NC-ND erabilera-lizentziaren pean.

Liburu hau edizio elektronikoan argitaratzen da, Creative Commons-en BY-NC-ND lizentziaren pean. Kopiatu, erabili, zabaldu, transmititu eta erakutsi daiteke, honako baldintza hauek beteta: 1) egiletza eta argitalpenaren jatorrizko iturria aipatzea (aldizkaria, argitaletxea eta lanaren URLa); 2) helburu komertzialetarako ez erabiltzea; 3) erabilera-lizentzia eta berorren espezifikazioak aipatzea.



Edizioa: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Administración Pública

ISBN: 978-84-7777-640-6

1. gaia

- 1 Konstituzioaren 1.1 artikulua ezartzen duenez, Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta honako hauek ditu beraren antolamendu juridikoaren balio nagusiak:
 - 1a) Berdintasuna, askatasuna eta anaitasuna.
 - 1b) Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
 - 1c) Botere-banaketa (betearazlea, legegilea eta judiziala) eta herri-subiranotasuna.
 - 1d) Aniztasun politikoa eta herri-subiranotasuna.

- 2 Zer da legezketasun-printzipioa, Konstituzioan bermatzen dena?
 - 2a) Botere betearazlearekiko eta botere legegilearekiko independentea den botere judizial bat egon behar dela.
 - 2b) Aldekoak ez diren edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zigor-xedapenen atzeragirik eza bermatzen dela.
 - 2c) Legea ez ezagutzeak ez duela legea ez betetzetik salbuesten.
 - 2d) Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen mende daudela.

- 3 Zein organo arduratzen da lege-indarreko arauen konstituzionaltasun-kontrola egiteaz?
 - 3a) Diputatuen Kongresua.
 - 3b) Senatua.
 - 3c) Konstituzio Auzitegia.
 - 3d) Estatuko Burutza.

- 4 Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumen-gatazka sortzen denean, zer organo arduratzen da ebazpena hartzeaz?
 - 4a) Diputatuen Kongresua.
 - 4b) Senatua.
 - 4c) Konstituzio Auzitegia.
 - 4d) Estatuko Burutza.

- 5 **Konstituzioak foru-lurraldeetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Egia ala gezurra?**
- 5a) Egia da, eta halaxe dago jasota Konstituzioaren xedapen gehigarri batean.
 - 5b) Egia da, eta halaxe dago jasota Konstituzioaren xedapen iragankor batean.
 - 5c) Gezurra da, halakorik ez baita aipatzen Konstituzioan.
 - 5d) Gezurra da, Estatuko zenbait tokitan eskubide historiko jakin batzuk daudela baino ez da aipatzen eta.
- 6 **Zer aipatzen da Konstituzioaren I. tituluan?**
- 6a) Estatuaren antolamendua.
 - 6b) Oinarrizko eskubideak eta eginbeharrak.
 - 6c) Gorte Nagusiak.
 - 6d) Koroa.
- 7 **Konstituzioak zenbat urtetan ezartzen du adin-nagusitasuna?**
- 7a) 16 urte.
 - 7b) 18 urte.
 - 7c) 21 urte.
 - 7d) Konstituzioak ez du halakorik aipatzen.
- 8 **Konstituzioan jasotako eskubideak lotesleak dira, hau da:**
- 8a) Botere publiko guztiak lotzen dituzte.
 - 8b) Botere judiziala lotzen dute.
 - 8c) Botere legegilea eta judiziala lotzen dituzte.
 - 8d) Gorte Nagusiak eta Koroa lotzen dituzte.
- 9 **Konstituzioaren arabera, nork defendatu behar ditu oinarrizko eskubideak?**
- 9a) Koroak.
 - 9b) Senatuak.
 - 9c) Gobernuko presidentek.
 - 9d) Herriaren defendatzaileak.
- 10 **Konstituzioaren 14.etik 29.era bitarteko artikuluetan eta 30.2 artikuluan aitortzen diren eskubide eta askatasunen urraketan aurrean, herritar batek azken baliabide gisa...**
- 10a) Konstituzio Auzitegian babes-errekurtsoa jar dezake.
 - 10b) Herriaren defendatzaileari babes-errekurtsoa jar diezaioke.
 - 10c) Konstituzio Auzitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake.
 - 10d) Herriaren defendatzaileari administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar diezaioke.
- 11 **Zer organo arduratzen da Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean jasotako eskubideak babesteaz?**
- 11a) Giza Eskubideen Europako Auzitegia.
 - 11b) Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.
 - 11c) Hagako Auzitegia.
 - 11d) Europar Batasuneko Askatasunen Auzitegia.
- 12 **Konstituzioa zer urtetan onartu zen?**
- 12a) 1976
 - 12b) 1977
 - 12c) 1978
 - 12d) 1979

13 Konstituzioaren arabera, nori dagokio subiranotasun nazionala?

- 13a) Gorte Nagusiei.
- 13b) Herriari.
- 13c) Koroari.
- 13d) Autonomia-erkidegoei.

14 Zer organok osatzen dituzte Gorte Nagusiak?

- 14a) Gobernuak eta Diputatuen Kongresuak.
- 14b) Gobernuak, Senatuak eta Koroak.
- 14c) Diputatuen Kongresuak soilik.
- 14d) Diputatuen Kongresuak eta Senatuak.

15 Herriaren defendatzaileari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- 15a) Estatuburuak izendatzen du.
- 15b) Bere jardunaren berri eman behar dio Gobernuko presidenteari.
- 15c) Ez du eskumen betearazlerik.
- 15d) Lau urteko agintaldia du, eta berriz hautatua izan daiteke.

16 Herriaren defendatzaileari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- 16a) Ikuskatzeko eta zehatzeko ahalmenak ditu.
- 16b) Demandak aurkez ditzake auzitegi arruntetan.
- 16c) Herritarren edozein kexaren aurrean jarduten du, kexa anonimoa bada ere.
- 16d) Bere eskumen-eremua jarduera publiko edo pribatu guztietara hedatzen da.

2. gaia

- 17 Estatuaren lurralde-antolamendua. Indarrean dauden arauak diotenez, zein da aukera zuzena probintziari dagokionez?
- 17a) Lurraldeko toki-erakundea da.
 - 17b) Toki-erakundea da, baina ez du lurralde-izaerarik.
 - 17c) Ez da toki-erakunde bat.
 - 17d) Indarrean dauden arauak ez dute zehazten probintzia toki-erakundea den ala ez.
- 18 Lurralde-antolamendua. Zein da aukera zuzena EAEko lurralde historikoei dagokienez?
- 18a) Araubide erkideko probintzien izaera eta eskumen berberak dituzte.
 - 18b) Beren antolaketa, erakundeak eta araubide pribatiboak ez dute izaera politikorik.
 - 18c) Batzar nagusiek eta Foru Aldundiak osatzen dute beren erakunde-antolaketa.
 - 18d) Udalerrien eskumen berberak dituzte.
- 19 Lurralde-antolamendua. Toki-araubidearen zer printzipiori dagokio baieztapen hau? *Eskumen publikoak betetzea herritarrengandik hurbilen dauden agintarien egitekoa da.*
- 19a) Aginduzko printzipioari.
 - 19b) Lurralde-erakunde publikoen autonomia-printzipioari.
 - 19c) Finantza-nahikotasunaren printzipioari.
 - 19d) Subsidiarotasun-printzipioari.
- 20 Lurralde-antolamendua. Honako ahal hauetatik zein daukate udalerriek?
- 20a) Zergetako eta finantzeko ahal.
 - 20b) Konfiskatzeko ahal.
 - 20c) Lege-mailako arauak egiteko ahal.
 - 20d) Epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko ahal.
- 21 Lurralde-antolamendua. Zein baieztapen da zuzena alkateen hautaketari dagokionez?
- 21a) Alkatea hautatzeko, zinegotzien botoen gehiengo osoa lortu behar da eratzeko-bilkuran.
 - 21b) Alkatea hautatzeko, zinegotzien botoen gehiengo osoa behar da beti.
 - 21c) Alkatea hautatzeko, zinegotzien botoen gehiengo soilak lortu behar da eratzeko-bilkuran.
 - 21d) Eratzeko-bilketan, boto gehien jasotzen dituen zerrendako burua hautatuko dute alkate.

- 22 Lurralde-antolamendua. Zein udal-organok ditu legeek udalerrinari berariaz esleitzen dizkion funtzioak, organo zehatz bati esleitu ez zaizkionak?**
- 22a) Osoko Bilkurak.
 - 22b) Alkatetzak.
 - 22c) Tokiko Gobernu Batzarrak.
 - 22d) Alkateordeek.
- 23 Lurralde-antolamendua. Udal-antolamenduaren barruan, zein organok ditu garrantzi bereziko erabaki politikoak hartzeko eskumenak?**
- 23a) Alkatetzak.
 - 23b) Tokiko Gobernu Batzarrak.
 - 23c) Korporazioaren Erregelamendu Organikoan zehazten den organoak.
 - 23d) Osoko Bilkurak.
- 24 Lurralde-antolamendua. Lurraldearen ikuspegitik, zer sistema eratzen du Konstituzioak?**
- 24a) Bi botere-maila hauetan oinarritutako sistema bat: Estaturia eta autonomia-erkidegoak.
 - 24b) Estaturia botere-maila bakartzat hartzen duen sistema bat.
 - 24c) Hiru botere-maila hauetan oinarritutako sistema bat: Estaturia, autonomia-erkidegoak, eta udalerriak eta probintziak.
 - 24d) Autonomia-erkidegoak botere-maila bakartzat hartzen dituen sistema bat.
- 25 Lurralde-antolamendua. Autonomien Estaturaren printzipio informatzaileak. Baieztapen hauetako zein dago lotuta xedapen-printzipioarekin?**
- 25a) Uko egin dakioke autonomia-erkidego bat osatzeko aukerari.
 - 25b) Autonomia-estatutuak Konstituzioaren mende daude.
 - 25c) Zuzenbideari dagokionez, Espainiako antolamendu juridikoa bakarra da.
 - 25d) Autonomia-erkidegoek autonomia administratiboa dute, ez politikoa.
- 26 Lurralde-antolamendua. Zein baieztapen da zuzena, Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia eskuratzeari dagokionez?**
- 26a) Konstituzioaren 143. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez gauzatu zen, eta Estatutua onartu eta bost urtera zabaldu zituen bere eskumenak.
 - 26b) Konstituzioaren 151. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez gauzatu zen.
 - 26c) Konstituzioaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritako prozedura bereziaren bidez gauzatu zen.
 - 26d) Konstituzioaren 143. artikuluen bidez gauzatu zen, eta eskumenak zabaltzeko zain dago.
- 27 Lurralde-antolamendua. Baieztapen hauetatik zein da zuzena, autonomia-erkidegoetako legebiltzarrei dagokienez?**
- 27a) Bi ganbera dituzte.
 - 27b) Sufragio unibertsalaz aukeratzen dira, ordezkaritza berdinean oinarritutako sistema baten arabera.
 - 27c) Autonomia-erkidego guztietan aukeratzen dira, maiatzeko azken igandean, lau urtean behin.
 - 27d) Lege autonomikoak onartzen dituzte.

- 28 Lurralde-antolamendua. Noren aurrean erantzuten du politikoki autonomia-erkidego bako Gobernu Kontseiluak?**
- 28a) Autonomia-erkidegoko lehendakariaren aurrean.
 - 28b) Estatuko Gobernuaren aurrean.
 - 28c) Gorte Nagusien aurrean.
 - 28d) Autonomia-erkidegoko legebiltzarraren aurrean.
- 29 Lurralde-antolamendua. Zein da baieztapen zuzena, autonomia-erkidegoko lehendakaria hautatzeari dagokionez?**
- 29a) Legebiltzarrak aukeratzen du, legebiltzarkideen artetik.
 - 29b) Legebiltzarrak aukeratzen du, baina ez nahitaez legebiltzarkideen artetik.
 - 29c) Autonomia-erkidego gehienetan gehiengo soiluz aukeratzen da lehenengo bozketan.
 - 29d) Gobernu Kontseiluak aukeratzen du.
- 30 Lurralde-antolamendua. Konstituzioaren 148.1 artikulua zeri buruz ari da?**
- 30a) Estatuak autonomia-erkidegoei eskuordetu diezazkiekeen eskumenetako gaiei buruz.
 - 30b) Autonomia-erkidegoen eskumenekoak izan daitezkeen gai bakarrei buruz.
 - 30c) Autonomia-erkidegoen eskumenekoak izan daitezkeen gaiei buruz, dagokion autonomia-estatutuak hala ezartzen badu.
 - 30d) Autonomia-estatutuak autonomia-erkidegoaren eskumentzat jo behar dituen gaiei buruz.
- 31 Lurralde-antolamendua. Eskumenen banaketa. Gai jakin batean Estatuak beretzat gordezten badu legegintza-ahalmena, eta autonomia-erkidegoak bere gain hartzen baditu erregelamenduak garatzeko eta betearazteko ahalmenak...**
- 31a) ... Estatuaren eskumen eksklusibo bat da.
 - 31b) ... autonomia-erkidegoaren eskumen eksklusibo bat da.
 - 31c) ... eskumen partekatu bat da.
 - 31d) ... eskuordetutako eskumen bat da.
- 32 Lurralde-antolamendua. Zein da baieztapen zuzena, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketari dagokionez?**
- 32a) Estatuari dagokio autonomia-estatutuek bereganatu ez dituzten gaien gaineko eskumena.
 - 32b) Autonomia-erkidegoei dagokie Estatuari eksklusiboki esleitu ez zaizkion gaien gaineko eskumena.
 - 32c) Estatuaren eskumenak ezin zaizkie transferitu autonomia-erkidegoei.
 - 32d) Estatuaren eskumenak ezin dira autonomia-erkidegoen esku utzi.
- 33 Lurralde-antolamendua. Zein baieztapen da zuzena, Autonomia Estatutuaren izaerari dagokionez?**
- 33a) Autonomia Estatutua ez da lege organikoa.
 - 33b) Autonomia Estatutua Estatuaren arauetako bat da, baina Estatuko organoek ezin dute aldatu, Estatuak bakarrik nahi badu.
 - 33c) Autonomia Estatutua ez da Estatuaren araua.
 - 33d) Autonomia Estatutua legegintzako prozedura arrunt baten bidez aldatzen da.
- 34 Lurralde-antolamendua. Zein baieztapen da zuzena, Justizia Administrazioari dagokionez?**
- 34a) Justizia-auzitegi nagusiak autonomia-erkidegoetako jurisdikzio-organoak dira.
 - 34b) Justizia-auzitegi nagusiak Estatuak autonomia-erkidegoetan dituen organoak dira.
 - 34c) Autonomia-erkidego bakoitzean botere judizial bat dago.
 - 34d) Autonomia-erkidego bakoitzean auzitegi goren bat dago.

3. gaia

35 Zenbat estatuk osatzen dute gaur egun Europar Batasuna?

- 35a) 20.
- 35b) 25.
- 35c) 27.
- 35d) 30.

36 Zein dira, gaur egun, Europar Batasuna eratzen duten testu nagusiak?

- 36a) Europar Batasunaren Trataturia (oinarrizko testua) eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturia (garapen-testua).
- 36b) Maastrichteko Trataturia (oinarrizko testua) eta Lisboako Trataturia (garapen-testua).
- 36c) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturia (oinarrizko testua) eta Europar Batasunaren Trataturia (garapen-testua).
- 36d) Lisboako Trataturia (oinarrizko testua) eta Maastrichteko Trataturia (garapen-testua).

37 Erakunde hauetako zein EZ dago Europar Batasunean gaur egun?

- 37a) Europako Batzordea.
- 37b) Ikatzairen eta Altzairuaren Europako Erkidegoa.
- 37c) Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.
- 37d) Europako Banku Zentrala.

38 Baieztapen hauetatik zein da zuzena, Europar Batasuneko Kontseiluari dagokionez?

- 38a) Estatu kideetako estatuburuek edo gobernuburuek osatzen dute.
- 38b) Europako Parlamentuarekin partekatzen du legegintza-gaitasuna.
- 38c) Europako finantzak egokiro kudeatzen eta exekutatzeko direla kontrolatzen du.
- 38d) Bruselan etengabeko osaera eta presentzia du.

39 Europar Batasuneko Kontseiluko lehendakariak:

- 39a) Biziarreko ohorezko kargu bat da.
- 39b) Estatu kideek txandaka betetzen dute kargu hori, urtean behin.
- 39c) Gaur egun ordena alfabetikoaren arabera ezartzen den txandakako kargua da.
- 39d) Estatu kideek txandaka betetzen dute kargu hori, sei hiletik behin.

- 40 Europar Batasuneko Kontseiluaren erabakiak hartzeko hiru moduetatik zein da gaur egun gehien erabiltzen dena?
- 40a) Gehiengo soila.
 - 40b) Gehiengo kualifikatua.
 - 40c) Aho batez.
 - 40d) Denak berdin.
- 41 Nork du Europar Batasunaren aurrekontua onartzeko eskumena?
- 41a) Europako Batzordea.
 - 41b) Europako Batzordea, Kontuen Auzitegiarekin batera.
 - 41c) Europar Batasuneko Kontseilua, Europako Parlamentuarekin batera.
 - 41d) Europako Banku Zentrala.
- 42 Zein organok koordinatzen ditu Europar Batasuneko estatu kideen ekonomia-politikak?
- 42a) Europar Batasuneko Kontseilua.
 - 42b) Europako Batzordea.
 - 42c) Kontseilu Europarreko Lehendakaritza.
 - 42d) Europako Banku Zentrala.
- 43 Zein erakundek ordezkatzten eta bermatzen du Europar Batasunaren interes orokorra? (Erakunde horren eginkizun nagusia Europako politikak eta ekintzak kudeatzea eta betearaztea da).
- 43a) Europako Parlamentua.
 - 43b) Europako Batzordea.
 - 43c) Europar Batasuneko Kontseilua.
 - 43d) Kontseilu Europarra.
- 44 Europako Batzordearen agintaldia da:
- 44a) Bi urte eta erdikoa.
 - 44b) Lau urtekoa.
 - 44c) Bost urtekoa.
 - 44d) Biziartekoa.
- 45 Europako zein erakundez esan daiteke hura dela Europako legeria osoaren sorburua?
- 45a) Kontseilu Europarra.
 - 45b) Europar Batasuneko Kontseilua.
 - 45c) Europako Batzordea.
 - 45d) Europako Parlamentua.
- 46 Europako zein erakundek gauzatzen ditu Europar Batasunaren politikak eta aurrekontua?
- 46a) Europako Parlamentua.
 - 46b) Kontseilu Europarra.
 - 46c) Kontuen Auzitegia.
 - 46d) Europako Batzordea.
- 47 Zein erakunde hautatzen dute zuzenean Europako herritarrek? (Erakunde horrek herritarrok ordezkatzten ditu Europaren eraikuntza politikoko prozesuan)
- 47a) Europako Parlamentua.
 - 47b) Europako Batzordea.
 - 47c) Kontseilu Europarra.
 - 47d) Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.

- 48 1979az geroztik, zenbat urterik behin izaten dira Europako hauteskundeak?**
- 48a) Urtean behin.
 - 48b) Bi urtean behin.
 - 48c) Lau urtean behin.
 - 48d) Bost urtean behin.
- 49 Nork hautatzen du Europako Parlamentuko lehendakaria?**
- 49a) Europako Parlamentuko kideek gehiengo osoz hautatzen dute lehendakaria, bi urte eta erdirako.
 - 49b) Europako Parlamentuko kideek, gehiengo kualifikatuz eta bost urterako.
 - 49c) Europako herritarrek, gehiengo soilez eta bost urterako.
 - 49d) Europako herritarrek, gehiengo osoz eta bi urte eta erdirako.
- 50 Parlamentuari dagokionez, esan zein den erantzun zuzena:**
- 50a) Parlamentuko kideak bloke nazionaletan edo talde politikoetan biltzen dira.
 - 50b) Bloke nazional bat eratzeko, gutxienez 25 eurodiputatu behar dira.
 - 50c) Ezin da talde politikorik eratu nazionalitate bereko eurodiputatuekin.
 - 50d) Parlamentuko kideak nahitaez inskribatu behar dira talde politiko edo bloke nazional baten.
- 51 Non egiten dira Europako Parlamentuko Batzordeak?**
- 51a) Bruselan.
 - 51b) Estrasburgon.
 - 51c) Luxenburgon.
 - 51d) Parisen.
- 52 Nork onartzen ditu Europar Batasuneko arauak legegintzako prozedura arruntaren bidez?**
- 52a) Kontseilu Europarrak, Europako Batzordearekin batera.
 - 52b) Europar Batasuneko Kontseiluak, Parlamentuarekin batera.
 - 52c) Europako Parlamentuak, Europako Batzordearekin batera.
 - 52d) Europar Batasuneko Kontseiluak, Kontseilu Europarrarekin batera.
- 53 Eskumen hauetako zein du Europako Parlamentuak?**
- 53a) Europako legeria behar bezala interpretatzen eta aplikatzen dela zaintzea.
 - 53b) Beste instituzio batzuk politikoki kontrolatzea.
 - 53c) Europar Batasuna nazioartean ordezkatzea.
 - 53d) Europa Batasunaren politikak eta aurrekontua exekutatzeko.
- 54 Nork izendatzen du «Ombudsman», Europako defendatzailea?**
- 54a) Kontseilu Europarrak, lau urterako, eta berritu daiteke.
 - 54b) Europako Batzordeak, bost urterako, eta ezin da berritu.
 - 54c) Europako Parlamentuak, bost urterako, eta berritu daiteke.
 - 54d) Europar Batasuneko Kontseiluak, lau urterako, eta ezin da berritu.
- 55 Zein erakunde arduratzen da Europako legeria egokiro interpretatzen eta aplikatzen dela bermatzeaz?**
- 55a) Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.
 - 55b) Europar Batasuneko Kontseilua.
 - 55c) Europako Parlamentua.
 - 55d) Europako Batzordea.

- 56 Zein da aukera zuzena, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari dagokionez?**
- 56a) Erakunde bakarra da, hiru instantziaz osatua.
 - 56b) Estrasburgon du egoitza.
 - 56c) Europar Batasuneko botere judiziala gorpuzten du.
 - 56d) Estatu kide bakoitzeko abokatu nagusi nazional batek osatzen du.
- 57 Auzitegi Orokorra:**
- 57a) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren goreneko instantzia da.
 - 57b) Estatu kide bakoitzeko bi epailek osatzen dute.
 - 57c) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko behereneko instantzia da.
 - 57d) Estatu kide bakoitzeko epaile nazional batek osatzen du.
- 58 Nork du demandatzeko ahalmena, kalte-galerak konpontzeko errekurtsioan?**
- 58a) Europako Batzordeak, nahiz eta estatu batek beste baten aurka ere erabil dezakeen.
 - 58b) Estatu kideek, Europako Parlamentuak, Europako Batzordeak eta Kontseiluak.
 - 58c) Epaileek.
 - 58d) Edozein pertsona fisikok edo juridikok, bai eta interes legitimoa duten estatu kideek ere.
- 59 Nola esaten zaio Europar Batasuneko instituzioek tratatuen eremu materialak garatzeko eta haien helburuak lortzeko onetsitako arau juridikoen multzoari?**
- 59a) Europako Zuzenbidea.
 - 59b) Zuzenbide Eratorria.
 - 59c) Zuzenbide Orokorra.
 - 59d) Zuzenbide Institutuzionala.
- 60 Europar Batasunaren egintza juridiko hauetako zein EZ dira lotesleak?**
- 60a) Gomendioak.
 - 60b) Erregelamenduak.
 - 60c) Zuzentarauak.
 - 60d) Erabakiak.
- 61 Europar Batasunaren egintza juridiko lotesleak estatu kideen barne-zuzenbidean exijigarriak izan daitezen, funtsezko betekizun formal bat da:**
- 61a) Estatu kide bakoitzeko aldizkari ofizialean argitaratzea.
 - 61b) Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzea.
 - 61c) Estatu kide bakoitzak berrestea.
 - 61d) Estatu kide bakoitzeko legeetan garatzea.
- 62 Aukera hauetako zein da araugintza-potentziarik handiena duen egintza juridiko instituzionala?**
- 62a) Erregelamendua.
 - 62b) Zuzentaria.
 - 62c) Erabakia.
 - 62d) Irizpena.
- 63 Zuzentariari dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena:**
- 63a) Irismen orokorra du, eta ez ditu hartzaile zehatz batzuk identifikatzen.
 - 63b) Bete beharrekoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean.
 - 63c) Hierarkikoki Erregelamendua baino gorago dago.
 - 63d) Estatu behartzen du lortu beharreko emaitzari dagokionez.

4. gaia

- 64 Zein udalerrri daude geografikoki Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta, beste probintzia edo erkidego batzuetakoak izan arren?
- 64a) Campooko harana eta Saldañako konderrria.
 - 64b) Villaverde harana eta Trebiñu.
 - 64c) Tudancako harana eta Argantzón.
 - 64d) Sámanoko harana eta Turtzioz.
- 65 Non daude Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzak?
- 65a) Donostian.
 - 65b) Gasteizen.
 - 65c) Bilbon.
 - 65d) Iruñean.
- 66 Euskarak, Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza propioak, zer izaera izango du?
- 66a) Euskadiko hizkuntza koofiziala.
 - 66b) Euskadiko dialektoa.
 - 66c) Euskadiko hizkuntza ez-ofiziala.
 - 66d) Euskara ez da Euskadiko hizkuntza propio bat.
- 67 Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren arabera, nortzuek dute euskal *izaera politikoa*?
- 67a) Euskaldunen ondorengoek, atzerrian bizi badira eta nazionalitate espainiarrik ez badute.
 - 67b) Euskal Autonomia Erkidegoan jaio direnek.
 - 67c) Euskadin gutxienez sei hilabetez bizi izan direnek.
 - 67d) Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan administrazio-auzotartasuna dutenek.
- 68 Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren arabera, Euskadiren eskumen eskusiboa da:
- 68a) Justizia Administrazioa.
 - 68b) Aduana eta arantzelen araubidea; kanpo-merkataritza.
 - 68c) Defentsa eta indar armatuak.
 - 68d) Gizarte-laguntza.

- 69 Adierazi hauetako zein *EZ* den Euskadiren eskumen eskusiboa:
- 69a) Ikuskizunak.
 - 69b) Kultura, kirolak, aisialdia eta atsedenaldia.
 - 69c) Ogasun Nagusia eta Estatuaren Zorra.
 - 69d) Nekazaritza eta abeltzaintza, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat.
- 70 Zenbat denborarako aukeratzen da Eusko Legebiltzarra?
- 70a) Bi urterako.
 - 70b) Hiru urterako.
 - 70c) Lau urterako.
 - 70d) Bost urterako.
- 71 Nork promulgatzen ditu Eusko Legebiltzarreko legeak?
- 71a) Espainiako erregeak edo erreginak.
 - 71b) Eusko Jaurlaritzako lehendakariak.
 - 71c) Eusko Legebiltzarreko senatariek.
 - 71d) Arartekoak.
- 72 Nork aukeratzen du lehendakaria eta nork bultzatzen eta kontrolatzen du Eusko Jaurlaritzaren jarduera?
- 72a) Eusko Legebiltzarrak.
 - 72b) Eusko Jaurlaritzako sailburuek.
 - 72c) Espainiako Senatuak.
 - 72d) Estatuburuak.
- 73 Nork onartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuak?
- 73a) Arbitraje-batzordeak.
 - 73b) Bozeramaileen batzarrak.
 - 73c) Eusko Jaurlaritzak.
 - 73d) Eusko Legebiltzarrak.
- 74 Zer izan du Euskadin dugun herriaren defendatzaileak?
- 74a) Konstituzio Auzitegia.
 - 74b) Eusko Legebiltzarra.
 - 74c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
 - 74d) Arartekoa.
- 75 Lehendakaria:
- 75a) Aurreko legegintzaldiko lehendakariak aukeratuko du.
 - 75b) Estatuburuak aukeratuko du.
 - 75c) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du legebiltzarkideen artetik.
 - 75d) Arartekoak aukeratuko du.
- 76 Lehendakariak kargua utziko du:
- 76a) Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde orokorrak egin ondoren.
 - 76b) Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde orokorrak egin baino hilabete bat lehenago.
 - 76c) Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde orokorrak egin baino bi hilabete lehenago.
 - 76d) Eusko Legebiltzarrak hala eskatzen badio, herri-galdeketa baten ondoren.

77 Nork gauzaten ditu legegintza-ekimena, eginkizun betearazlea eta erregelamenduak egiteko ahala Euskal Autonomia Erkidegoan?

- 77a) Eusko Jaurlaritzak.
- 77b) Eusko Legebiltzarrak.
- 77c) Eusko Legebiltzarreko Bozeramaileen Batzarrak.
- 77d) Eusko Legebiltzarreko Araudi eta Gobernu Batzordeak.

78 Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak.

- 78a) Botere betearazlearen parte dira, eta Gobernuarena, organo gisa.
- 78b) Botere betearazlearen parte dira, baina ez Gobernuarena, organo gisa.
- 78c) Botere betearazlearen parte dira, politikoak direlako.
- 78d) Ez dira botere betearazlearen parte, ez eta Gobernuarena ere, organo gisa.

79 Lehendakariak honako hauek izendatu ahal izango ditu:

- 79a) Gehienez ere bi lehendakariorde.
- 79b) Lehendakariorde bakar bat.
- 79c) Lehendakariorde bat edo gehiago.
- 79d) Sailburuak baino ez.

5. gaia

80 Adierazi zein den aukera zuzena: Gernikako Autonomia Estatutuan...

- 80a) Eskumenen banaketa zurruna ezarri zen erakunde erkideen eta lurralde historikoen artean.
- 80b) Ez zen eskumenen banaketa zurrunik ezarri erakunde erkideen eta lurralde historikoen artean.
- 80c) Eskumenen banaketa zurruna ezarri zen erakunde orokorren eta gaur egungo lurraldeen artean.
- 80d) Mekanismo itxia eta zorrotza diseinatu zen erakunde erkideen eta lurralde historikoen artean.

81 Autonomia Estatutuaren arabera, zein dira erakunde erkideak?

- 81a) Foru-aldundiak.
- 81b) Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak.
- 81c) Foru-aldundiak eta batzar nagusiak.
- 81d) Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra

82 Zer autonomia-erkidego sartzan dira araubide erkidea duten autonomia-erkidegoen finantza-ereduan?

- 82a) Autonomia-erkidego guztiak.
- 82b) Autonomia-erkidego guztiak, Euskadi eta Nafarroa izan ezik.
- 82c) Euskal Autonomia Erkidegoa.
- 82d) Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Erkidegoa.

83 Hautatu erantzun zuzena:

- 83a) Foru-aldundiek ordainaraziko, kudeatuko, likidatuko, bilduko eta ikuskatuko dituzte zerga guztiak.
- 83b) Foru-aldundi bakoitzak ordainaraziko, kudeatuko, likidatuko, bilduko eta ikuskatuko ditu zerga guztiak, salbu eta Aduanen Errentan sartzan direnak eta gaur egun zerga-monopolioen bidez biltzen direnak.
- 83c) Kasuan kasuko erakunde erkideek ordainaraziko, kudeatuko, likidatuko, bilduko eta ikuskatuko dituzte zerga guztiak.
- 83d) Erakunde erkideek ordainaraziko, kudeatuko, likidatuko, bilduko eta ikuskatuko dituzte zerga guztiak, salbu eta Aduanen Errentan sartzan direnak eta gaur egun zerga-monopolioen bidez biltzen direnak.

84 Adierazi zein den erantzun zuzena: Euskal Autonomia Erkidegoa erakunde-maila hauetan antolatuta dago:

- 84a) Erakunde erkideak eta toki-erakundeak.
- 84b) Erakunde nazionalak, foru-organoak eta toki-erakundeak.
- 84c) Erakunde erkideak, foru-organoak eta toki-erakundeak.
- 84d) Erakunde erkideak eta foru-organoak.

6. gaia

85 Hautetako zein *EZ* da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen xedea?

- 85a) Rol tradizionalen garapena indartzea sexuaren arabera.
- 85b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea.
- 85c) Zenbait neurri arautzea, bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonak aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatu eta bermatzeko.
- 85d) Emakumeen autonomia sustatzeko eta posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko neurriak arautzea.

86 Emakunderi dagokionez, zein da baieztapen zuzena?

- 86a) Sail bakoitzak berdintasunaren arloan egindako planak garatzea du eginkizun.
- 86b) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea onartu aurretik sortu zen.
- 86c) Eusko Legebiltzarraren mende dago zuzenean, eta Eusko Legebiltzarrak izendatzen ditu haren arduradun nagusiak.
- 86d) Aurreikusita dago 4/2005 Legearen garapena amaitzen denean desagertzea.

87 4/2005 Legeari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?

- 87a) Besteak beste, berdintasunerako eskubidea formalki aitortzea du helburu.
- 87b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu, berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko berriazko neurriarik arautu gabe.
- 87c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herritar guztien jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu.
- 87d) Tresna eta neurri zehatzak planteatzen ditu euskal administrazio publikoek politika eta jarduera zorrotzagoak gauza ditzaten lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatze aldera.

- 88 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna zuzendu behar duten printzipioak. Tratu-berdintasunaren printzipioari dagokionez, oro har, nola hartuko litzateke egoera bat non itxuraz neutroa den praktika batek desabantaila zehatz bat ekarriko baitie sexu jakin bateko pertsoneri beste sexukoen aldean?
- 88a) Zuzeneko diskriminaziotzat hartuko litzateke.
 - 88b) Zeharkako diskriminaziotzat hartuko litzateke.
 - 88c) Ez da diskriminaziotzat jotzen.
 - 88d) Diskriminazio positibotzat hartuko litzateke.
- 89 Zer neurri ezartzen du 4/2005 Legeak botere publikoen jarduerak diskriminazioaren alde egin dezaten eragozteko?
- 89a) Zehapenak ezartzen ditu diskriminazioa egiten duten administrazio publikoentzat.
 - 89b) Zehapenak ezartzen ditu diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko edo juridikoentzat.
 - 89c) Debekatuta dago laguntzak edo dirulaguntzak ematea sexu-diskriminazioagatik zehapena jaso duten pertsona fisiko eta juridikoei.
 - 89d) Kontratazio publikoan, sexu-diskriminazioagatik zehapenik jaso ez duten enpresei laguntzeko aukera ematen du.
- 90 Berdintasun-printzipioa. Printzipio orokorrak. Zer da ekintza positiboaren printzipioa?
- 90a) Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, desberdintasunak ezabatzeko helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.
 - 90b) Emakumeek eta gizonak eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak berdintasun-baldintzetan baliatzen dituztela bermatzea.
 - 90c) Aukera-berdintasuna aldi baterako neurrien bidez ezartzea, praktiken edo gizarte-sistemen emaitza diren diskriminazioak egiaztatu edo zuzendu ahal izateko.
 - 90d) Aukera guztiak okerrak dira.
- 91 Hauetako zein *EZ* da emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera gidatu eta bideratu behar duen printzipio orokor bat?
- 91a) Aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetua.
 - 91b) Bi sexuen ordezkartza orekatua.
 - 91c) Administrazio publikoen arteko elkarlana eta koordinazioa.
 - 91d) Sexuaren araberrako rola eta estereotipoak finkatzea.
- 92 Zer printzipioaren definizioa da hau? *Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan.*
- 92a) Aukera-berdintasuna.
 - 92b) Genero-ikuspegiaren integrazioa.
 - 92c) Tratu-berdintasuna.
 - 92d) Definizioa ez dator bat eman diren hiru printzipioetako batekin ere.

- 93 Zer baieztapen da zuzena, aniztasuna eta desberdintasuna errespetatzeko printzipioari dagokionez?**
- 93a) Diferentziak desberdintasuna dakar.
 - 93b) Berdintasun-printzipioa errespetatzeak esan nahi du pertsonak berdin-berdinak izan behar direla eta berdin gisa tratatu behar direla.
 - 93c) Printzipio horrek berekin dakar emakumeen eta gizonen kolektiboen barruan dauden desberdintasunak errespetatzea.
 - 93d) Aniztasuna eta desberdintasuna errespetatzea ez da 4/2005 Legean jasotako printzipio bat.
- 94 Zer zaigu lagungarria genero-ikuspegia ulertzeko?**
- 94a) Emakumeen eta gizonen bizitza ez dagoela naturak baldintzatuta, kulturalki eraikita baizik.
 - 94b) Emakumeen eta gizonen bizitza naturak zehazten duela eta ez dela kulturalki eraiki.
 - 94c) Emakumeari lan zehatz batzuk esleitzeak (adibidez, umeak haztea edo gaixoak zaintzea) oinarri biologikoa duela.
 - 94d) Orain arte hezteko erabili izan diren estereotipoak naturak zehaztuta daudela.
- 95 Nola hartzen da gizonak tradizioz femeninotzat hartu izan diren lanbideetan sartzea sustatzen duen neurria?**
- 95a) Ekintza positiboko neurria da.
 - 95b) Zuzeneko diskriminazio-neurria da.
 - 95c) Zeharkako diskriminazio-neurria da.
 - 95d) Neurri hori bateraezina da berdintasunarekin.
- 96 Sexuaren araberako estereotipoei dagokienez, zein da baieztapen zuzena?**
- 96a) Kaltegarriak dira, gizonek eta emakumeek beren ahalmen pertsonalak garatzeko gaitasuna mugatzen dutenean.
 - 96b) Emakumeen kudeaketa- eta erabaki-ahalmena indartzeko balio dute.
 - 96c) Desberdintasuna erreproduzitzen duten gizarte-egiturak eta mekanismoak aldatzeko bidea ematen dute.
 - 96d) Emakumeek egiten dituzten lanak zuzen baloratzeko bidea ematen dute.
- 97 4/2005 Legearen ondorioetarako, zer kasutan uste da ordezkartza orekatua dagoela pertsona anitzeko administrazio-organoetan?**
- 97a) Sexu biek, gutxienez, % 40ko ordezkartza dutenean.
 - 97b) Sexu biek, gutxienez, % 45eko ordezkartza dutenean.
 - 97c) Sexu biek % 50eko ordezkartza dutenean.
 - 97d) Sexu biek, gutxienez, % 30eko ordezkartza dutenean.
- 98 Generoaren araberako aurretiazko ebaluazioari dagokionez, zein baieztapen da OKERRA?**
- 98a) Ebaluazioa egin ondoren, araua sustatzen duen organoak neurri zuzentzaileak hartu behar ditu antzemandako desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko.
 - 98b) Arau orokor gisa, arau-proiektu bat sustatzen duen administrazio-organo orok egin behar du.
 - 98c) Generoaren araberako aurretiazko ebaluazioa ezin da aplikatu foru- eta toki-administrazioetan.
 - 98d) Ebaluazio hori egin beharrik ez duten administrazio-egintzak eta -arauak daude.

99 Zein baieztapen da zuzena, kontratu publikoetan irizpide batzuk txertatzeari buruz, hain zuzen ere aurkeztutako proiektuan genero-ikuspegiaren sartzea baloratzeko irizpideak?

- 99a) Irizpide horiek txertatzea administrazio-kontratazioari buruz indarrean dauden arauen aurkakoa da.
- 99b) Neurri zuzentzaile orokorra da, antzemandako desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko balio duena.
- 99c) 4/2005 Legeak ez du horrelako neurririk aurreikusten.
- 99d) Irizpide horiek bakar-bakarrik onartuko dira berdintasun-programen edo -politiken kudeaketarekin zerikusia duten kontratuetan.

100 Egitura informal hauetako zein da Emakundek eta Eudelek bultzatutako udalerrri-sare bat?

- 100a) Berdintasun-batzorde teknikoa.
- 100b) Saileko talde teknikoa.
- 100c) Berdintasunerako unitateen sarea.
- 100d) Berdinsarea.

7. gaia

101 Administrazio elektronikoaren kontzeptuak honako honi egiten dio erreferentzia:

- 101a) Administrazio publikoetako ekipamendu elektronikoak modernizatzeari.
- 101b) Herritarrentzako ekipamendu elektronikoak erosteko laguntzei eta dirulaguntzei.
- 101c) Administrazio publikoetako IKTen erabilerari.
- 101d) Erantzun guztiak okerrak dira.

102 Ez da administrazio elektronikoaren ezaugarri bat:

- 102a) Paperaren erabilera murriztea.
- 102b) Herritarren ikaskuntza sustatzea.
- 102c) Pertsona kualifikatuentzako sarbide mugatua.
- 102d) Prozedurak sinplifikatzea.

103 Administrazio elektronikoari dagokionez, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak:

- 103a) Bereizi egiten ditu administrazio-prozedura erkidea eta prozedura elektronikoa.
- 103b) Ez dio erreferentziarik egiten administrazio elektronikoari.
- 103c) Administrazio-prozedura erkideari egiten dio erreferentzia, baina ez prozedura elektronikoi.
- 103d) Prozedura elektronikoaren eta prozedura administratiboaren arteko erregulazio-bereizketa ezabatzen du.

104 Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, izapidetze elektronikoak administrazio publikoen ohiko jarduketa izan behar al du?

- 104a) Administrazioen eta haien erakunde autonomoen arteko harremanetarako bakarrik.
- 104b) Ez, izapidetza aurrez aurre egin behar dira, batez ere herritarrekiko harremanetan.
- 104c) Bai, bai herritarrekiko harremanetarako, bai administrazioen arteko harremanetarako.
- 104d) Bai, soilik enpresa eta profesionalerako harremanetarako eta administrazioen arteko harremanetarako.

105 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, administrazio-egintzak:

- 105a) Idatziz egingo dira, bitarteko elektronikoen bidez, eta administrazio-dokumentuak ere idatziz emango dira, bitarteko elektronikoen bidez.
- 105b) Idatziz egingo dira, bitarteko elektronikoen bidez, baina administrazio-dokumentuak paperean emango dira, posta ziurtatu bidez.
- 105c) Idatziz egingo dira, paperean, eta administrazio-dokumentuak ere paperean emango dira.
- 105d) Bitarteko elektronikoen bidez egiten badira, ematen diren administrazio-dokumentuak ere bitarteko elektronikoen bidez gauzatuko dira; administrazio-egintza paper-formatuan egiten bada, administrazio-dokumentuak ere paperean emango dira.

106 Ministro Kontseiluaren 2014ko irailaren 19ko Erabakia argitaratzen duen urriaren 8ko PRE/1838/2014 Aginduaren arabera, nola du izena Estatuko administrazio-sektore publikoaren plataforma erkideak?

- 106a) SEPE.
- 106b) CI@ve.
- 106c) SGAD.
- 106d) IZENPE.

107 Zer da ziurtagiri elektronikoa bat?

- 107a) Pertsona baten identifikazio-datuak formatu elektronikoa erabiltzeko prozesua.
- 107b) Ziurtapen-zerbitzuen emaila batek elektronikoki sinaturiko dokumentua da; sinadura egiaztatzeko datu batzuen eta sinatzaile baten arteko lotura egiten du, eta sinatzaile horren nortasuna berresten.
- 107c) Eskuz sinatu ondoren eskaneatzen den dokumentua da, eta edozein administrazio publikotan modu telematikoan erabiltzeko balio du.
- 107d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

108 Sinadura elektronikoa:

- 108a) Errubrika eskaneatu bat da, banakakoa eta pertsonala.
- 108b) Kode alfanumeriko ausazko bat da, administrazio bateko erregistro elektronikoa automatikoki ematen duena, administrazio horrekin egiten diren izapide elektronikoa guztiak identifikatzeko.
- 108c) Datu-multzo bat da. Datu horiek elektronikoa dira formaz, beste datu elektronikoa batzuei erantsita daude edo funtzionalki haiekin lotuta daude, eta sinatzen den dokumentuaren egilea formalki identifikatzeko erabiltzen dira.
- 108d) Aukera guztiak okerrak dira.

109 Zein dira sinadura elektronikoen hiru motak?

- 109a) Digitalizatua, kautotua eta aitortua.
- 109b) Sinplea, aurreratua eta aitortua.
- 109c) Bi mota baino ez daude: aitortua eta egiaztatua.
- 109d) Kautotua, ziurtatua eta egiaztatua.

110 Zer da jakinarazpen elektronikoa?

- 110a) Egoitza elektronikoa ondorio juridikoak dituen administrazio-komunikazio bat argitaratzea.
- 110b) Administrazio publiko batek espediente baten izapidetzean egindako edozein aldaketari buruzko ohartarazpena egitea interesdunei posta elektronikoz.
- 110c) Egoitza elektronikoa ondorio juridikorik gabeko administrazio-komunikazio bat argitaratzea.
- 110d) Herritarren parte-hartzea errazteko plataforma elektronikoa bat da.

111 Izapidetze elektronikoi dagokionez, zer esan nahi dute «EKS» siglek?

- 111a) Egiazko kode segurua.
- 111b) Egiaptapen-kriptografia sistema.
- 111c) Egiaptapen-kode segurua.
- 111d) Egiaptapen-kreditu samina.

112 Zer egin behar du izapidetze elektronikorako laguntza behar duen biztanleria-segmentuak?

- 112a) Legezko ordezkari bat bilatu beharko dute izapide elektronikoa egiteko.
- 112b) Izapideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dituzte, izapide elektronikoa egiteko duten ezintasuna adierazten duen ziurtagiri batekin batera.
- 112c) Funtzionario Gaituen Erregistroan gaitutako langileen laguntza izan dezakete.
- 112d) Pertsona batengana jo beharko dute, ahal dela 2. mailara arteko familia-loturak dituen, eta baimena eman beharko diote izapide elektronikoa egiteko.

113 Zer da gaitutako funtzionarioen erregistroa?

- 113a) Eusko Jaurlaritza barruan erregistro elektronikoez arduratzen den saila da.
- 113b) Erregistro horretan administrazio bakoitzeko funtzionarioak daude, batez ere aurrez aurreko arreta-zerbitzuetako agenteak, eta tramitazioa hasiko dute tramitazio elektronikorako bitarteko edo ezagutza nahikorik ez duten herritarren ordezkari gisa.
- 113c) Erregistro horretan Eusko Jaurlaritzako funtzionarioak daude, batez ere Administrazio Orokorreko teknikariak, eta tramitazioa hasiko dute tramitazio elektronikorako bitarteko edo ezagutza nahikorik ez duten herritarren ordezkari gisa.
- 113d) Gaitasun digitalen ziurtagiriren bat edo guztiak dituzten funtzionarioak biltzen dituen erregistroa da.

114 Pertsona fisikoek erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko bitarteko elektronikoa erabili edo ez, administrazio publikoekiko harremanetan?

- 114a) Bai, une oro.
- 114b) Ez, pertsona fisikoak behartuta daude uneoro bitarteko elektronikoen bidez hartu-emanak izatera.
- 114c) Bai, salbu eta jarduera profesional baterako elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa bada, jarduera profesional horren izapide eta jarduketetarako, pertsona juridikoak badira, harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko badute edo administrazio publikoetako langileak badira.
- 114d) Ez, salbu eta elkargo bateko kide izatea eskatzen duen jarduera profesional bat egiten badute, jarduera profesional horren izapide eta jarduketetarako, pertsona juridikoak badira, harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko badute edo administrazio publikoetako langileak badira.

115 Pertsona fisikoek multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztatutako badago behar diren bitarteko elektronikorako irispidea eta eskuragarritasuna badutela...

- 115a) Erregelamenduz, administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako.
- 115b) Administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako, bakar-bakarrik kolegiatuta baldin badaude.
- 115c) Administrazioarekin harreman elektronikoa izateko betebeharra dago haiekin egiten diren izapide eta jarduketetarako.
- 115d) Exijituko da izapide elektronikoa egiteko gai ez direla adierazten duen dokumentazio ziurtatua aurkeztea, izapide administratiboak aurrez aurre egin nahi badituzte.

- 116 Datu pertsonalak babestea, eta bereziki administrazio publikoen fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna izatea:**
- 116a) Pertsonen eskubide bat da, administrazio publikoekiko harreman elektronikoetan darabiltena.
 - 116b) Pertsonen betebeharrak bat da, administrazio publikoekiko harreman elektronikoetan darabiltena.
 - 116c) Administrazio publikoen eskubide bat da, pertsona fisikoekiko harremanetan darabiltena.
 - 116d) Administrazio publikoen eskubide bat da, nortasun juridikorik gabeko erakundeekiko, haiekin jarduera profesionala egiten dutenekiko, enpresekiko eta pertsona fisikoen ordezkariakiko harremanetan darabiltena.
- 117 Pertsonak eskubidea dute administrazio publikoekin dituzten harreman elektronikoetan administrazio publikoen eta agintarien erantzukizunak eskatzeko, legez hala dagokionean.**
- 117a) Bai, pertsonen eskubide bat da, administrazio publikoekiko harreman elektronikoetan darabiltena.
 - 117b) Ez, pertsona fisikoek ez dute erantzukizunak eskatzeko eskubiderik.
 - 117c) Bai, tramitazio elektronikoetarako Administrazioaren laguntza behar dutenean izan ezik.
 - 117d) Ez, baieztapen hori okerra da.
- 118 Administrazio publikoek bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza emango diete interesdun guztiei, honako hauei izan ezik:**
- 118a) Pertsona juridikoak.
 - 118b) Pertsona fisikoak.
 - 118c) Interesdun guztiak, salbuespenik gabe.
 - 118d) Administrazio publikoek ez dute interesdunei baliabide elektronikoak erabiltzen laguntzeko betebeharrak.
- 119 Norena da egoitza elektronikoen titulartasuna?**
- 119a) Helbide elektronikoa duten eta herritarren karpeta erabiltzen duten pertsonena.
 - 119b) Administrazio publiko batena, edo zuzenbide publikoko entitate edo organismo publiko batena edo batzuen, beren eskumenak erabiliz.
 - 119c) Sinadura elektronikoko bakoitzaren arduradunarena.
 - 119d) Egoitza elektronikoko bakarra dago, eta Barne Ministerioaren titulartasuneko da.
- 120 Administrazio-prozeduran interesdun direnek erabiltzen dituzten identifikazio-sistemei dagokienez, administrazio publikoak behartuta daude...**
- 120a) Interesdunen identitatea erregistratzera, haien izen-abizenak edo sozietatearen izena (dagokiona) adierazita, bai eta eskuratzen den administrazio-prozedura ere.
 - 120b) Interesdun bakoitzari VSR kode bat ematera, izena, abizenak edo sozietatearen izena adierazita (dagokiona); kode hori banakakoa izango da eskuratzen den administrazio-prozedura bakoitzeko.
 - 120c) Interesdun direnen nortasuna egiaztatuz. Horretarako, haien izen-abizenak edo sozietatearen izena egiaztatuko dute (dagokiona), nortasun-agiri nazionalan edo identifikazio-dokumentu baliokidean.
 - 120d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 121 Nork baimentzen ditu gako itundua duten identifikazio-sistemak?**
- 121a) Autonomia-erkidego bakoitzeko Administrazio Orokorreko Segurtasun Digitaleko Sailak.
 - 121b) Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioko Administrazio Digitaleko Idazkaritza Nagusiak.
 - 121c) Segurtasun Digitalerako Europako Erakundeak.
 - 121d) Identifikazio-sistema hori ez da existitzen.

122 Zer identifikazio-sistema erabil dezakete administrazio publikoek?

- 122a) Zigilu elektronikoa.
- 122b) Sinadura elektronikoa.
- 122c) EKS kodea.
- 122d) URL kodea

123 Interesdunek erabil al dezakete zigilu elektronikoa sinadura gisa?

- 123a) Bai.
- 123b) Ez, zigilu elektronikoa administrazio publikoentzat bakarrik balio duen identifikazio-sistema bat da.
- 123c) Bai, baina sinadura elektronikoa kualifikatu batekin bakarrik.
- 123d) Ez, zigilu elektronikoa identifikatzeko sistema bat da; ez du balio sinatzeko.

124 Artxibo elektronikoak...

- 124a) Aukera ematen du estandarizatutako dokumentu batzuk bitarteko elektronikoen bidez biltegitzeko.
- 124b) Aukera ematen du artxibo konbentzionalen osagarri diren baina haien baliokideak ez diren dokumentu elektronikoak biltegitzeko.
- 124c) Aukera ematen du administrazio-jardunetan erabilitako dokumentu guztiak bitarteko elektronikoen bidez biltegitzeko.
- 124d) Aukera guztiak okerrak dira.

125 Erantzun hauetako zein da *OKERRA*, interesdunek sinadura elektronikoa nahitaez erabiltzeari dagokionez?

- 125a) Nahitaezkoa da eskaerak egiteko.
- 125b) Nahitaezkoa da errekurtsioak jartzeko.
- 125c) Nahitaezkoa da administrazio-prozeduran aurreikusitako edozein jarduketatarako.
- 125d) Nahitaezkoa da ekintzetan atzera egiteko eta eskubideei uko egiteko.

126 Baieztapen hauetako zein da *OKERRA*, dokumentu elektronikoei dagokienez?

- 126a) Edozein eratako euskarri elektronikoa batean artxibaturik eduki behar dute informazioa, identifikatzeko eta tratamendu berezitua emateko modukoa den formatu baten arabera.
- 126b) Indibidualizatzeko aukera ematen duten identifikazio-datuak eduki behar dituzte, hargatik eragotzi gabe espediente elektronikoa batean sartzeko aukera.
- 126c) Dokumentu horiek noiz eman diren eta noiz arte diren baliozkoak adierazi behar dute.
- 126d) Eskatzen diren gutxieneko metadatuak eduki behar dituzte.

8. gaia

127 Autonomia-estatutuak dioenez,

- 127a) Euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen da, biak hizkuntza ofizialak izanik.
- 127b) Euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen da, baina gaztelania bakarrik izango da ofiziala lurralde osoan.
- 127c) Euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatuko da, baina euskara bakarrik izango da ofiziala lurralde osoan.
- 127d) Euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatuko da, eta udalerrriaren tipologiaren arabera izango dira ofizialak edo ez.

128 Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean,

- 128a) Herritar guztiei aitortzen zaie nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eta hizkuntza horretan arreta jasotzeko eskubidea.
- 128b) Herritar guztiei aitortzen zaie joaten diren administrazio publikoaren jarduera-eremuan nagusi den hizkuntza ofiziala erabiltzeko eta hizkuntza horretan arreta jasotzeko eskubidea.
- 128c) Herritar guztiei aitortzen zaie euskara zein gaztelania erabiltzeko eta arreta elebiduna jasotzeko eskubidea.
- 128d) Guztiak okerrak dira.

129 Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean xedatutakoaren arabera:

- 129a) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden botere publikoek emandako araugintza-xedapen edo ebazpen ofizial guztiek, ahal dela, euskaraz idatzita egon behar dute publizitate ofiziala egin behar denean.
- 129b) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden botere publikoek erabili beharreko jakinarazpenak, administrazio-komunikazioak eta inprimaki edo idazki-eredu ofizialek bi hizkuntzetan egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek hizkuntza ofizialetako bat berriaz aukeratzeko badute.
- 129c) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden botere publikoek erabili beharreko jakinarazpenak, administrazio-komunikazioak eta inprimaki edo idazki-eredu ofizialek bi hizkuntzetan egon beharko dute beti.
- 129d) Guztiak okerrak dira.

130 Euskara eta gaztelania jakitea...

- 130a) Nahitaezkoa da beti.
- 130b) Nahitaezkoa da, hala zehazten den lanpostuetan.
- 130c) Nahitaezkoa ez den lanpostuetan, sartzeko egiten diren hautaprobetan, hizkuntza ofizialen ezagutza-maila hartuko da merezimendutzat.
- 130d) Zuzenak b) eta c) erantzunak dira.

131 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera, zein egoeratan gera daiteke lanpostu bateko titularrak lanpostu horretarako ezarritako hizkuntz-eskakizuna betetzetik libre?

- 131a) Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan titularrak 40 urte baino gehiago baditu, betiere titularrak ados egonez gero.
- 131b) Titularrak egindako ikasketen maila ez bada lanbide-heziketako goi-mailara iristen.
- 131c) Minusbaliotasun fisiko edo psikologikoak izanik, gaur egun helduen hizkuntz trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskaraz ikasteko eragozpenak edo ezintasunak baditu titularrak.
- 131d) Hizkuntz-eskakizuna beti da nahitaez bete beharrekoa.

132 Hizkuntza-eskakizunak:

- 132a) Zehazten ditu lanpostua betetzeko beharrezkoak diren euskarazko hizkuntza-gaitasun mailak.
- 132b) Zehazten ditu lanpostuan lan egiteko beharrezkoak diren euskarazko hizkuntza-gaitasun mailak.
- 132c) Zehazten ditu lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezkoak diren euskarazko hizkuntza-gaitasun mailak.
- 132d) Erantzun guztiak okerrak dira.

133 Lanpostu bati ezarritako derrigortasun-datatik aurrera:

- 133a) Hizkuntza-eskakizuna betetzea derrigorrezkoa izango da dena delako lanpostura iritsi eta hura betetzeko.
- 133b) Meritu gisa baloratu ahal izango da lanpostu bat betetzean.
- 133c) Lanpostu baten kanpo-hautaketan meritua gisa baloratu ahal izango da.
- 133d) Erantzun guztiak okerrak dira.

134 Funtzio Publikoaren Legearen arabera, nork zehazten ditu hizkuntza-eskakizunak, eta hizkuntza-eskakizun horiek lanpostuei aplikatzeko irizpideak?

- 134a) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.
- 134b) HABEK.
- 134c) Eusko Jaurlaritzak zehazten ditu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatuta.
- 134d) Eusko Jaurlaritzak zehazten ditu, HABEK proposatuta.

135 Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera, euskal eskola publikoaren helburu bat da:

- 135a) Ikasle guztiak, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean, bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izango dutela bermatzea.
- 135b) D ereduko ikasleek, derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean, bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izango dutela bermatzea.
- 135c) D ereduko ikasleek, bigarren hezkuntzako aldia amaitzean, bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izango dutela bermatzea.
- 135d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 136 Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera, zein dira irakaskuntza-sistema osoan, publikoan zein pribatuan, aplikatu beharreko hizkuntza-ereduak?**
- 136a) 1., 2. eta 3. ereduak.
 - 136b) A, B, C eta D ereduak.
 - 136c) A, B eta D ereduak.
 - 136d) A eta B ereduak irakaskuntza itunduan, eta B eta D ereduak irakaskuntza publikoan.
- 137 Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera, zer hizkuntzatan ematen da curriculuma B hizkuntza-ereduan?**
- 137a) Curriculuma batik bat gaztelaniaz ematen da, eta zenbait jarduera edo ikasgai euskaraz eman ahal izango dira.
 - 137b) Curriculuma euskaraz eta gaztelaniaz ematen da.
 - 137c) Curriculuma euskaraz ematen da.
 - 137d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 138 Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera, irakasgai hauek hiru hizkuntza-ereduetan emango dira, dagokien hizkuntzan:**
- 138a) Gaztelania eta gaztelaniazko literatura.
 - 138b) Euskara eta euskal literatura.
 - 138c) Hizkuntza modernoak.
 - 138d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 139 Lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak zehazteko irizpideak ezartzen dituen 47/1993 Dekretuaren arabera, irakaskuntzako lanpostuei aplikatu beharreko hizkuntza-eskakizunak hauek dira:**
- 139a) 1. edo 2. hizkuntza-eskakizunak.
 - 139b) 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizunak
 - 139c) A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 hizkuntza-eskakizunak.
 - 139d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 140 Adierazi zein den aukera zuzena. Irakasle-lanpostuetan, hizkuntza eskakizunak honela aplikatuko dira:**
- 140a) 1. hizkuntza-eskakizuna aplikatuko zaie ez euskara ez euskaraz irakasten ez duten irakasleek betetzen dituzten irakasle-lanpostuei; beraz, ez da beharrezkoa hizkuntza-gaitasuna bermatzea.
 - 140b) 2. hizkuntza-eskakizuna aplikatuko zaie euskaraz irakasten duten irakasleek betetzen dituzten irakasle-lanpostuei, euskara bakarrik harremanetarako hizkuntza gisa erabiltzeko behar den hizkuntza-gaitasuna bermatuz.
 - 140c) 2. hizkuntza-eskakizuna aplikatuko zaie euskara edo euskaraz irakasten duten irakasleek betetzen dituzten irakasle-lanpostuei, euskara harremanetarako eta irakaskuntzarako hizkuntza gisa erabiltzeko behar den hizkuntza-gaitasuna bermatuz.
 - 140d) 3. hizkuntza-eskakizuna aplikatuko zaie euskaraz irakasten duten irakasleek betetzen dituzten irakasle-lanpostuei, hizkuntza-gaitasun handia bermatuz.
- 141 Euskal Autonomia Erkidegoan dauden administrazio publikoetan, Administrazioako lanpostu bakoitzak ezarrita dauka bere hizkuntza-eskakizuna, baina:**
- 141a) Batzuetan nahitaezkoa da lanpostua eskuratzeko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea, eta beste batzuetan ez.
 - 141b) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea nahitaezkoa ez denean, euskararen ezagutza merezimendutzat hartzen da lanpostuak betetzeko eta hautatzeko prozesuetan.
 - 141c) Euskararen ezagutza merezimendutzat hartuko da hautaketa-prozesu guztietan.
 - 141d) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.

142 Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea nahitaezkoa ez denean, euskararen ezagutza merezimendutzat hartzen da lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan, eta ezagutza horri esleitu zaion portzentajea ez da inola ere izango hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen puntuazio handienaren portzentaje hauek baino txikiagoa edo handiagoa:

142a) 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak: % 5etik % 10era.

142b) 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak: % 10etik % 22ra.

142c) 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak: % 11tik % 20ra.

142d) Zuzenak a) eta c) erantzunak dira.

143 Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa denean, eta ez merezimendu hutsa, esaten da hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dela, hau da, derrigortasun-data zehatz bat ezarrita daukala eta data horretatik aurrera...

143a) Euskararen ezagutza lanpostuan jarduteko merezimendutzat hartu ahal izango dela.

143b) Nahitaezkoa dela euskararen ezagutza egiaztatzea lanpostuan jarduteko.

143c) Euskararen ezagutza ezin izango da baloratu lanpostuan jarduteko.

143d) Erantzun guztiak okerrak dira.

144 Nahitaez bete beharreko indizea...

144a) Zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da euskararen ezagutza derrigorrezkoa den lanpostuen kopurua.

144b) Zenbat eta euskaldun gehiago egon, orduan eta handiagoa izango da.

144c) Administrazio zehatz bateko lanpostu guztiak kontuan harturik derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuen portzentaia zehazten du.

144d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

9. gaia

145 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak:

- 145a) Funtzionarioei eta lan-kontratuko langileei aplikatu beharreko elementu komunak arautzen ditu.
- 145b) Funtzionario guztiei aplika dakizkiekeen elementuak bakarrik arautzen ditu.
- 145c) Ez du aldaketarik izan 2007an onartu zenetik.
- 145d) Enplegatu publikoa honela definitzen du: administrazio publikoetan zerbitzuak ematen dituzten pertsonak dira, eta Administrazioarekin administrazio arloko lotura dute.

146 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak honela sailkatzen ditu enplegatu publikoak:

- 146a) Funtzionarioak, lan-kontratuko langileak eta goi-kargudunak.
- 146b) Funtzionarioak, lan-kontratuko langileak eta behin-behineko langileak.
- 146c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langile finkoak eta lan-kontratuko behin-behineko langileak.
- 146d) Funtzionarioak, lan-kontratuko langile finkoak, behin-behineko langileak eta goi-kargudunak.

147 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan espresuki debekatuta dago enplegatu-mota bati enplegu publikora iristeko edo barne-sustapenerako merezimendu gisa baloratzea lanpostu horretan emandako denbora eta egindako zerbitzuak. Zein da enplegatu-mota hori?

- 147a) Behin-behineko langileak.
- 147b) Bitarteko funtzionarioak.
- 147c) Lan-kontratu mugagabeko langileak.
- 147d) Aldi baterako langile lan-kontratudunak.

148 Graduan, kategorian, mailan edo antzeko kontzeptuetan aurrera egitea (lanpostuz zertan aldatu gabe) ezaugarritzat duen karrera profesionalari honela deitzen zaio:

- 148a) Barne-sustapen bertikala.
- 148b) Barne-sustapen horizontala.
- 148c) Karrera bertikala.
- 148d) Karrera horizontala.

- 149 Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ezartzen duenez, barne-sustapeneko prozesu batean parte hartzen duten funtzionarioei, sartzeko baldintzak betetzeaz gain eta dagozkion hautaprobak gainditzeaz gain, honako hau eskatuko zaie:
- 149a) Beheragoko azpitaldean edo titulazio-taldean bi urteko antzintasuna egiaztatzea.
 - 149b) Administrazioan bi urteko antzintasuna egiaztatzea.
 - 149c) Beheragoko azpitaldean edo titulazio-taldean bost urteko antzintasuna egiaztatzea.
 - 149d) Administrazioan bost urteko antzintasuna egiaztatzea.
- 150 **Bitarteko funtzionarioak direla-eta zein da baieztapen OKERRA?**
- 150a) Administrazio-zuzenbidearen eraginpean daude.
 - 150b) Administrazioarekin duten lotura aldi baterakoa edo behin-behinekoa baino ez da.
 - 150c) Hautaketa-prozesu bat gainditu ondoren lan-kontratu bat sinatu dutenak dira.
 - 150d) Funtzionario horiek aldi batez betetzen dituzte karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak.
- 151 Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ezartzen du funtzionario publikoek errespetatu behar dituzten printzipioen zerrenda bat. Horietako bat da:
- 151a) Gaitasun-printzipioa.
 - 151b) Kulturaren eta ingurumenaren sustapena.
 - 151c) Kirolaren eta bizitza osasungarriaren sustapena.
 - 151d) Merezimendu-printzipioa.
- 152 Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezartzen du honela banatzen direla euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariak:
- 152a) Oinarrizkoak eta osagarriak.
 - 152b) Soldatak, hiru urtekoak eta aparteko ordainsariak.
 - 152c) Soldatak eta haborokinak.
 - 152d) Soldatak eta ordainsari gehigarriak.
- 153 Funtzionarioen ordainsariei dagokienez, soldata...
- 153a) Lanpostuaren zailtasun teknikoarekin lotuta dago.
 - 153b) Lanpostuaren erantzukizunarekin lotuta dago.
 - 153c) Lanpostuaren produktibitatearekin lotuta dago.
 - 153d) Lanpostuaren titulazio-taldearekin lotuta dago.
- 154 Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuak zenbait printzipio ezartzen ditu, funtzionarioen zehatze-araubidearen mende jarri beharrekoak. Horietako bat dugu:
- 154a) Zehatze-xedapenen atzeraeraginik ezaren printzipioa.
 - 154b) Zehatze-xedapenen atzeraeraginik ezaren printzipioa, agintaritzaren eskudunak hala xedatzen duenean izan ezik.
 - 154c) Atzeraeraginik ezaren printzipioa, zehatze-xedapenak, ustezko arau-hauslearen kalterako badira, eta atzeraeraginaren printzipioa, haren mesederako badira.
 - 154d) Zehatze-xedapenen atzeraeraginaren printzipioa, ustezko arau-hauslearen mesederako izan edo ez.
- 155 Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuak honela sailkatzen ditu funtzionarioen arau-hausteak:
- 155a) Arinak, astunak eta oso astunak.
 - 155b) Arinak eta astunak.
 - 155c) Faltak eta delituak.
 - 155d) Faltak, arau-hauste arinak eta arau-hauste astunak.

- 156 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak honela definitzen ditu enplegatu publikoak:**
- 156a) Pertsona horiek legezko izendapen bat dela-eta Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman baten bidez administrazio publiko bati lotuta daude, zerbitzu profesional iraunkor ordainduak emateko.
 - 156b) Administrazio publikoetan zeregin ordainduak betetzen dituzte, interes orokorren zerbitzura.
 - 156c) Administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituzte, idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker.
 - 156d) Pertsona horiek, hautaketa-prozesu bat gainditu ondoren, zerbitzu ordainduak ematen dituzte edozein administrazio publikotan.
- 157 Hauetako zein EZ da enplegatu publikoei Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aitortutako eskubidea?**
- 157a) Enplegatu publikoaren izaera ez kentzeko eskubidea.
 - 157b) Emandako zerbitzuari dagozkion ordainsariak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.
 - 157c) Etengabeko prestakuntzarako eskubidea.
 - 157d) Beren intimitatea errespetatua izateko eskubidea.
- 158 Funtzionario publikoen lan-baldintzen negoziazio kolektiboaz arduratzen den organoa administrazio publikoaren eta sindikatuen ordezkariak osatzen dute. Nola du izena organo horrek?**
- 158a) Negoziazio-mahaia.
 - 158b) Batzorde parekidea.
 - 158c) Negoziazio-batzar mistoa.
 - 158d) Laneko harremanen batzordea.
- 159 Administrazio publikoek akordioak egin ahal izango dituzte sindikatuen ordezkariekin, administrazio horietako funtzionarioen lan-baldintzak zehazteko.**
- 159a) Baina eraginkorrak izan daitezen, inplikaturako funtzionarioen kolektiboak berretsi beharko ditu bozketan.
 - 159b) Baina eraginkorrak izan daitezen, Administrazioko organo eskudunak berretsi egin beharko ditu eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira.
 - 159c) Baina eraginkorrak izan daitezen, inplikaturako funtzionarioek berretsi egin beharko dituzte bozketan eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira.
 - 159d) Baina eraginkorrak izan daitezen, inplikaturako funtzionarioek berretsi egin beharko dituzte bozketan, eta Administrazioko organo eskudunak ere berretsi beharko ditu.
- 160 Nola deitzen zaio lanpostuaren mailari dagokion funtzionarioen ordainsariari?**
- 160a) Soldata.
 - 160b) Destino-osagarria.
 - 160c) Berariazko osagarria.
 - 160d) Produktibitate-osagarria.

10. gaia

161 Datu pertsonalen babesa.

- 161a) Oinarrizko eskubidea da.
- 161b) Zeharkako eskubidea da.
- 161c) Funtsezko eskubidea da.
- 161d) Bigarren belaunaldiko eskubidea da.

162 Datu pertsonalak babesteko eskubidea honako hauei aplikatzen zaie:

- 162a) Pertsona fisikoei.
- 162b) Pertsona fisikoei eta juridikoei.
- 162c) Pertsona fisikoei, juridikoei eta hildakoei.
- 162d) Pertsona fisikoei, juridikoei, hildakoei eta erakunde publikoei.

163 Noiz esaten dugu datuen tratamendua dagoela?

- 163a) Datu horiei zabalkundea ematen zaienean.
- 163b) Datu horiek gordetzen direnean.
- 163c) Datu horiek ezabatzen direnean.
- 163d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

164 Datu pertsonalen kategoria hauetako zein *EZ* da kategoria bereziko deitzen direnetako bat?

- 164a) Jatorri etnikoari buruzkoak.
- 164b) Aurrekari penalen ziurtagiriari buruzkoak.
- 164c) Datu biometrikoei buruzkoak.
- 164d) Sinesmen filosofikoei buruzkoak.

165 Zein pertsona fisikor edo juridikor (izaera publikoa zein pribatua duenak) edo administrazio-organok hartzen ditu tratamenduaren helburuei eta bitartekoei buruzko erabakiak?

- 165a) Tratamenduaren arduradunak.
- 165b) Interesduna.
- 165c) Tratamenduaren arduradunak.
- 165d) Tratamenduaren kuradoreak.

166 Adierazi zein den datu pertsonalen kategoria berezi bateko datua:

- 166a) Telefono-zenbakia.
- 166b) Afiliazio politikoa.
- 166c) Hatz-marka.
- 166d) Bizilekuaren helbidea.

11. gaia

- 167 Zein da baieztapen zuzena, Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeari dagokionez?**
- 167a) Helburua, besteak beste, langileei prebentzio arloko prestakuntza bermatzea da.
 - 167b) Arau orokorra da, eta ez ditu gai espezifikoak aipatzen, esaterako, amatasuna babestea.
 - 167c) Lanaren Nazioarteko Erakundearekin arlo horretan hartutako konpromisoak indargabetzen ditu.
 - 167d) Ordezko araua da, eta arau autonomikorik ez dagoenean baino ez da aplikatzen.
- 168 Kasu hauetako zeinetan da aplikagarri Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legea?**
- 168a) Familia-etxeko zerbitzarien lan-harreman berezietan.
 - 168b) Administrazio publikoen zerbitzuplean dauden langileen administrazio- zein estatutu-izae-rako lan-harremanetan.
 - 168c) Babes zibileko zerbitzu operatiboetan, arrisku larri, hondamendi edo zoritxar publikoko ka-suak barne hartuta.
 - 168d) Poliziaren funtzio publikoen eremuan, jarduera guztietan.
- 169 Laneko arriskuen prebentzioa. 31/1995 Legeak zer langile-kolektibori buruz aurreikusten du neurri partikularrak hartzea?**
- 169a) Funtzionarioei dagokienez.
 - 169b) Aldi baterako lan-kontratuko langileei dagokienez.
 - 169c) Polizia-kidegoei dagokienez.
 - 169d) Haurrei dagokienez.
- 170 Zein da Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen edukia?**
- 170a) Langileen eskubideak, laneko arriskuen aurrean babes eraginkorra bermatzen dietenak.
 - 170b) Konfidentzialtasuna babestea langileen osasuna zaintzeko jardueretan.
 - 170c) Larrialdi-egoeretan hartu beharreko neurriak.
 - 170d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 171 Laneko arriskuen prebentzioa. 31/1995 Legeak zer betebeharrak ezartzen ditu enpresaburu batzuekin kontratatzen edo azpikontratatzeko duten enpresaburuak, beren jarduerari dagozkion obrak edo zerbitzuak beren lantokietan bertan egin ditzaten?**
- 171a) Kontratatuek eta azpikontratatuak prebentzio-araudia bete behar dutela zaintzeko betebeharrak.
 - 171b) 31/1995 Legeak ez du berariazko betebeharrak ezartzen kasu horretarako.
 - 171c) Bi enpresen arteko kontratuan lan-arriskuen prebentzioari buruzko klausula bat eransteko betebeharrak.
 - 171d) 31/1995 Legeak debekatu egiten ditu enpresaburuak beste enpresa batzuekin kontratatzea edo azpikontratatzeko beren lantokietan beren jarduerari dagozkion obrak edo zerbitzuak egitea.
- 172 Laneko arriskuen prebentzioa. Hauetako zein da enpresaren prebentzio-jardueraren printzipio bat?**
- 172a) Pertsona lanera egokitzea, eta ez lana pertsonara.
 - 172b) Banakako babesak babes kolektiboaren aurretik jarriko duten neurriak hartzea.
 - 172c) Bermatzea informazio nahikoa eta egokia jasotzen duten langileak soil-soilik sar daitezkeela arrisku larri eta bereziko guneetara.
 - 172d) Prebentzio-neurriak ez dituzte nahitaz aurreikusitako behar langileek izan ditzaketen distrakzioak eta zehurtziagabekeriak.
- 173 Lan-arriskuen prebentziorako planari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?**
- 173a) Besteak beste, laneko arriskuen prebentzio arloko erantzukizunak jasotzeko behar ditu.
 - 173b) Besteak beste, laneko arriskuen prebentzio-arloko prozedurak eta prozesuak jasotzeko behar ditu.
 - 173c) Besteak beste, laneko arriskuen prebentzioa dagokion enpresaren edo administrazioaren kudeaketa-sistema orokorrean txertatzeko balio du.
 - 173d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 174 Arriskuen prebentzioa. Zer baieztapen da zuzena, lan-ekipamenduei eta babes-baliabideei dagokienez?**
- 174a) Lana antolatzekeo neurriak erabiliko dira arriskuak ezin direnean behar beste mugatu norbera babesteko ekipamenduen bidez.
 - 174b) Langileek erabiliko dute, beren erantzukizunpean, enpresaburuak emandako norbera babesteko ekipamenduak erabiltzen dituzten ala ez.
 - 174c) Norbera babesteko ekipamenduak erabiliko dira arriskuak ezin direnean behar beste murriztu babes kolektiboko neurri teknikoaren bidez edo lana antolatzekeo neurrien bidez.
 - 174d) Inola ere ez da erabiliko erabiltzen duenaren segurtasunerako eta osasunerako arrisku espezifikoak izan dezakeen lan-ekipamendurik.
- 175 Arriskuen prebentzioa. Zein baieztapen da zuzena, langileei eman beharreko informazioari dagokionez?**
- 175a) Nolanahi ere, langile bakoitzari zuzenean jakinarazi behar zaizkio bere lanpostuari edo eginkizunari eragiten dioten arrisku espezifikoak.
 - 175b) Enpresaburuak kontsulta egin ahal izango die langileei, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten alderdiei buruz.
 - 175c) Langileen ordezkariak duten enpresetan, ordezkariak horren erantzukizuna izango da laneko segurtasunari eta osasunari buruzko informazio guztia ematea.
 - 175d) 31/1995 Legeak ez dio enpresaburuari ezartzen langileei informazioa emateko betebeharrak espezifikoak.

- 176 Langileei arriskuak prebenitzeko prestakuntza ematea. Baieztapen hauetatik zein da zuzena?**
- 176a) Prestakuntza lanaldiaren barruan eman beharko da derrigor.
 - 176b) Prestakuntzaren kostu ekonomikoa enpresaburuak eta langileak partekatuko dute.
 - 176c) Prestakuntza ez da beharrezkoa izango sei hilabetetik beherako iraupena duten kontratuen kasuan.
 - 176d) Prestakuntza aldian-aldian errepikatu beharko da, beharrezkoa bada.
- 177 Laneko arriskuen prebentzioa. Zer gai sartu behar dira larrialdi-egoeretan hartu beharreko neurrietan?**
- 177a) Lehen laguntzak.
 - 177b) Suteen aurkako borroka.
 - 177c) Langileen ebakuazioa.
 - 177d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 178 Laneko arriskuen prebentzioa. Sindikatuen ordezkariak erabaki al dezakete jarduera geldiaraztea arrisku larria eta berehalakoa bada?**
- 178a) Ezin dute erabaki jarduera geldiaraztea, baina bai lantokia uztea.
 - 178b) Bai, ordezkarien gehiengoz erabaki daiteke, enpresaburuak langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko behar diren neurriak hartzen ez dituzenean edo hartzen uzten ez duenean.
 - 178c) Ez, enpresaburuak edo lan-agintaritzak bakarrik erabaki dezake jarduera geldiaraztea.
 - 178d) Lan-agintaritzak baimentzen duenean bakarrik.
- 179 Laneko arriskuen prebentzioa. Zer kasutan da nahitaezkoa langileentzat osasuna zaintzeko azterketak edo probak egitea?**
- 179a) Kasu guztietan.
 - 179b) Inoiz ere ez.
 - 179c) Besteak beste, lan-baldintzek langileen osasunean dituzten ondorioak ebaluatzeko ezinbestekoa denean.
 - 179d) Lan-baldintzek langileen osasunean dituzten ondorioak ebaluatzeko ezinbestekoa denean bakarrik.
- 180 Arriskuen prebentzioa. Norentzat egon behar dira eskuragarri langileei egindako arrisku-ebaluazioak?**
- 180a) Publikoak izan behar dira langileei egindako arrisku-ebaluazioak.
 - 180b) Ukitutako langileentzat bakarrik.
 - 180c) Lan-agintaritzarentzat.
 - 180d) Lan-agintaritzarentzat eta sindikatuetako ordezkariarentzat bakarrik.
- 181 Laneko arriskuen prebentzioa. Amatasuna babestea. Zer egin behar du enpresaburuak langile batek haurdun dagoela jakinarazten duenean?**
- 181a) Haren kontratua etenda dagoela deklaratzeko.
 - 181b) Lanpostuko arriskuen ebaluazioa berrikusteko.
 - 181c) Gaixotasun arruntagatiko baja izapidetzeko.
 - 181d) Haurdunaldiagatiko lizentzia emateko.

182 Laneko arriskuen prebentzioa. Aldi baterako laneko enpresek kontratatutako langileak dira eta, zein da baieztapen zuzena?

- 182a) Jarduera hasi baino lehen, izan ditzaketen arriskuei buruzko informazioa jaso beharko dute.
- 182b) Ez dute beren osasun-egoera aldizka zaintzeko eskubiderik.
- 182c) Aldi baterako laneko enpresa izango da segurtasunaren eta osasunaren babesaren arloko arduradun bakarra.
- 182d) Langile horiek 31/1995 Legearen aplikazio-eremutik kanpo daude.

183 Laneko arriskuen prebentzioa. Aukera hauetatik zein da langileen betebeharra, arriskuen prebentzioaren arloan?

- 183a) Erremintak behar bezala erabiltzea, haien izaeraren eta aurreikus daitezkeen arriskuen arabera.
- 183b) Dauden segurtasun-gailuak funtzionamendutik kanpo uztea, lan-erritmo egokia oztopatzen dutenean.
- 183c) Isilpean gordetzea langileen segurtasuna eta osasuna arriskuan jartzen duten egoerak.
- 183d) Babes-baliabideak eta - ekipamenduak arrisku-pertzepzioaren arabera erabiltzea.

12. gaia

- 184 Aukeratu erantzun egokia: 3 kg baino gehiago duten kargak onargarria EZ den bizkarraldeko eta gerriko arrisku bat eragin dezakete:**
- 184a) Nahiz eta baldintza ergonomiko egokietan manipulatu.
 - 184b) Kasu guztietan.
 - 184c) Baldintza ergonomiko txarretan manipulatzeko badira.
 - 184d) 1,60 cm baino gutxiago neurtzen duten pertsonentzat.
- 185 Zenbat kilotik aurrerako kargak dira berez arriskutsuak, ergonomia-baldintzak onak izan arren?**
- 185a) 10 kilo.
 - 185b) 15 kilo.
 - 185c) 20 kilo.
 - 185d) 25 kilo.
- 186 Kargak eskuz manipulatzeari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko 487/1997 Errege Dekretuaren arabera:**
- 186a) Kargak eskuz manipulatzeko saihestea lortuko balitz, ez litzateke beharrezkoa izango kargak eskuz manipulatzeko ondoriozko arriskuak ebaluatzea.
 - 186b) Kargak eskuz manipulatzeko saihestuz gero ere, kargak eskuz manipulatzeko arriskuak ebaluatu beharko lirateke.
 - 186c) Enpresaburuak ez daude behartuta kargak eskuz manipulatzeko saihesteko behar diren neurri teknikoak edo antolakuntzakoak hartzeri.
 - 186d) Guztiak okerrak dira.
- 187 Laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legearen arabera, arriskuen ebaluazioa:**
- 187a) Ez da derrigorrezkoa.
 - 187b) 100 langile baino gehiagoko enpresetan soilik da derrigorrezkoa.
 - 187c) Derrigorrezkoa da.
 - 187d) Gomendagarria da, baina ez derrigorrezkoa.

188 Kutxa bat altxatzeko metodoaren arabera, zer urrats EZ litzateke egokiena izango?

- 188a) Aurreikusi garraiorako ibilbidea eta jaso ondoren azkenean non utzi behar den.
- 188b) Saihestu biraketak: saiatu bizkarrarekin ez birarik egiten; hobe da oinak mugitzea jarrera egokian kokatzeko.
- 188c) Karga gorputzetik urrun eduki jasotze osoan.
- 188d) Erabili jantzi, oinetako eta ekipo egokiak.

189 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Kargak bi pertsonaren artean altxatzeko:

- 189a) Jasotzen hasi baino lehen, ibilbidea planifikatu behar da.
- 189b) Zama altxatzen duten bi pertsonak altuera desberdinekoak izan behar dute.
- 189c) Kontuz ibili behar da.
- 189d) Zuloak eta bestelako oztopoak saihestu behar dira.

190 Lesio hauetako zein da ohikoena?

- 190a) Kontusioak.
- 190b) Zauriak.
- 190c) Hausturak.
- 190d) Muskuluetako eta hezurdurako lesioak.

191 Gorputza posizio ezegonkorrean dagoenean, laneko arrisku-faktoretzat hartzen da:

- 191a) Lan-inguruarena.
- 191b) Kargaren nolakotasunagatik.
- 191c) Jardueraren exigentzia.
- 191d) Egin beharreko ahalegin fisikoa.

13. gaia

192 Lehen laguntzen helburu nagusia honako hau izan behar da:

- 192a) Istripua izan duen pertsonaren lesioak sendatzea.
- 192b) Istripua izan duen pertsonari bizirik eustea, eta haren lesioek okerrera ez egitea.
- 192c) Laguntza morala ematea istripua izan duenari.
- 192d) Istripua izan duen pertsona entretenitzea larrialdi-zerbitzuetara joan arte.

193 Zein oinarrizko jarraibide daude BJJ akronimoaren atzean?

- 193a) Begiztatu, joan eta lagundu.
- 193b) Baliatu, jo eta lagundu.
- 193c) Babestu, jakinarazi eta lagundu.
- 193d) Baloratu, joan eta lagundu.

194 Zer ordenatan aztertu behar dira bizi-konstanteak?

- 194a) Konortea, arnasketa eta pultsua, pazientearen larritasunaren arabera.
- 194b) Konortea, arnasketa eta pultsua, eta beti ordena horretan.
- 194c) Konortea, pultsua eta arnasketa.
- 194d) Pultsua, arnasketa eta konortea.

195 Nola egiaztatzen dugu biktimaren bizitza ez dagoela arriskuan?

- 195a) Arnasa hartzen duen eta pultsua duen egiaztatuz.
- 195b) Hitz egiten duen egiaztatuz.
- 195c) Gorputzeko zatiren batetik odola dariola egiaztatuz.
- 195d) Gorputzeko atal guztiak mugi ditzakeen egiaztatuz.

196 Oxigenorik hartu gabeko zenbateko tartetik aurrera jasotzen dituzte zelulek behin betiko kalteak?

- 196a) 0 - 1 minutuen arteko tartea.
- 196b) 1 - 3 minutuen arteko tartea.
- 196c) 3 - 5 minutuen arteko tartea.
- 196d) 5 - 7 minutuen arteko tartea.

197 Arnasketa artifizialak, eraginkorra izateko, honelakoa izan behar du:

- 197a) Berehalakoa, moztua eta luzea.
- 197b) Berehalakoa, jarraitua eta luzea.
- 197c) Berehalakoa, jarraitua eta laburra.
- 197d) Berehalakoa, etena eta laburra.

198 Zer esan nahi du pazientea ahoz gorako etzanera jartzeak?

- 198a) Alboranzko posizioan jartzea.
- 198b) Jarreran pazientea erosoago sentitzea.
- 198c) Ahoz behera jartzea.
- 198d) Ahoz gora jartzea.

199 Bihotz-masajea egiteko, soroslea biktimaren ondoan jarriko da:

- 199a) Kokoriko eta biktimarekiko jarrera horizontalean.
- 199b) Belauniko eta biktimarekiko jarrera perpendikularrean.
- 199c) Eserita eta biktimarekiko jarrera perpendikularrean.
- 199d) Belauniko eta biktimarekiko jarrera horizontalean.

200 Bihotz-masajea, konpresioa erritmo honetan egin behar da:

- 200a) 30-50 aldiz minutuko.
- 200b) 120-150 aldiz minutuko.
- 200c) 80-100 aldiz minutuko.
- 200d) 50-60 aldiz minutuko.

201 Biktima bere onera etorritakoan, posizio honetan jarriko dugu:

- 201a) Alboranzko segurtasun-posizioan.
- 201b) Ahoz gora.
- 201c) Ahoz behera.
- 201d) Pertsona erosoan sentitzen den posizioan.

202 Zer odol-hodi lesionatu dela pentsa dezakegu sintomatologia hau ikusten dugunean? Odola bizi-bizi ateratzen da, aldizka, borborka bihotzeko taupadekin batera.

- 202a) Arteria.
- 202b) Zaina.
- 202c) Kapilarra.
- 202d) Edozein odol-hodi.

203 Hemorragia gorputz-adarretan gertatzen bada:

- 203a) Gorputz-adarrak lurrean eta bihotzaren parean jarriko ditugu beti, biktimarentzat mingarria izan arren.
- 203b) Gorputz-adarrak lurrean eta bihotzaren parean jarriko ditugu beti, biktimarentzat mingarria ez bada.
- 203c) Gorputz-adarrak goratuta eta bihotza baino gorago jarriko ditugu beti, biktimarentzat mingarria izan arren.
- 203d) Gorputz-adarrak goratuta eta bihotza baino gorago jarriko ditugu beti, biktimarentzat mingarria ez bada.

204 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Torniketea.

- 204a) Odoljarioa dagoenean egin beharreko lehen metodoa da.
- 204b) Aparteko eta muturreko metodoa da.
- 204c) Metodo justifikatua da, osasun-zentro baterako lekualdaketa atzeratzen den kasuetan.
- 204d) Bendaje konpresiboa da, oso gogorra, zirkularra oro har, eta arteriak konprimitzen ditu.

205 Aukeratu erantzun OKERRA. Torniketea jarri ondoren:

- 205a) Osasun-langileek kenduko dute torniketea, eta ez sorosleak.
- 205b) Osasun-langileek kenduko dute torniketea, edo sorosleak, horretarako gaitasuna badauka.
- 205c) Zaurituari ohar bat jarri behar zaio erraz ikusteko leku batean. Oharrean, odoljarioaren berri emango dugu, eta torniketea zer ordutan eta minututan jarri den adieraziko.
- 205d) Torniketea luzaroan edukiz gero, komeni da gutxi gorabehera 20 minututik behin pixka bat lasaitzea.

206 Zer egin shock-arriskua gertatzen denean?

- 206a) Jarri pertsona zutik, odola garunera errazago iristeko.
- 206b) Jarri gorputz-adarrak horizontalean gorputzarekiko, minez kexatzen ez bada behintzat.
- 206c) Saiatu hoztu ez dadin.
- 206d) Jaten eta edaten eman.

207 Hautatu erantzun zuzena, erredurak sakoneraren arabera sailkatzeari dagokionez:

- 207a) Honela sailkatzen dira: 1., 3, eta 5. gradua.
- 207b) Honela sailkatzen dira: 1. 2. eta 3. gradua.
- 207c) «9en erregela»ri jarraikiz sailkatzen dira.
- 207d) «12en erregela»ri jarraikiz sailkatzen dira.

208 Aukeratu erantzun zuzena, erredurak hedaduraren arabera sailkatzeari dagokionez:

- 208a) Honela sailkatzen dira: 1., 3, eta 5. gradua.
- 208b) Honela sailkatzen dira: 1. 2. eta 3. gradua.
- 208c) «9en erregela»ri jarraikiz sailkatzen dira.
- 208d) «12en erregela»ri jarraikiz sailkatzen dira.

209 Zer egin erreduraren bat egiten denean:

- 209a) Jaten edo edaten eman, ahotik.
- 209b) Askatu larruazalari itsatsitako arropak.
- 209c) Erredura lotu, gazak edo zapi garbiak erabiliz.
- 209d) Lehertu sortu diren babak.

210 Zer EZ da egin behar erreduraren bat egiten denean?

- 210a) Zauritua ospitalera eraman lehenbailehen.
- 210b) Aldizka, bizi-zeinuei erreparatu.
- 210c) Zauritua bero-iturritik alden du.
- 210d) Pomadak, ukenduak, hortzetako pasta, etab. jarri erreduraren gainean.

211 Haustura bat immobilizatzean, zein da funtsezko araua?

- 211a) Haustura immobilizatu, hezurra bere ohiko posizioa eramanez.
- 211b) Haustura immobilizatu, dagoen posizio berean.
- 211c) Haustura immobilizatu, murrizten saiatuz.
- 211d) Ez dago funtsezko araurik haustura bat immobilizatzeari buruz.

212 Bizkarrezurra hautsita dagoela susmatzen badugu, zein da funtsezko printzipioetako bat?

- 212a) Pertsona eseri, erosoago egon dadin.
- 212b) Plano gogor batean etzanda eduki pertsona ahoz gora, buruak, enborrak eta gorputz-adak rrek lerro zuzen bat osatzen dutela.
- 212c) Gorputz-adarrak goratuta eta bihotza baino gorago jarri, biktimarentzat mingarria ez bada behintzat.
- 212d) Pertsona etzanda eduki leku bigun batean, eroso sentitzeko moduan.

213 Hautetako zein *EZ* da epilepsiaren sintoma posibleetako bat?

- 213a) Konortea galtzea.
- 213b) Muskuluetako espasmoak.
- 213c) Esfinterrak erlaxatzea.
- 213d) Odoljarioa.

214 Zer *EZ* genuke egin beharko jatorri epileptikoa izan dezakeen konbultsio bat badu pertsona batek?

- 214a) Biktima zauritu dezakeen edozer kenduko dugu haren ingurutik.
- 214b) Jantziren bat jarriko diogu buru azpian, kuxina balitz bezala.
- 214c) Saiatu biktimari eusten muskulu-espasmoak dituela.
- 214d) Arropa estua lasaituko diogu.

14. gaia

215 Nola esaten zaio informazioa eskuratu, datuak babestu, gobernuaren jarduerak ezagutu eta herritarrei iritzia emateari?

- 215a) Berrikuntza publikoa.
- 215b) Balio publikoa.
- 215c) Gobernu irekia.
- 215d) Administrazio elektronikoa.

216 Gobernu irekiaren kontzeptua honetan oinarritzen da:

- 216a) Administrazio elektronikoan eta modernizazioan.
- 216b) Kanpo-politikan eta merkataritzan.
- 216c) Gardentasunean, elkarlanean eta parte-hartzean.
- 216d) Konfiantzan eta izateko arrazoian.

217 Nork promulgatu zuen Gardentasunari eta gobernu irekiari buruzko Memoranduma? Lau aukera:

- 217a) John F. Kennedy.
- 217b) Jimmy Carter.
- 217c) George W. Bush.
- 217d) Barack Obama.

218 Gobernu irekia. Administrazio on batek ezaugarri hauek ditu:

- 218a) Erakundea bera bere jardunaren erdigunean jartzea.
- 218b) Gizartearekiko adostasuna eta elkarriketa sustatzea.
- 218c) Talde nagusien interesetan esku hartzea.
- 218d) Hazkunde ekonomikoa sustatzea.

219 Adierazi zein den erantzun **OKERRA**. Administrazioarekin baliabide elektronikoaren bidez haurremanetan jartzeak aukera ematen du...

- 219a) Administrazioan sartzeko, bulegoetara modu presentzian joan gabe.
- 219b) Edozein administrazio-izapide egiteko epeak malgutzeko.
- 219c) Edozein prozedura edo erabaki publikoren izapidetze-egoeraren gaineko kontrol handiago izateko.
- 219d) Administrazio-izapideak sinplifikatzeko.

- 220** **Gobernu irekia. Erakunde publikoen jardueri buruzko informazioa herritarren eskura jar-
tzeak printzipio honi erantzuten dio:**
- 220a) Gardentasuna.
 - 220b) Herritarren parte-hartzea.
 - 220c) Integritatea.
 - 220d) Kalitatea eta eraginkortasuna kudeaketan.
- 221** **Gobernu irekia. Kudeaketa-prozesu horizontalak ezartzeak eta herritarrek erabaki publikoak
hartzean inplikatzeko printzipio honi erantzuten diote:**
- 221a) Informazio publikoa eskuratzea.
 - 221b) Kalitatea eta eraginkortasuna kudeaketan.
 - 221c) Integritatea.
 - 221d) Herritarren parte-hartzea.
- 222** **Gobernu irekia. Hauek dira integritatearen oinarriko printzipioak:**
- 222a) Herritarrek parte-hartzea lortzea eta gizarte-politikak sustatzea.
 - 222b) Interes orokorra, errespetua eta eraginkortasuna, emaitza onak.
 - 222c) Herritarrei teknologia berriak erabiltzeko prestakuntza ematea eta gizarte-eragileekin el-
karreragitea.
 - 222d) Gizarte zibila indartzea eta politika ekonomikoak legitimatzea.
- 223** **Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko
19/2013 Legearen arabera, argitaratzen den informazioak printzipio hau bete behar du:**
- 223a) Interes-printzipioa.
 - 223b) Zabalkunde-printzipioa.
 - 223c) Gaurkotasun-printzipioa
 - 223d) Irakurketa errazaren printzipioa.
- 224** **Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko
19/2013 Legearen arabera, zer esan nahi du «kontuak ematea» kontzeptuak?**
- 224a) Jarduneko gobernuaren gastuen zerrenda aldi berean argitaratzea.
 - 224b) Kontu publikoak ikuskatzea organo eskudunaren aurrean.
 - 224c) Erabaki politikoetan erantzukizuna aitortzea eta nor bere gain hartzea.
 - 224d) Hauteskunde-programa osoa zehatz-mehatz betetzea.
- 225** **Publizitate aktiboari buruzko informazioa hemen aurkeztu ohi da:**
- 225a) Iragarki-tauletan.
 - 225b) Kontratatuaren profilean.
 - 225c) Egoitza elektronikoa.
 - 225d) Gardentasunari buruzko atarietan.
- 226** **Open Data batez ere honako hauekin dago lotuta:**
- 226a) Administrazio publikoaren datuekin.
 - 226b) Enpresa publiko eta pribatuaren datu ekonomikoekin.
 - 226c) Administrazio Orokorren datu demografikoekin.
 - 226d) Erroldatik hartutako datuekin.
- 227** **Zein EZ da datu publiko irekiak argitaratzeko helburuetako bat?**
- 227a) Balioa eta aberastasuna sortzea.
 - 227b) Interes sozialak agenda publikoan sartzea bultzatzea.
 - 227c) Administrazio Publikoaren gardentasuna lortzea.
 - 227d) Administrazioen arteko elkarreragingarritasuna lortzea.

- 228 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Oro har, oinarrizko araudian eta ondoko garapen autonomikoetan ezarrita dago herritarren eskubidea dela:**
- 228a) Informazio publikoa doan eskuragarri izatea.
 - 228b) Eskatutako informazioa aukeratutako moduan eta formatuan lortzea.
 - 228c) Sarbide-eskaerak ez onartzeko edo ukatzeko arrazoiak ezagutzea.
 - 228d) Lortutako informazioa erabiltzea, aldeztatik aurrerik baimena emanda, eta legeek ezarritako mugak betetzea.
- 229 Hauetako zein da aukera OKERRA? Informazio publikora irispidea izateko eskubidearen muga/ek:**
- 229a) Segurtasun nazionala babestearekin dute zerikusia.
 - 229b) Oro har aplikatzen dira, salbuespenak salbuespen.
 - 229c) Aldeko printzipio orokorraren salbuespenak dira.
 - 229d) Interes ekonomiko eta komertzialak babestearekin dute zerikusia.
- 230 Informazio publikoa eskuratzea. Eskatutako informazioan ideologia, sindikatu-afiliazioa, erlijioa edo sinesmenak adierazten dituzten datu pertsonalak badaude, sarbidea baimendu ahal izango da:**
- 230a) Ukitutako pertsonaren ahozko edo idatzizko baimena edukiz gero.
 - 230b) Datuak publiko egin badira, ukitutako pertsonaren baimenik ez eduki arren.
 - 230c) Ukitutako pertsonaren berariazko baimen idatzia edukiz gero.
 - 230d) Aurreko kasu guztietan.
- 231 Nork sortu eta mantendu behar du Tratamendu Jardueren Erregistroa?**
- 231a) Datu pertsonalen tratamenduaren arduradunek eta eragileek.
 - 231b) Datu pertsonalak tratatzen dituzten erakundeetako zuzendaritzek edo kudeatzaileek.
 - 231c) Datu pertsonalak dauzkaten eta erabiltzen eta tratatzen dituzten administrazioek.
 - 231d) Datu pertsonalak tratatzearekin lotura duten pertsonak.
- 232 Informazio publikorako irispidea ukatzen denean, zer epetan aurkez daitezke erreklamazioa Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren aurrean?**
- 232a) Hiru hilabeteko epean, irispidea ukatzen den egunetik hasita, edo eperik gabe, administrazio-isiltasunaren bidez ukatzen bada.
 - 232b) Hiru hilabeteko epean, irispidea ukatzen den egunetik hasita, edo sei hilabeteko epean, administrazio-isiltasunaren bidez ukatzen bada.
 - 232c) Hilabeteko epean, irispidea ukatzen den egunetik hasita, edo eperik gabe, administrazio-isiltasunaren bidez ukatzen bada.
 - 232d) Hilabeteko epean, irispidea ukatzen den egunetik hasita, edo hiru hilabeteko epean, administrazio-isiltasunaren bidez ukatzen bada.
- 233 Zer da herritarren parte-hartzea?**
- 233a) Pertsonak botere publikoen aurrean iradokizunak aurkezteko duten gaitasuna.
 - 233b) Pertsonak gai publikoetan aktiboki parte hartzeko duten gaitasuna.
 - 233c) Pertsonak hauteskundeetan beren botoaren bidez parte hartzeko duten gaitasuna.
 - 233d) Pertsonak administrazio publikoen aurrean erreklamatzeko duten gaitasuna.

- 234 Zer dira inkestak, zundaketak, kontsulta-foroak, eztabaidarako eta kontsultarako guneak eta partaidetzako deliberazio-prozesuak?
- 234a) Herritarren parte-hartzea sustatzeko tresnak.
 - 234b) Herritarrek parte-hartzeari lotutako jardueretan ekimena izan dezaten sustatzeko neurriak.
 - 234c) Herritarren parte-hartze prozesuen oinarritzko printzipioak.
 - 234d) Parte-hartze prozesu erreal eta eraginkorren faseak.
- 235 Hautako zein da aukera **OKERRA**? Integritate-sistemetan sartzan diren lege, kode eta praktika guztiek balio eta jokabide-arau berberak dituzte, eta horiek hiru printzipio etiko orokorretan sar daitezke.
- 235a) Interes orokorra eta guztien ongia.
 - 235b) Errespetuaren eta irekitasunaren printzipioa.
 - 235c) Berrikuntza publikoarekiko konpromisoa.
 - 235d) Eraginkortasuna eta emaitza onak.
- 236 Kudeaketa publikoari aplikatuta, administrazio publiko baten kalitatea honako hauetan oinarritu behar da:
- 236a) Herritarrekiko ikuspegian.
 - 236b) Langile publikoek erakundearekin eta haren helburuekin duten konpromisoan.
 - 236c) Haren emaitzen araberako etengabeko hobekuntzan.
 - 236d) Aukera guztiak zuzenak dira.

15. gaia

237 Hezkuntzaren arloko eskumena:

- 237a) Estatuaren eskumen eskusibo bat da.
- 237b) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusibo bat da.
- 237c) Ez da Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean partekatutako eskumen bat.
- 237d) Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean partekatutako eskumen bat da.

238 Hezkuntzarako eskubideari dagokionez, zein da erantzun *OKERRA*?

- 238a) Herritar ororen oinarritzko eskubidea da, nahiz eta Konstituzioan aitortuta ez egon.
- 238b) Botere publikoek bermatu behar duten oinarritzko eskubidea da.
- 238c) Oinarritzko eskubide hori urratzen zaien herritarrek eskubide hori babesteko prozedura berezi bat izango dute, eta Konstituzio Auzitegira ere jo ahal izango dute babes-errekurtso bidez.
- 238d) Estatuak eta autonomia-erkidegoak onartutako arauen bidez gauzatzen da.

239 Oinarritzko hezkuntza:

- 239a) Batez ere Lehen Hezkuntzak osatzen du.
- 239b) Batez ere Lehen Hezkuntzak eta heziketa-zikloek osatzen dute.
- 239c) Nahitaezkoa eta doakoa da.
- 239d) Nahitaezkoa da, baina ez doakoa.

240 Zer dago goi-mailako hezkuntzaren barruan?

- 240a) Batxilergoa.
- 240b) Batxilergoa, unibertsitate-irakaskuntza eta goi-mailako lanbide-heziketa.
- 240c) Unibertsitateko irakaskuntzak, goi-mailako lanbide-heziketa, arte plastikoen eta diseinuaren goi-mailako irakaskuntza profesionalak eta goi-mailako kirol-irakaskuntzak.
- 240d) Unibertsitateko irakaskuntzak, goi-mailako arte-irakaskuntzak, goi-mailako lanbide-heziketa, arte plastikoen eta diseinuaren goi-mailako irakaskuntza profesionalak eta goi-mailako kirol-irakaskuntzak.

241 Zer motatako ikastetxeak daude?

- 241a) Ikastetxe publiko itunduak, ikastetxe publiko itundugabeak, ikastetxe pribatu itunduak eta ikastetxe pribatu itundugabeak.
- 241b) Ikastetxe itunduak eta itundugabeak.
- 241c) Ikastetxe publikoak, ikastetxe pribatu itunduak eta ikastetxe pribatu itundugabeak.
- 241d) Ikastetxe publikoak eta irakaskuntza libreko ikastetxeak.

242 Ikastolak:

- 242a) Ikastetxe pribatu itunduak dira, Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera (7. xedapen gehigarria).
- 242b) Euskal eskola publikoak dira, Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera (7. xedapen gehigarria).
- 242c) Ikastetxe publikoak eta/edo ikastetxe pribatuak dira (itunduak edo itundugabeak), Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera (7. xedapen gehigarria).
- 242d) Araubide bereziko ikastetxeak dira, Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera (7. xedapen gehigarria).

243 Nola du izena EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko Hezkuntza Sailak abian jarritako planak?

- 243a) HASIBERRI 2020 Plana.
- 243b) HEZIBERRI 2020 Plana.
- 243c) HASIBERRI 2021 Plana.
- 243d) HEZIBERRI 2019 Plana.

244 Zer eskumen ditu Toki Administrazioak hezkuntza-arloan?

- 244a) Irakaskuntzak eta irakasleak antolatzea.
- 244b) Udalerriko eskola-mapa deskribatzea.
- 244c) Nahitaezko eskolatzea betetzen dela zaintzea.
- 244d) Araubide bereziko irakaskuntzak programatzea.

245 Udalerriek parte hartzen al dute ikastetxeen gobernuan?

- 245a) Toki-erakundeek ez daukate eskumen hori.
- 245b) Bai, eskola-kontseiluetako ordezkarien bidez.
- 245c) Ez, eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokio.
- 245d) Bai, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskumen hori toki-erakundeen esku uzten badu.

246 Araubide bereziko irakaskuntzetarako:

- 246a) EAEko Hezkuntza Administrazioak lankidetzat hitzarmenak egin ahal izango ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin.
- 246b) EAEko Hezkuntza Administrazioak lankidetzat hitzarmenak egin ahal izango ditu toki-korporazioekin.
- 246c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez du eskumenik.
- 246d) Udalerriek ildo estrategikoak ezartzeko eskumena dute.

247 Eskola-barrutiei dagokienez, zein da erantzun OKERRA?

- 247a) Ikastetxe publikoen lurralde-antolaketa eskola-barrutien bidez egiten da.
- 247b) Irakaskuntza-zerbitzuak antolatzeko eta planifikatzeko lurralde-banaketarako oinarriko unitateak dira.
- 247c) Toki-administrazioak eskola-bilguneak sortu, aldatu eta ezabatzen ditu.
- 247d) Eskola-barrutiak dira ikastetxeen eraginpeko lurralde-eremuak zehazteko erreferentzia-esparrua, eta ikasleen eskolatzea eta ikastetxeen arteko konexioak bermatzeko baliatzen dira.

248 Ikastetxea hautatzeko eskubidea. Zein da erantzun zuzena?

- 248a) Ikastetxea askatasunez hautatzeko eskubidea aitortzen zaie guraso eta tutoreei.
- 248b) Eskola-barrutiek erabakitzen dute zer ikastetxe dagokion ikasle bakoitzari; ez dago ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubiderik.
- 248c) Nolanahi ere, mugatuta dago, udalerriak ezartzen baititu ikastetxeetan onartzeko irizpide objektiboak.
- 248d) Gurasoek eta tutoreek askatasunez aukeratu dute; Hezkuntza Administrazioak bermatuko du ikastetxeek hezkuntza-baliabideak izango dituztela plaza guztiak aukeratzeko.

249 Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuak/-ek:

- 249a) Ikastetxeen mantentze-lanetan laguntzea dute helburu.
- 249b) Ikastetxe guztiek duten zerbitzu espezializatua da, eta irakasleei hezkuntza arloan laguntzen die.
- 249c) Besteak beste, baliabide pedagogikoak eta materialak dokumentatzeko eta mailegatzeko zentro gisa jarduten dute.
- 249d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

250 Hezkuntzako Ikuskaritza/-k:

- 250a) Hezkuntza arloan laguntzeko zerbitzuak ebaluatzea du eginkizun nagusia.
- 250b) Ikastetxe guztien eta haiei laguntzeko sistemaren ebaluazio teknikoa eta pedagogikoa egiten du.
- 250c) Ikastetxeen ikuskapen teknikoa egiteaz eta ikastetxeetan egin beharreko mantentze-lanak kudeatzeaz arduratzen da.
- 250d) Nahitaezko eskolatzea betetzen dela zaintzeko udal-zerbitzua da.

251 Nork edo zeinek egin behar ditu ikastetxeek beren autonomia pedagogikoaren barruan egiten dituzten proiektuei eta programei buruz Hezkuntza Sailak eman behar dituen erabakien aurreko txostenak?

- 251a) Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak.
- 251b) Hezkuntzako Ikuskaritzak.
- 251c) Zerbitzuen Administrazio Ikuskatzailtzak.
- 251d) Udalerriak.

252 Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko araudiari jarraikiz, nork betetzen ditu ikasleen diziplina-araubidearekin lotutako funtzioak?

- 252a) Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak.
- 252b) Hezkuntzako Ikuskaritzak.
- 252c) Zerbitzuen Administrazio Ikuskatzailtzak.
- 252d) Udalerriak.

253 Dokumentu batek islatzen du ikastetxeen autonomia pedagogikoa, eta, gainera, nortasun edo identitate berezia ematen dio ikastetxe bakoitzari, hezkuntza-komunitateak bere gain hartzen dituen balioak eta printzipioak planteatuz. Zein da dokumentu hori?

- 253a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.
- 253b) Curriculum-proiektua.
- 253c) Kudeaketa-proiektua.
- 253d) Antolakuntza- eta jarduera-araudia.

- 254 Zein da hezkuntza-proiektua, Estatuko Administrazioak finkatzen dituen gutxieneko irakaskuntzetatik eta Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-etapa bakoitzerako dekretu bidez onartutako curriculum-edukietatik abiatuta?
- 254a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.
 - 254b) Curriculum-proiektua.
 - 254c) Kudeaketa-proiektua.
 - 254d) Antolakuntza- eta jarduera-araudia.
- 255 Zer dokumentuk jasotzen ditu ikastetxeak bere hezkuntza-proiektua gauzatzeko dituen baliabideen antolaketa eta erabilera? Lau aukera:
- 255a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.
 - 255b) Curriculum-proiektua.
 - 255c) Kudeaketa-proiektua.
 - 255d) Antolakuntza- eta jarduera-araudia.
- 256 Zein dokumentuk jasotzen ditu hezkuntza-komunitateko kideen arteko bizikidetzeta eta errespetua bermatzeko neurriak eta ikastetxeko gelen eta instalazioen erabilera egokia egiteko arauak? Lau aukera:
- 256a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.
 - 256b) Curriculum-proiektua.
 - 256c) Kudeaketa-proiektua.
 - 256d) Antolakuntza- eta jarduera-araudia.
- 257 Euskal eskola publikoaren Legearen arabera, zein hizkuntza-eredutan emango da curriculum-a euskaraz?
- 257a) A ereduan.
 - 257b) B ereduan.
 - 257c) C ereduan.
 - 257d) D ereduan.
- 258 Zein hizkuntza-eredutan ematen da gaztelania eta gaztelaniazko literatura gaztelaniaz?
- 258a) A ereduan.
 - 258b) B ereduan.
 - 258c) D ereduan.
 - 258d) Hiru hizkuntza-ereduetan.
- 259 Derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoan, zer hizkuntza-eredu eskaintzen dira?
- 259a) A eta B ereduak.
 - 259b) A eta D ereduak.
 - 259c) B eta D ereduak.
 - 259d) Hiru hizkuntza-ereduak.
- 260 Zinegotzi bat edo udaleko ordezkari bat hezkuntza-komunitateko zer organotako kide da?
- 260a) Organo goreneko edo Eskola Kontseiluko kidea.
 - 260b) Zuzendaritza-taldekoa.
 - 260c) Gurasoen batzarrekoa.
 - 260d) Inongoa ere ez; zinegotzi bat edo udaleko ordezkari bat ez baita hezkuntza-komunitateko kide.

261 Ikastetxe publikoetako zuzendaria hautatzeko sistema. Zein da erantzun zuzena?

- 261a) Lehiaketa-oposizio bidez egiten da.
- 261b) Karrerako funtzionarioek aurkeztutako zuzendaritza-proiektu bat baloratuz soilik egiten da.
- 261c) Hautagai bakoitzaren zuzendaritza-proiektua eta merezimenduak baloratuz egiten da.
- 261d) Administrazioako karrerako funtzionario guztiei irekita dago.

262 Irakasleen klaustroa. Zein da erantzun zuzena?

- 262a) Ikastetxeko irakasleen % 50 + 1ek osatzen dute.
- 262b) Ikastetxeko irakasle guztien artean aukeratutako ordezkari batek zuzentzen du.
- 262c) Ikastetxeko irakasleen % 50 + 1en artean aukeratutako ordezkari batek zuzentzen du.
- 262d) Ikastetxeko irakasle guztiek osatzen dute.

263 Ikastetxeko zuzendaritza-taldea. Erantzun hauetatik, adierazi zein den *OKERRA*.

- 263a) Honako kide hauek osatzen dute: zuzendariak, ikasketaburuak, idazkariak eta, halakorik bada, ikastetxeko administratzaileak.
- 263b) Besteak beste, ikastetxearen curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa egin eta onartu behar ditu.
- 263c) Zuzendaritza-taldeak, besteak beste, urteko kudeaketa-programa egiten du, eta ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren esku jartzen du, onar dezan.
- 263d) Beste funtzio nagusietako bat irakasle taldeak antolatzea da.

16. gaia

264 Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena) dioenez, honako hauek dira interesdunak:

- 264a) Administrazio-prozedura baten esparruan parte hartzen dutenak.
- 264b) Administrazio publikoarekin erlazionatzen diren pertsonak.
- 264c) Herritarrak.
- 264d) Erantzun guztiak okerrak dira.

265 Edozein pertsonaren eskubideei dagokienez, administrazio-prozedura batetik kanpo esku-bideak baliatzeari buruzko informazio eskasa izateak honako hau eragin dezake, zerbitzua-ren funtzionamendu okerrarengatik:

- 265a) Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.
- 265b) Erantzukizuna, antolaketari edo diziplinari dagokionez.
- 265c) Ondorioak, ematen den administrazio-egintzan.
- 265d) Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.

266 Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearena) dioenez, zeinek izango dute administrazio publikoen aurrean jarduteko gaita-suna?

- 266a) Arau zibilen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- 266b) Adin txikikoek, kasu guztietan.
- 266c) Ukituen taldeek eta nortasun juridikoa duten batasun edo entitateek.
- 266d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

267 Zer eskubide dute pertsonak administrazio publikoekiko harremanetan?

- 267a) Administrazio publikoekin komunikatzeko eskubidea, Administrazioaren sarbide-puntu elektronikoa nagusi baten bitartez.
- 267b) Agintari eta enplegatu publikoen aldetik errespetuz eta begirunez tratatuak izateko esku-bidea.
- 267c) Administrazio publikoen eta agintarien erantzukizuna eskatzeko eskubidea, legez hala da-gokionean.
- 267d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

- 268 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera, Administrazioarekin harreman elektronikoa izateko obligazioa...**
- 268a) Oro har, eta besteak beste, pertsona juridikoei, nortasun juridikorik gabeko erakundeei edo Administrazio langileei baino ez zaie ezartzen.
 - 268b) Ez dago halako obligaziorik.
 - 268c) Oro har, pertsona juridikoei, nortasun juridikorik gabeko erakundeei eta pertsona fisikoei ezartzen zaie.
 - 268d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 269 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera,**
- 269a) Pertsona juridikoei erabaki dezakete Administrazio Publikoarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izango duten ala ez.
 - 269b) Pertsona fisikoei erabaki dezakete Administrazio Publikoarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izango duten ala ez.
 - 269c) Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.
 - 269d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 270 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera,**
- 270a) Pertsona juridikoei eta fisikoei erabaki dezakete Administrazio Publikoarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izango duten ala ez.
 - 270b) Pertsona fisikoei erabaki dezakete alde aurretik hautatutako Administrazio Publikoarekiko komunikabidea aldatzea.
 - 270c) Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.
 - 270d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 271 Hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubideari buruz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau ezartzen du:**
- 271a) Eskubide hori lurralde nazional osoan aplikatuko da.
 - 271b) Autonomia-erkidego bakoitzaren lurraldean aplikatuko da, baldin eta autonomia-erkidego horretako autonomia-estatutuak dena delako hizkuntza deklaratu badu ofizial.
 - 271c) Gaztelaniarekin batera, autonomia-estatutuak ofizial deklaraturako beste edozein hizkuntza erabili ahal izango da hizkuntza propioa duen edozein autonomia-erkidegotan.
 - 271d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 272 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, interesdunek egoitza autonomia-erkidego baten lurraldean duen Estatuko Administrazio Orokorraren organoetara jotzen dutenean...**
- 272a) Autonomia-erkidego horretan koofiziala den hizkuntza ere erabili ahal izango dute.
 - 272b) Gaztelaniarekin batera, autonomia-erkidego horretan koofiziala den hizkuntza erabili beharko dute.
 - 272c) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
 - 272d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 273 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubideari dagokionez,**
- 273a) Administrazio publiko instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli beharko ditu autonomia-erkidegotik kanpo ondorioak izan behar dituzten dokumentuak, espedienteak edo haien zatiak.
 - 273b) Administrazio publiko instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli beharko ditu interesdunei zuzendutako dokumentuak, espresuki hala eskatzen badute.
 - 273c) Gaztelaniara ez da itzuli beharko, baldin eta dokumentuek, espedienteek edo haien zatiek ondorioak izan behar badituzte gaztelania ez den beste hizkuntza hori koofiziala den autonomia-erkidegoan.
 - 273d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 274 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako administrazioek izapidetutako prozeduretan:**
- 274a) Estatuko eta Europako legerian aurreikusitakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.
 - 274b) Estatuko legerian aurreikusitakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.
 - 274c) Autonomia-erkidegoko legerian aurreikusitakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.
 - 274d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 275 Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6. artikulua dioenez,**
- 275a) Herritar guztiei aitortzen zaie, autonomia-erkidegoaren lurraldean, Administrazio Publiko-arekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela.
 - 275b) Herritar guztiei aitortzen zaie artatuak izan daitezkeela hautatzen duten hizkuntza ofizialean.
 - 275c) Pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duten espediente edo prozeduretan, parte hartzen duten alderdiek elkarren artean erabakitzen duten hizkuntza erabiliko dute botere publikoek.
 - 275d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 276 Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8. artikulua dioenez,**
- 276a) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden botere publikoek emandako araugintza-xedapen edo ebazpen ofizial guztiek bi hizkuntzetan idatzita egon behar dute publizitate ofiziala egin behar denean.
 - 276b) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako botere publikoek esku hartzen duten egintza guztiak eta baita Administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute.
 - 276c) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
 - 276d) Ez dira zuzenak a) eta b) erantzunak.
- 277 Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak dioenez,**
- 277a) Abian den administrazio-prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia.
 - 277b) Abian den administrazio-prozedura batean herritarrek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia.
 - 277c) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
 - 277d) Erantzun guztiak okerrak dira.

278 Zerbitzu publikoek behar bezala funtzionatzen dutela eta Administrazioari langileek betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko...

- 278a) Komunikazio-bideak ezartzen dira, herritarrari Administrazioaren funtzionamendu okerraren berri emateko.
- 278b) Herritarrei Administrazioaren funtzionamendu okerraren berri emateko aukera ematen duten kexa-kanalak ezartzen dira.
- 278c) Herritarrek Administrazioaren funtzionamendu okerraren berri eman ahal izateko iradokizunak egiteko bideak ezartzen dira.
- 278d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

279 Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera,

- 279a) Arau-hauste arina da jende, agintari, lankide edo menpekoekiko errespetu-falta txikia egitea.
- 279b) Arau-hauste astuna da herritarrenganako begirune-falta astuna.
- 279c) Oso arau-hauste astuna da arraza, sexua, erlijioa, hizkuntza, iritzia, jaioterria edo bizilekua edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazioa ekar dezakeen edozein jarduera.
- 279d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

280 Sinadura elektronikoa:

- 280a) Euskarri elektronikoa batean aurkeztutako datuen multzoa da, beste batzuekin batera edo haiekin lotuta kontsignatua, eta sinatzailea identifikatzeko erabil daiteke, bai eta, hala badagokio, hura jasotzen duen eta dagokion sinadura txertaturik daukan dokumentua identifikatzeko ere.
- 280b) Sinadura elektronikoa mekanismo baliagarria da sinatzailea argi eta garbi identifikatzeko; horretaz gainera, sinatutako dokumentuaren osotasuna ziurtatzen du, eta bermatzen du ez duela izan aldaketarik edo manipulaziorik.
- 280c) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
- 280d) Erantzun guztiak okerrak dira.

281 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren arabera, hauek dira datu pertsonalak:

- 281a) Pertsona baten NANari dagozkionak bakarrik.
- 281b) Identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko informazio oro.
- 281c) Pertsona baten osasunari dagozkionak bakarrik.
- 281d) Erantzun guztiak okerrak dira.

17. gaia

282 Administrazioan zerbitzuen digitalizazioa...

- 282a) Prozesu konplexua da, eta oraindik ez da hasi.
- 282b) Administrazioaren jardun-eremu guztietan aurrez aurreko arreta kentzea dakar.
- 282c) Prozedura analogiko bat (arrunta) zerbitzu elektronikoko bihurtzea dakar.
- 282d) Hobekuntza handia da herritarrentzat, baina Administrazioak eraginkortasuna eta efizientzia galtzen ditu.

283 Otsailaren 9ko 208/1996 Errege Dekretuaren arabera (Administrazioaren informazio eta herritarren arretarako zerbitzuak arautzen dituen), Administrazioan honako hau da informazio orokorra:

- 283a) Administrazio-unitatearen identifikazioarekin, helburuekin eta eskumenarekin zerikusia duen administrazio-informazio oro.
- 283b) Administrazio-erakundearen eta -unitatearen egiturarekin, funtzionamenduarekin eta kokapenearekin zerikusia duen administrazio-informazio oro.
- 283c) Prozedurak izapidetzeari, zerbitzu publikoei eta prestazioei buruzkoa.
- 283d) Guztiak egiazkoak dira.

284 Kexa edo erreklamazio baten aurrean, enplegatu publikoak:

- 284a) Jarrera pasiboa izan behar du, eta interes-falta izan behar du inpartzialtasuna erakusteko.
- 284b) Ez dio utzi behar kexagileari bere ezinegona adierazten, eta gizalegez gaitzetsi behar du haren jarrera.
- 284c) Kexa bere nagusiari helaraziko diola baino ez dio jakinarazi behar pertsonari, balorazio gehiagorik egin gabe.
- 284d) Erantzun guztiak okerrak dira.

285 Otsailaren 9ko 208/1996 Errege Dekretuak (Administrazioaren informazio eta herritarren arretarako zerbitzuak arautzen dituen) dioenez, informazio partikularra:

- 285a) Izapidetzen ari diren prozedurei eta informazioarekin lotutako elementu eta eragileei buruzkoa da.
- 285b) Interesdunei edo haien legezko ordezkariari baino ezin zaie eman.
- 285c) Pertsona fisikoen intimitateari edo pribatutasunari eragiten dioten datu pertsonalei buruzkoa izan daiteke.
- 285d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

286 Kexa edo erreklamazio baten aurrean, enplegatu publikoak:

- 286a) Arrazoia eman behar dio erreklamatzaileri, nahiz eta horrek Administrazioaren politikari edo kudeaketari prestigioa kentzea ekarri.
- 286b) Inoiz ez du onartu behar akatsak egin direla.
- 286c) Ez du eztabaidatu behar erreklamatzailerekin, ezta hari aurre egin ere.
- 286d) Informazioa ahalik eta zehatzen eman behar du, arau-erreferentziak, jurisprudenzia-erreferentziak eta erreferentzia bibliografikoak aipatuz.

287 Martxoaren 16ko 366/2007 Errege Dekretuak desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun-baldintzak eta diskriminaziorik ezaren baldintzak ezartzen ditu, eta haren asmo nagusia da:

- 287a) Aukera-berdintasuna, desgaitasunen ondoriozko diskriminaziorik eza eta denentzako irisgarritasuna bermatzea.
- 287b) Desgaitasuna duten pertsonen Administrazioarekiko harremanetan izan ditzaketen desabantailak konpentsatzea.
- 287c) Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna urratzen duen edozein arau, irizpide, jarraibide, jarduera, praktika edo erabaki ezabatzea eta zuzentzea.
- 287d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

288 Erraz irakurtzeko informazioa sortzeko Europako jarraibideen arabera, idatzizko dokumentuek:

- 288a) Hizkuntza sinplea eta zuzena erabili behar dute, esaldi laburrak baliatuz.
- 288b) Ez dute marrazki, grafiko edo ikurrik izan behar.
- 288c) Modu orekatuan jaso behar dituzte baiezeko eta ezezeko esaldiak.
- 288d) Laburdurak eta inizialak izan behar dituzte, testua ulergarriagoa izan dadin.

18. gaia

289 Idatzizko komunikazioaz ari garela, egia da:

- 289a) Aldiberekoa dela.
- 289b) Atzeraelikadura berehalakoa dela.
- 289c) Denboran irauten duela.
- 289d) Distantzia ez dela eragozpena.

290 Testu hauetako zein lotuko zenuke administrazio-hizkeraren erabilerarekin?

- 290a) Mezu elektronikoa bat.
- 290b) SMS bat.
- 290c) Administrazioaren ofizio bat.
- 290d) Lege bat.

291 Hauetako zein da administrazio-hizkeraren ezaugarri bat?

- 291a) Soiltasuna.
- 291b) Hizkera laua.
- 291c) Estilo inbertsonalaren abusua.
- 291d) Erritmoa.

292 Hauetako zein da administrazio-hizkeraren ezaugarri bat?

- 292a) Laburdurak erabiltzea.
- 292b) Latinismorik ez izatea.
- 292c) Herritarrek gutxi ezagutzen dituzten teknizismoak erabiltzea.
- 292d) Estilo inbertsonaleko esaldirik ez izatea.

293 Administrazio-hizkera hobetzeko proposamenen artean, adierazi zein den zuzena:

- 293a) Hartzailea alde batera uztea.
- 293b) Paragrafoen luzera kontuan ez hartzea.
- 293c) Esaldien luzera kontuan ez hartzea.
- 293d) Estilo nominala gehiegi ez erabiltzea.

- 294 Administrazio-hizkera hobetzeko proposamenen artean, adierazi zein den zuzena:**
- 294a) Boz pasiboa gehiegi erabiltzea.
 - 294b) Estilo negatiboa erabiltzea.
 - 294c) Siglak bereizi gabe erabiltzea.
 - 294d) Estandarretik hurbil dagoen lexikoa erabiltzea.
- 295 Hizkuntza ez-sexistaren erabilerari dagokionez, adierazi zein den aukera egokia:**
- 295a) Gizon interesduna.
 - 295b) Interesduna/-tsa.
 - 295c) Gizon/emakume interesduna.
 - 295d) Interesduna.
- 296 Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena:**
- 296a) Jauzi semantikoak darabiltza.
 - 296b) Emakumeak itxura fisikoaren arabera sailkatzen ditu.
 - 296c) *Gizona* generiko singular gisa darabil.
 - 296d) Erakusten diren irudiak zaintzen ditu.
- 297 Administrazio-dokumentuen helburuaren arabera, dokumentuak izan daitezke:**
- 297a) Erabakitzaileak.
 - 297b) Transmittitzeko dokumentu bat.
 - 297c) Egiaztatzeko dokumentu bat.
 - 297d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 298 Administrazio-dokumentuak. Zer da jakinarazpena?**
- 298a) Erabakitzeko dokumentu bat.
 - 298b) Transmittitzeko dokumentu bat.
 - 298c) Egiaztatzeko dokumentu bat.
 - 298d) Iritzi-dokumentu bat.
- 299 Administrazio-dokumentuak. Zer da irizpena?**
- 299a) Erabakitzeko dokumentu bat.
 - 299b) Transmittitzeko dokumentu bat.
 - 299c) Egiaztatzeko dokumentu bat.
 - 299d) Iritzi-dokumentu bat.
- 300 Administrazio-dokumentuen egitura. Hauetako zein *EZ* da sartzen administrazio-dokumentu baten egituran?**
- 300a) Idazpurua.
 - 300b) Gorputza.
 - 300c) Ondorioak.
 - 300d) Oina.
- 301 Elementu hauetako zein agertu behar da administrazio-dokumentu baten idazpuruan?**
- 301a) Lekua eta data.
 - 301b) Dokumentua sinatzen duen pertsonaren kargua.
 - 301c) Dokumentuan ebatzitakoaren aurka aurkez daitezkeen errekursoak.
 - 301d) Hartzailea.

302 Honako elementu hauetatik zein agertu behar da administrazio-dokumentu baten oinean?

- 302a) Dokumentua sinatu den lekua.
- 302b) Dokumentua egiten hasteko data.
- 302c) Egile juridikoaren sinadura.
- 302d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

303 Administrazio-dokumentu batean lekua eta data idazteko molde hauetatik adierazi zein den zuzena.

- 303a) Vitoria-Gasteiz, 2020ko Azaroaren 16a.
- 303b) Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 16a.
- 303c) Vitoria-Gasteiz, 2.020ko azaroaren 16a.
- 303d) Vitoria-Gasteiz, 2020ko Azaroaren 16.

304 Hauetako zein da kartel baten helburuetako bat?

- 304a) Errekurtso bat ebaztea.
- 304b) Arrisku batez ohartaraztea.
- 304c) Espediente bat zenbakitzea.
- 304d) Irizpen bat sartzea.

19. gaia

305 Ahozko komunikazioa/-ak:

- 305a) Luzaroan dirau.
- 305b) Hitzezko hizkuntzaren mende dago.
- 305c) Komunikazio-prozesua aurrez gertatzen da.
- 305d) Ez dago beste baliabide batzuen mende komunikazioa osatzeko.

306 Ahozko komunikazioaren eraginkortasuna bermatzeko, hau egin behar dugu:

- 306a) Beti hizkuntza-maila berari eutsi.
- 306b) Entzuleen mugak kontuan ez hartu, beti informazio bera eskaintzen dugula ziurtatzeko.
- 306c) Lekuaren inguruabarrak kontuan hartu.
- 306d) Aukera guztiak okerrak dira.

307 Aholku hauetako zein **EZ** dago hitzezko komunikazioa hobetzeko ematen direnen artean?

- 307a) Erantzun aurretik, antolatu ideiak.
- 307b) Batez ere esaldi pasiboak erabili, aktiboak erabili beharrean.
- 307c) Azalpenean herritarra sartu.
- 307d) Lehenik eta behin, eman informazio garrantzitsuena, eta, ondoren, informazio osagarria.

308 Aholku hauetako zein **EZ** dago hitzezko komunikazioa hobetzeko ematen direnen artean?

- 308a) Aditzaren forma inbertsonalak erabili.
- 308b) Galdera erretorikoak erabili.
- 308c) Aurretik jorratutako auziak aipatu.
- 308d) Entzulearen ezagutzak aipatu.

309 Aholku hauetako zein **EZ** dago hitzezko komunikazioa hobetzeko ematen direnen artean?

- 309a) Lehenetsi baiezkako esaldiak, ezezkoen gainetik.
- 309b) Erabili teknizismoak, beharrezkoak ez badira ere.
- 309c) Azaldu herritarrari non aurki dezakeen informazio osagarria.
- 309d) Erabili hitzik gabeko komunikazio-baliabideak.

310 Hauetako zein da ahozko komunikazioaren eta idatzizko komunikazioaren arteko funtsezko desberdintasunetako bat?

- 310a) Ahozko komunikazioak idatzizko komunikazioak baino baliabide gutxiago eskaintzen ditu, *feedback*ari eta harreman hurbilari dagokienez.
- 310b) Ahozko komunikazioan ezin da inprobisatu.
- 310c) Ahozko hizkuntzan idatzizkoan baino hizkuntza-akats gutxiago egiten dira.
- 310d) Azalpenean zehar ahozko hizkuntzaren erregistroa egokitu dezakegu, beharrezkoa dela susmatzen badugu.

311 Hauetako zein da hitzik gabeko komunikazioaren ezaugarrietako bat?

- 311a) Hitzik gabeko komunikazioa eta hitzezkoa ez dira elkarren osagarri eta ezin dira aldi berean erabili.
- 311b) Hitzezkoak ez diren mezuak zein bere aldetik interpretatu behar dira beti.
- 311c) Hitzik gabeko komunikazio-zeinuak egoeraren arabera alda daitezke.
- 311d) Hitzik gabeko komunikazioa zenbait egoeratan saihestu daiteke.

312 Hitzik gabeko komunikazioaren sistema kinesikoak honako hau jasotzen du:

- 312a) Ahotsaren tonua.
- 312b) Begirada.
- 312c) Solaskideen arteko distantzia.
- 312d) Ahots-tinbrea.

313 Zer aztertzen du Proxemikak?

- 313a) Ahoz komunikatzean egiten ditugun gorputz-mugimenduak.
- 313b) Ahoz komunikatzean pertsonak gordetzen duten espazioa eta distantzia.
- 313c) Hizkuntzaren alderdi ez-semantikoak.
- 313d) Komunikazioa gertatzen den esparru mota (formala edo informala)

314 Zer aztertzen du Paralinguistikak?

- 314a) Ahoz komunikatzean gertatzen diren isiluneak.
- 314b) Komunikazioa gertatzen den kultura.
- 314c) Solaskideen nortasuna.
- 314d) Solaskideen egoera emozionala.

315 Ondorengo gomendioen artean, adierazi zein den Administrazioan hitzik gabeko komunikazioa egoki erabiltzeko gomendioetako bat:

- 315a) Begiradak jakin-nahizkoa izan behar du.
- 315b) Hatzen kolpekatzeak eta horrelako seinaleak erabili behar dira presa duzula adierazteko, adibidez.
- 315c) Entzun bitartean hoztasunezko keinua egin, sentimenduak erakutsi gabe.
- 315d) Ahots-tonu egokia erabili.

316 Hauetako zein EZ da aurrez aurreko arretaren faseetako bat?

- 316a) Harrera.
- 316b) Beharra identifikatzea.
- 316c) Beharra garatzea.
- 316d) Itxiera.

317 Adierazi alderdi hauetako zein den erabakigarria arreta pertsonalaren beharra kudeatzeko fasean:

- 317a) Bidezko tratua.
- 317b) Profesionaltasuna.
- 317c) Arreta ematen eraginkorra izatea.
- 317d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

318 Entzute aktiboari dagokionez, adierazi alderdi hauen artean zein den beharrezkoa entzute hori behar bezala gauzatzeko:

- 318a) Jarrera neutrala izaten saiatzea.
- 318b) Jaso behar dugun mezuari aurrea hartzea.
- 318c) Adeitsua izatea eta hori erakustea.
- 318d) Adi egotea.

319 Adierazi zein den telefono bidezko arretaren fase erabakigarria:

- 319a) Aurkezpena.
- 319b) Mezua entzutea eta beharra identifikatzea.
- 319c) Erantzuna.
- 319d) Agurra eta itxiera.

320 Telefono bidezko arretan entzuteko gaitasuna erakusteko, komeni da:

- 320a) Gure solaskidearen esaldiak amaitzea.
- 320b) Daukagun informazio guztia eskaintzea, eskatutakoa zein ez.
- 320c) Galdera laburtzea, arazoa ulertu dugula frogatzeko.
- 320d) Zorrotz entzutea.

20. gaia

321 Erakunde baten bulegoetarako sarrera-kontrollean honako hauek sartzen dira:

- 321a) Sarbide fisikoa bakarrik.
- 321b) Sarbide fisikoa eta sarbide logikoa.
- 321c) Sarbide logikoa, beharrezkoa denean.
- 321d) Erakundearen lan egiten duten langileen sarbidea bakarrik.

322 Erakunde baten bulegoetara *sartzeko erabiltzen diren sistemei dagokienez, sistema tradizionala da:*

- 322a) Hodeiko sarbide-kontrola.
- 322b) Biometria.
- 322c) Irrati-maiztasuneko txartelak.
- 322d) Banda magnetikoa duen plastikozko txartela.

323 Identifikazioa egin ondoren eta pertsona bati erakundera sartzen utzi ondoren:

- 323a) Aparkalekuko ibilgailuen sarrerak eta irteerak kontrola daitezke.
- 323b) Pertsona eraikineko edozein lekutara sar daiteke askatasunez.
- 323c) Ezin da jakin zenbat denbora irauten duen pertsonak erakundearen barruan.
- 323d) Segurtasuneko zaindari batek lagunduko dio une oro erakundera sartzen den pertsonari.

324 Sarbide-kontrol logikoak aukera ematen du:

- 324a) Pertsona batek egiten dituen jarduerak kontrolatzeko.
- 324b) Entitatearen emandako denbora presentziala kontrolatzeko.
- 324c) Erabiltzaileek sarean eskura ditzaketan baliabideak eta gailuak kontrolatzeko.
- 324d) Lan egindako denboraren markaketak ikusteko.

325 Sarrera fisikoaren eta/edo presentziaren kontrolak aukera ematen du:

- 325a) Pertsona batek erakundearen ematen duen denbora kontrolatzeko.
- 325b) Erabiltzaile batek eskura ditzakeen gailu informatikoak kontrolatzeko.
- 325c) Pertsona baten nortasun digitala egiaztatuzko.
- 325d) Erakunde osoko sarearen segurtasuna mantentzeko.

326 Sarbide fisikoa kontrolatzeko metodo bat da:

- 326a) Hatz-marka bat.
- 326b) Hurbiltasun-txartel bat.
- 326c) Smartcard bat.
- 326d) Txartel magnetiko bat.

327 Zer esan nahi dute RFID siglek?

- 327a) Remote Frequency identification.
- 327b) Radio Frequency identification.
- 327c) Radio Failure identification.
- 327d) Remote Failure User identification.

328 Zer osagai ditu RFID etiketa edo transpondedore batek?

- 328a) Transduktorea, transzeptorea, txipa.
- 328b) Infragorriak, antena, deskodetzaila.
- 328c) Antena, irrati-transduktorea, txipa.
- 328d) Antena, transzeptorea, txipa.

329 RFID sistema batean, zer osagaik ematen ditu datuak prozesatzeko eta biltegitratzeko bitartekoak?

- 329a) Transpondedoreak.
- 329b) Datuak prozesatzeko azpisistemak.
- 329c) Transzeptoreak.
- 329d) Energia-iturriak.

330 RFID sistema batean, osagai batek etiketa bateko seinale bakoitza hartu, informazioa atera eta datuak prozesatzeko azpisistemara pasatzen du. Zein da osagai hori?

- 330a) Sistema aktiboa.
- 330b) Datuak prozesatzeko azpisistemak.
- 330c) RFID etiketa edo transpondedorea.
- 330d) RFID irakurgailua edo transzeptorea.

331 RFID sistemak honela sailkatzen dira, energia-iturriaren arabera:

- 331a) Sistema aktiboak, sistema pasiboak, asistentzia-bateria duen sistema pasiboa.
- 331b) Full-duplex komunikazioa (FDX) eta half-duplex komunikazioa (HDX)
- 331c) EEPROM eta ROM.
- 331d) Behe-maiztasuneko sistemak eta goi-maiztasuneko sistemak.

332 Zein da RFIDren teknologiarik ezagunena eta hedatuena?

- 332a) Mindfulness teknologia.
- 332b) Mifare teknologia
- 332c) Teknologia biometrikoa.
- 332d) Ultralight teknologia.

333 Zein da Mifare teknologiaren aplikazio ohikoenetako bat?

- 333a) Transakzioak egitea.
- 333b) Gailu elektronikoak konektatzea.
- 333c) Pertsonak eta objektuak identifikatzea.
- 333d) Enpresetako eta eraikinetako sarbidea kontrolatzea.

- 334 Zein da gizakiak modu bakarrean ezagutzeko metodo automatikoen azterketa, jokabide-ezaugarri edo ezaugarri fisiko batean edo gehiagotan oinarritua?**
- 334a) RFID teknologia.
 - 334b) Mifare teknologia
 - 334c) Biometria.
 - 334d) NFC teknologia.
- 335 Ezaugarri fisiko (estatiko) bat da:**
- 335a) Urratsa.
 - 335b) Aurpegiko patroia.
 - 335c) Sinadura.
 - 335d) Tekleatzea.
- 336 Sartzeko eta fitxatzeko zein sistema ezin da lapurtu, ahaztu edo galdu?**
- 336a) Biometria.
 - 336b) RFID sistema.
 - 336c) Itsasontzien kodea.
 - 336d) Txipa.
- 337 Giza errekonozimenduko metodoei dagokienez, hatz-markek fidagarritasun-indize bat dute:**
- 337a) Txikia.
 - 337b) Ertaina.
 - 337c) Handia.
 - 337d) Oso handia.
- 338 Odol-hodien azterketan, nondik abiatuta ateratzen da patroia biometrikoa?**
- 338a) Begi barruko mintz pigmentatutik.
 - 338b) Ahotsa ezagutu eta egiaztatutik.
 - 338c) Hatzaren zain-zuhaitzaren geometriatik.
 - 338d) Hatz-markaren bi dimentsioko eredu batetik.
- 339 Nor izan daiteke Sarean sartzeko kontrolean egiaztatutako bidaltzailea?**
- 339a) Ordenagailu-programa bat.
 - 339b) Ordenagailua erabiltzen duen pertsona bat baino ezin da izan.
 - 339c) Ezin da ordenagailu bat izan, bere kabuz.
 - 339d) Informatika sailean lan egiten duen pertsona bat baino ezin da izan.
- 340 Autentifikazio bat da, non norbaiti hatz-marka digitala hartzen zaion, txartel adimendun bat eskatzen zaion eta, gainera, PIN zenbaki bat eskatzen zaion. Zer autentifikazioz ari gara?**
- 340a) Bi faktoreen bidezkoa.
 - 340b) Faktore hirukoitza.
 - 340c) Adierazle biometrikoetan oinarritua.
 - 340d) Ez dago onartuta autentifikazio hori.

21. gaia

341 Zer egin beharko da elementuren bat falta bada altzariak soilik dituen gela batean egiazta-pena egitean?

- 341a) Horrela utzi eta aretoa eskatu duen pertsonari jakinarazi.
- 341b) Joan materiala hartzera eta jarri dagokion lekuan.
- 341c) Gela hori eskatu duen pertsonari jakinarazi eta falta den materiala ekartzeko eskatu.
- 341d) Eraikineko mantentze-lanen arduradunei eta biltegiari abisatu falta diren elementuak berriro jartzeko.

342 Altzariak soilik dituzten gelak prestatzeko eta mantentzeko prozedura. Egiaztapenean aurretiko bileretarako materialak aurkitzen badira:

- 342a) Gela berean utziko dira, hara doazen hurrengo pertsonak behar badituzte ere.
- 342b) Beste nonbait gordeko dira, beste parte-hartzaile batzuek uneren batean behar badituzte ere.
- 342c) Gorde eta bertan egon diren pertsonak lokalizatuko dira, material hori emateko.
- 342d) Datuen babesarengatik berehala bota eta/edo suntsituko dira.

343 Aukeratu erantzun egokia altzariak soilik dituzten gelak prestatzeko eta mantentzeko prozedurari dagokionez.

- 343a) Aretoa prestatu ondoren, ez da prest egon behar, bilera egiten den bitartean.
- 343b) Bilera egiten den bitartean, prest egon behar da, behar izanez gero, zenbait material eramateko.
- 343c) Bertaratuen kopurua aretoaren edukiera baino handiagoa bada, aretoa egokitu egin beharko da pertsona guztiak sartzeko.
- 343d) Altzarien garbitasuna egiaztatu behar da, baina ez aretoaren egoera orokorra (tenperatura, argiztapena...).

344 Proiektagailua eta/edo aldi bereko itzulpena duten aretoak:

- 344a) Areto horietan aretoko altzariak soilik egiaztatu behar dituzte.
- 344b) Areto horietan, aretoko altzariak egiaztatzeaz gain, aparatuak (proiektagailua eta/edo aldi-bereko itzulpena) martxan jarri eta behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu behar da.
- 344c) Areto horietan, aretoko altzariak egiaztatzeaz gain, aparatuak daudela egiaztatu behar da (proiektagailua eta/edo aldi bereko itzulpena), baina ez da egiaztatu behar ondo funtzionatzen dutela.
- 344d) Guztiak okerrak dira.

345 Proiektagailuaren zooma eta fokuratzea egiaztatzeko:

- 345a) Prozesua eskuz egin behar da, zoom- eta fokuratze-botoiak sakatuz.
- 345b) Prozesuak mekanikoa izan behar du, objektiboa biratuz.
- 345c) Prozesuak automatikoa izan behar du, objektiboa eta fokuratzea doituz.
- 345d) Prozesua eskuz egin daiteke, objektiboa biratuz, edo mekanikoki, zoomaren eta fokuratzearen botoiak sakatuz.

346 Proiektoreak behar bezala mantentzeko, aldizka honako hauek egiaztatu eta, hala badagokio, birjarri behar ditugu:

- 346a) Urrutiko aginteen pilak.
- 346b) Proiektagailu bakoitzaren lanpara.
- 346c) Proiektagailu bakoitzaren iragazkiak.
- 346d) Aurreko guztiak ondo daude.

22. gaia

347 «Bulego»ko fotokopiagailuetan, zein da erreprodukzio-abiadura?

- 347a) 5-20 kopia minutuko.
- 347b) 12-40 kopia minutuko.
- 347c) 20-60 kopia minutuko.
- 347d) 30-80 kopia minutuko.

348 Bi osagaiko hauts-tonerra:

- 348a) Zuzenean erabiltzen da, jatorrizko ontzian agertzen den bezala.
- 348b) Makinan erabiltzen da, Developer izeneko beste produktu batekin nahastuta.
- 348c) Makinan erabiltzen da, Bicomponent izeneko beste produktu batekin nahastuta.
- 348d) Makinan erabiltzen da, Tricolores izeneko beste bi produktuekin nahastuta.

349 Non eramaten da toner likidoa?

- 349a) Danbor batean, zuzenean.
- 349b) Tonerra gordetzeko edo kartutxoa jartzeko biltegian.
- 349c) Kubeta batzuetan, dispersatzaile deritzan likido batean disolbatuta, eta kopia-kostu txikiagoa lortzeko erabiltzen da.
- 349d) Kubeta batzuetan, beste ezein substantzian disolbatu gabe, maila optimoari eusteko.

350 Erantzun hauetatik zein dator bat definizio honekin? Papera zuzen sartzen laguntzen dute. Ezker-alboko gidaria paperaren zabalera doitzen dute.

- 350a) Paperezko euskarria.
- 350b) Irteera-erretilua.
- 350c) Alboko gidariak.
- 350d) Orri-elikagailua.

351 Erantzun hauetatik zein dator bat definizio honekin? Paperari eusten dio inprimagailuan, eta automatikoki sartzen du inprimatzen den bitartean.

- 351a) Orri-elikagailua.
- 351b) Paperezko euskarria.
- 351c) Alboko gidariak.
- 351d) Kontrol-panela.

352 Kopiatzeko lanean, lehen jatorrizkoa kentzeko:

- 352a) Lanpararen argia itzali arte itxaron behar da.
- 352b) Txistualdi luze eta zorrotz bat egin arte itxaron behar da.
- 352c) Aurreko panelean mezu bat agertu arte itxaron behar da.
- 352d) Edozein unetan ken daiteke, ezeri itxaron behar izan gabe.

353 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Kopia argi ateratzen badira:

- 353a) Baliteke tonerra falta delako izatea.
- 353b) Arazoak bere horretan irauten badu, zerbitzu teknikoari deitu beharko zaio.
- 353c) Baliteke kopien argitasuna kontrolatzen duen tekla jatorrizko horrentzat argiegia izatea.
- 353d) Baliteke folioen kalitateagatik izatea.

354 Modu egokian eta errendimendu osoan funtzionatu dezan, zenbateko maiztasunarekin berrikusi eta garbituko dute makina zerbitzu teknikoek?

- 354a) Astean behin.
- 354b) Hileroko.
- 354c) Sei hilean behin.
- 354d) Urtean behin.

355 Fotokopiagailu bat luzaro erabili behar EZ denean:

- 355a) Nahikoa izango da funtzionamenduko etengailua (OFF) itzaltzea.
- 355b) Entxufea korrante elektrikotik atera beharko da; izan ere, bestela, litekeena da oraindik funtzionatzea kondentsazioa prebenitzeko berogailu batek.
- 355c) Ez da ezer egin behar, makina bakarrik itzaltzen da.
- 355d) Piztuta utzi behar da, bestela, asko kostatuko litzateke-eta martxan jartzea.

356 Aukera ezazu erantzun zuzena. Noiz aldatu behar da toner-kartutxoa?

- 356a) Astean behin.
- 356b) Bi astean behin.
- 356c) Makinak adierazten duenean.
- 356d) Ez da aldatu behar, makinak bakarrik aldatzen du.

357 Eskaner lau gehienak aproposak dira honako hauek digitalizatzeko:

- 357a) Objektu garden lauak.
- 357b) Objektu opak lauak.
- 357c) Objektu opak desberdinak.
- 357d) Era guztietako objektuak.

358 Hautetako zein EZ da eskanerretako irudi mota bat?

- 358a) Koloretako argazkia.
- 358b) Gris-eskalako argazkia.
- 358c) Zuri eta beltzeko argazkia.
- 358d) Kolore-eskalako argazkia.

359 Prozesua egiteko bereizmena hautatzea/-ak:

- 359a) Oso garrantzitsua da.
- 359b) Ez du garrantzirik.
- 359c) Ez du inolako ondorioz fitxategi grafikoan.
- 359d) Makinak modu autonomoan egiten du.

360 Aukeratu erantzun OKERRA bereizmenari dagokionez:

- 360a) Irudi bat eskaneatzeko bereizmenik onena norakoaren arabera izango da.
- 360b) Pantailan ikusteko, nahikoak dira 72 ppp.
- 360c) Asmoa kalitatezko inprimaketa bat egitea bada, 300 ppp-ra edo gehiagora igo beharko da.
- 360d) Eskaneatzeko aukeratzen dugun bereizmenak ez du eraginik izango fitxategi grafikoaren tamainan.

361 Zer formatuk konprimatzen du gehien irudia? Lau aukera:

- 361a) GIF.
- 361b) JPG.
- 361c) TIF.
- 361d) BMP.

362 Aukeratu erantzun zuzena:

- 362a) Irudiarri zenbat eta konpresio handiagoa aplikatu, orduan eta kalitate gutxiago izango du.
- 362b) Irudiarri zenbat eta konpresio handiagoa aplikatu, orduan eta kalitate gehiago izango du.
- 362c) Irudiarri zenbat eta konpresio txikiagoa aplikatu, orduan eta kalitate gutxiago izango du.
- 362d) Irudiarri aplikatzen zaion konpresioak ez du eraginik izango irudiaren kalitatean.

363 Zer formatuk ematen du irudi-kalitate onena?

- 363a) GIF.
- 363b) JPEG.
- 363c) TIF.
- 363d) BMP.

364 Norena da definizio hau? Makina bat da eta dokumentu baten kopia berdin-berdin bat urrunera bidaltzeko edo urrunetik jasotzeko balio du.

- 364a) Fotokopiagailua.
- 364b) Faxe edo telefaxe.
- 364c) Eskanerra.
- 364d) Telegrama.

365 Ordenagailuz kartelak egiteko, Word programan, «Txertatu» aukera sakatuko dugu, eta gero:

- 365a) «Ekuazioak».
- 365b) «Sinboloak».
- 365c) «Wordart».
- 365d) «Wordpad».

23. gaia

- 366 Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legeak:**
- 366a) Sociedad Estatal Correos y Telégrafos SA enpresa izendatzen du, 15 urterako, posta-zerbitzu unibertsala emateko ardura duen operadore.
 - 366b) Posta-zerbitzu unibertsala emateko operadorea kontratatzeko lehiaketaren oinarriak ezartzen ditu.
 - 366c) Aurreikusten du Ekonomia Ministerioak aldiaren behin baloratzea izendatu den operadoreak bere betebeharrak betetzen ote dituen.
 - 366d) Espainiaren barruan posta-komunikazioaren beharrak asetzea du helburu, beste herrialde batzuekiko posta-komunikazioa beste lege batek arautzen baitu.
- 367 Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen arabera,**
- 367a) Zuzeneko publizitatea korrespondentzia-bidalketatzat hartuko da.
 - 367b) Zuzeneko publizitatea posta-bidalketatzat hartuko da.
 - 367c) Zuzeneko publizitatea ziurtatutako bidalketatzat hartuko da.
 - 367d) Zuzeneko publizitatea publizitate-bidalketatzat hartuko da.
- 368 Nola deitzen zaio Posta-zerbitzu unibertsalari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen arabera posta-zerbitzu bat edo batzuk ematen dituen pertsona natural edo juridikoari?**
- 368a) Posta-operadorea.
 - 368b) Posta-zerbitzua.
 - 368c) Postaria.
 - 368d) Posta-enpresa.

24. gaia

369 Adierazi zein den aukera zuzena. Biltegiek, besteak beste, honetarako balio dute:

- 369a) Produktuen kostua merkatzeko.
- 369b) Produktuen mugimendua kontrolatzeko (sarrerak eta irteerak).
- 369c) Bertan utzitako produktuen iraungitze-epea eta iraupena luzatzeko.
- 369d) Hornidura osoak egiteko, materialez hornitzeko epea atzeratuz.

370 Materialak biltegiratzeko sistema aukeratzeko orduan, besteak beste, faktore hauek hartu behar dira kontuan:

- 370a) Daukagun espazioa.
- 370b) Biltegiratu behar diren materialen kolorea eta tamaina.
- 370c) Gordetako gaien prezioa.
- 370d) Produktuen iraungitze-epea.

371 Zer da palet bat?

- 371a) Zurezko edo kartoizko kutxa bat, materialak biltegiratzeko balio duena.
- 371b) Apalategi bertikal bat, lurrean ainguratuta dagoena.
- 371c) Zurezko oholtza bat, garraiatzeko eta biltegiratzeko balio duena.
- 371d) Solte datozen solidoak biltegiratzeko eta mugitzeko edukiontzi malgu bat.

372 Zein da biltegiratze-bitartekorik sinpleena eta merkeena?

- 372a) Edukiontziak.
- 372b) Zutabeak.
- 372c) Apalategiak.
- 372d) Kutzak edo tiraderak.

373 Berriaz funtzio hau betetzen du produktuak desenbalatzeko eremuak:

- 373a) Harrera-eremua da.
- 373b) Biltegiratze-eremua da.
- 373c) Entregak egiteko eremua da.
- 373d) Itxaroteko eremua da.

374 Hauetako zein *EZ* da hartzen substantzia arriskutsutzat?

- 374a) Erregarriak.
- 374b) Lizunduak.
- 374c) Sukoiak.
- 374d) Lehergaiak.

25. gaia

375 Salgaien inbentarioa. Erantzun hauetatik, adierazi zein den *OKERRA*.

- 375a) Biltegiko materialak egon badaudela begiratzea edo egiaztatzea da, material-izakinen fitxategietako oharrekin erkatzeko.
- 375b) Aldian-aldian egiten da, oro har, urteko hiruhileko bakoitzean.
- 375c) Benetan dauden materialen kopurua egiaztatzeko modua ematen du.
- 375d) Benetan zenbat material kontsumitzen den jakiteko modua ematen du.

376 Materialen kodetzeari dagokionez. Zein da erantzun zuzena?

- 376a) Oro har, zenbakizko sistema erabiltzen da.
- 376b) Sistema alfanumerikoan, letrek artikuluaen kode adierazlea adierazten dute.
- 376c) Sistema alfabetikoa da biltegi handietan gehien erabiltzen dena.
- 376d) Sistema alfanumerikoan, letrek material-mota adierazten dute, bai eta mota horretan duen taldea ere.

377 Zer esan nahi du izakinen kontrolean «sinplifikatzea» kontzeptuak?

- 377a) Normalizazioaren bidez, erabiltzen diren artikuluen kopurua, ahal den neurrian, gutxitzea esan nahi du, hau da, helburu bakoitzerako artikulua bakarra hautatzea.
- 377b) Materialak ondo zehaztuta eta azalduta edukitzea esan nahi du, hau da, artikuluei eta haien funtzionalitateei buruz behar den informazioa jakitea.
- 377c) Normalizazioaren bidez, erabiltzen diren artikuluen kopurua, ahal den neurrian, gutxitzea esan nahi du, hau da, artikuluaak motaren eta funtzionalitatearen arabera ordenatzea.
- 377d) Erantzun guztiak okerrak dira.

378 *EZ* da biltegi bateko sarreraren eta irteeraren prozesuarekin lotutako fase bat:

- 378a) Eskaera sortzea.
- 378b) Fakturazioa.
- 378c) Artikuluak katalogatzea.
- 378d) Materiala jasotzea eta dagokion albarana sortzea.

27. gaia

- 379 Hondakinak tratatu eta birziklatzea. Zeinena da zatirik handiena administrazio-jarduerak sortutako hondakinetan? Lau aukera:
- 379a) Materia organikoa.
 - 379b) Papera eta kartoia.
 - 379c) Ontzi arinak.
 - 379d) Beira.
- 380 Hondakinen tratamendua. Zer norabidetan bideratu behar da Administrazioaren jarduera hondakinei dagokienez?
- 380a) Gutxiago kontsumitzera eta gutxiago sortzera.
 - 380b) Hondakinak tratatzeko kostuak murriztera.
 - 380c) Edukiontzia-kopurua murriztera.
 - 380d) Edukiontzien barietatea murriztera.
- 381 Hondakinen tratamendua. Zer kolore normalizatu erabiltzen da paper- eta kartoi-edukiontzietarako?
- 381a) Urdina.
 - 381b) Berdea.
 - 381c) Horia.
 - 381d) Marroia.
- 382 Hondakinen tratamendua. Zer gomendio izan daiteke baliagarria paper-edukiontzia erabiltzaileentzat?
- 382a) Erabili edukiontzia, nahiz eta bota behar duzun papera zikina edo koipetsua egon.
 - 382b) Bota papera plastikozko poltsa itxi batera.
 - 382c) Bota kaxak tolestu gabe, horrela berrerabil daitezke.
 - 382d) Bota aurretik, papera behin eta berriz erabili, ahal duzun bitartean.

- 383 Hondakinen tratamendua. Hondakin hauetako zein EZ da ontzien edukiontzira bota behar?**
- 383a) Esnekiz egindako postreen ontziak.
 - 383b) Erabili eta botatzeko mahai-tresnak.
 - 383c) Disolbatzaileak eduki dituzten plastikozko ontziak.
 - 383d) Garbitzeko produktuen potoak.
- 384 Hondakinen tratamendua. Zer tratamendu jaso behar dute berrerabili ezin diren tresna elektronikoen hondakinek?**
- 384a) Edukiontzi horira bota behar dira.
 - 384b) Erraustu egin behar dira.
 - 384c) Hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimendu bati eman behar zaizkio.
 - 384d) Hondakin organikoen tratamendu bera jaso behar dute.
- 385 Hondakinen tratamendua. Erabilitako landare-olioari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?**
- 385a) Uretako ekosistemetan kalte larriak eragin ditzake.
 - 385b) Ez du tratamendu espezifikorik behar, saneamendu orokorrera isuri behar da.
 - 385c) Administrazioak sortzen ez duen hondakin-mota bat da.
 - 385d) Metal astunak eta substantzia halogenatuak ditu.
- 386 Hondakinen tratamendua. Hauetako zein da olio mineralen ezaugarrietako bat?**
- 386a) Biodegradagarriak dira.
 - 386b) Ingurumenerako oso kaltegarriak diren substantziak dituzte.
 - 386c) Landare-olioen ezaugarri berberak dituzte.
 - 386d) Uretan gehiegizko oxigenazioa sortzen dute.
- 387 Hondakinen tratamendua. Gai hauetatik, zein dago autoetako baterietan?**
- 387a) Olio minerala.
 - 387b) Azido sulfuriko diluitua.
 - 387c) Poliexpana.
 - 387d) Substantzia halogenatuak.
- 388 Hondakinen tratamendua. Zer ondorio izan ditzake pilak zaborrarekin nahasteak?**
- 388a) Erraustuz gero soilik ditu ondorio kaltegarriak.
 - 388b) Haren edukia lurzoruan iragazi eta lurpeko urak kutsa daitezke.
 - 388c) Gas leherkorren metaketa eragin dezakete.
 - 388d) Deskarga elektriko handiak eragin ditzakete.
- 389 Hondakinen tratamendua. Inprimagailuetarako toner-ontzien tratamenduari dagokionez, zein baieztapen da zuzena?**
- 389a) Kartoiz eginda daudenean, edukiontzi urdinean utzi behar dira.
 - 389b) Edukiontzi horira bota behar dira.
 - 389c) Erraustu egin behar dira.
 - 389d) Enpresa aproposek erretiratu eta kudeatu behar dituzte.
- 390 Hondakinen tratamendua. Zein da beiraren ezaugarri bat?**
- 390a) Erraz berrerabil daiteke.
 - 390b) Birziklapenaren ondoren, ezaugarriak galtzen ditu.
 - 390c) Edukiontzi berdean jarri beharko ditugu beira biosanitarioa eta berrerabilgarria.
 - 390d) Hondakin arriskutsutzat jotzen da.

391 Hondakinen tratamendua. Nola tratatu behar dira fluoreszenteak?

- 391a) Beiraren edukiontzira bota behar dira.
- 391b) Ez dute tratamendu espezifikorik behar.
- 391c) Mantentze-zerbitzuak biltegitatu behar ditu, baimendutako enpresa batek jaso arte.
- 391d) Erraustu egin behar dira.

392 Hondakinen tratamendua. Zer tratamendu da egokia paletetarako edo zurezko enbalajeetarako?

- 392a) Konpostatzea.
- 392b) Errautsak lortzeko erraustea.
- 392c) Lurperatzea.
- 392d) Aglomeratuak fabrikatzeko eta energia ekoizteko birrintzea eta erabiltzea.

393 Hondakinen tratamendua. Zer hondakinek dute ura kutsatzeko ahalmen handia? Lau aukera:

- 393a) Aluminioa.
- 393b) Botoi-pilak.
- 393c) Beira.
- 393d) Zura.

28. gaia

394 Sarrailagintzari buruzko nozioak. Sarraila baten zati bat da, non kisketak eta kisketen gai-luak baitaude.

- 394a) Kaxa-sarraila.
- 394b) Landatzeko sarraila.
- 394c) Sarrailako atea.
- 394d) Kisketa.

395 Sarrailagintzari buruzko nozioak. Sarraila baten zilindroko arteka da, eta giltza sartzeko eta gidatzeko balio du. Nola du izena?

- 395a) Ahokoa.
- 395b) Sarraila-begia.
- 395c) Zaintza.
- 395d) Maratila.

396 Sarrailagintzari buruzko nozioak. Banda mota baten paletak aplikatuta dauden gainazal osoa okupatzen dute. Nola du izena bisagra horrek?

- 396a) Banda jarraitua.
- 396b) Banda landatua.
- 396c) Ekintza bikoitzeko malgukidun banda.
- 396d) Zilindroaren banda.

397 Bandak jartzea. Zenbatekoa da ate-orriak markoarekiko izan behar duen tartea?

- 397a) 6 mm-koa, bandak jarri behar diren aldean; 3 mm-koa, gainerako ertzetan.
- 397b) 3 mm-koa, bandak jarri behar diren aldean; 6 mm-koa, gainerako ertzetan.
- 397c) 9 mm-koa, bandak jarri behar diren aldean; 6 mm-koa, gainerako ertzetan.
- 397d) 9 mm-koa, bandak jarri behar diren aldean; 3 mm-koa, gainerako ertzetan.

398 Zer egin behar da bandek zaratarik EZ ateratzeko?

- 398a) Zirindola lodiak sartu banden artean.
- 398b) Olio leunarekin koipeztatu.
- 398c) Atearen altuera milimetro bat edo bi igo.
- 398d) Atearen ertza arotz-eskuila batekin eskuilatu.

399 Zurgintza. Zer erreminta erabili behar da enkoadraketak egiaztatu eta neurketak egiteko?

- 399a) Arraspa
- 399b) Metroa.
- 399c) Eskuaira.
- 399d) Sarjenta.

400 Zurgintza. Egurrean zulo txikiak irekitzeko, zer erabiliko da?

- 400a) Zerra.
- 400b) Eskuila.
- 400c) Puntzoia.
- 400d) Lima.

401 Zurgintza. Egurrezko gainazal bat arbastatu behar bada, zer erabiliko da?

- 401a) Puntzoia.
- 401b) Zulatzeko makina.
- 401c) Trintxa.
- 401d) Eskuila.

402 Iturgintza. Ixte automatikoa daukan deskargatze-elementua da, eta, eragiten zaionean, emari handi bat igarotzea ahalbidetzen du, elementu hori eraginda dagoen bitartean. Nola du izena?

- 402a) Segurtasun-balbula.
- 402b) Aparatuko deribazioa
- 402c) Fluxumetroa.
- 402d) Mahuka.

403 Iturgintza. Nola deitzen zaio instalazioko hodiedatik airea ezabatzeari edo husteari?

- 403a) Deribazioa.
- 403b) Purgatzea.
- 403c) Hargunea.
- 403d) Atxikipena.

404 Iturgintza. Flotagailu-balbula/-ak:

- 404a) Eragotzi egiten du ura sartzan jarraitzea komuneko zisterna edo tanga beteta dagoenean.
- 404b) Komuneko tanga husteko mekanismoari eragiten dio.
- 404c) Komuneko ura ixteko aukera ematen du, konponketak egin behar direnean.
- 404d) Komunaren eta hustubideko irekiduraren arteko konexioa zigilatzen du.

405 Iturgintza. Hodiak izoztu EZ daitezten, zer egin behar da?

- 405a) Tutuen gainean trapu beroak jarri edo beste bero-iturri batzuk erabili.
- 405b) Izoztu den adarra isolatu.
- 405c) Hodiedan zehar ur-fluxu txiki bat mantendu.
- 405d) Aire zabalean dauden eta izoztu diren hodi guztiak aldatu.

406 Saneamendua. Nola deitzen zaie prezipitazio naturaletik datozen urei, kutsatu gabe egon ohi direnei?

- 406a) Euri-urak.
- 406b) Hondakin-urak.
- 406c) Ur erabiliak.
- 406d) Udal-urak.

407 Elektrizitatea. Zer maiztasun erabiltzen da sare elektrikoan?

- 407a) 50 Hz (hertzio).
- 407b) 75 Hz (hertzio).
- 407c) 500 Hz - 750 Hz (hertzio)
- 407d) 1.500 Hz (hertzio).

408 Honako hauek dira behe-tentsioko korrante alternoko banaketarako esleitutako tentsioak:

- 408a) 320 V, fase eta neutro artean, eta, 400 V, faseen artean, 4 eroaleko sare trifasikoetarako.
- 408b) 230 V, faseen artean, hiru eroaleko sare trifasikoetarako.
- 408c) 320 V, faseen artean, hiru eroaleko sare trifasikoetarako.
- 408d) 400 V, faseen artean, hiru eroaleko sare trifasikoetarako.

409 Zurgintza. Zer izen du erretxina sintetikoen bidez aglutinatutako zurezko taulak?

- 409a) Taula listoiduna.
- 409b) Taula kontratxapatua.
- 409c) Taula aglomeratua.
- 409d) Ohol trinkoa.

410 Zurgintza. Xaflaren bat hausten bada eta pertsiana konpondu behar bada, zer egin behar da lehenik?

- 410a) Pertsianaren azken xaflaren topeetako torlojuak atera.
- 410b) Apurtutako xafla atera eta berri bat jarri.
- 410c) Zinta berri bat instalatu.
- 410d) Goiko tiraderaren torlojuak askatu.

411 Igeltserotza. Igeltsu, ur eta harearen nahasketa da, egoera plastikoan pareta eta sabaien gainazalean aplikatzen da, eta lehortzen eta gogortzen uzten da. Nola du izena?

- 411a) Lauzadura.
- 411b) Estaldura.
- 411c) Luzitua.
- 411d) Igeltsuztatzea.

412 Igeltserotza. Kondentsazioak eragindako hezetasunak konpontzeko, zer egin behar da?

- 412a) Leihoaren markoa eta orriak desmuntatu ondoren konpondu.
- 412b) Konpondu, eremua lehor dagoenean.
- 412c) Leihoak ondo itxita eduki, hezetasuna iragazi ez dadin.
- 412d) Lixiba edo amoniakoarekin garbitu, hezetasunak behin betiko kentzeko.

413 Berokuntza eta aire girotua. Etxeko galdaretan gehien erabiltzen den erregaia da:

- 413a) Gas hoztailea.
- 413b) Gas naturala eta gasolioa.
- 413c) Ikatz naturala.
- 413d) Egurra eta ezpalak.

414 Berokuntza eta aire girotua. Fancoil izeneko aire girotuaren sistema hemen EZ da jartzen:

- 414a) Kanpoko fatxadan.
- 414b) Horman.
- 414c) Lurrean.
- 414d) Sabaian.

29. gaia

- 415 Aukeratu erantzun zuzena. Gainazaleko ahoak dira, eta suteen kontrako ur-sarera konektatuta egoten dira eraikin ondoko kanpoaldean, eta horrela mahukak konektatu daitezke, oro har suhiltzaileek erabil ditzaten. Nola dute izena?
- 415a) Sua itzaltzeko ur-hornidurako sistemak.
 - 415b) Kanpoko sute-ahoen sistemak.
 - 415c) Sute-itzalgailuak.
 - 415d) Suteak detektatzeko sistema.
- 416 Aukeratu erantzun zuzena. Aparatu autonomo bat da, agente itzaltzaile bat duena, eta hura su baten gainera proiektatu eta zuzendu daiteke, barne-presio baten eraginez. Nola du izena?
- 416a) Sua itzaltzeko ur-hornidurako sistemak.
 - 416b) Kanpoko sute-ahoen sistemak.
 - 416c) Sute-itzalgailuak.
 - 416d) Suteak detektatzeko sistema.
- 417 Ur presurizatua, aparra edo kimiko lehorra duten su-itzalgailuak dira, material organiko solidoak dituzten suak eragozten dituzte eta txingarrak sortzen dituzte. Zein dira?
- 417a) «A» motako su-itzalgailuak.
 - 417b) «B» motako su-itzalgailuak.
 - 417c) «C» motako su-itzalgailuak.
 - 417d) «D» motako su-itzalgailuak.
- 418 Su-itzalgailu hauek aparra, karbono dioxidoa, erabilera anitza, kimiko-lehor arrunta eta halona dituzte; kateko erreakzio kimikoa eragozten dute. Zein dira?
- 418a) «A» motako su-itzalgailuak.
 - 418b) «B» motako su-itzalgailuak.
 - 418c) «C» motako su-itzalgailuak.
 - 418d) «D» motako su-itzalgailuak.

419 Su-itxalgailuen erabilerari dagokionez, esan zein den erantzun OKERRA:

- 419a) Su-itxalgailua sugarraren oinarrirantz deskargatu behar da eta itxalgailu hustu, erabat itzali dela eta berriro pizteko arriskurik ez dagoela ziurtatu arte.
- 419b) Su-itxalgailuaren irteerako irekigunea sugarrerantz apuntatuz, sakatu katua, itxalgailua jarri bertikalean edukita.
- 419c) Mugitu su-itxalgailuaren irteera ezker-eskuin, suaren eremu guztia hartuz.
- 419d) Sute bati aurre ez egin suari bizkar emanda; beti begi-bistan izan behar duzu su-aldea.

420 Non daude ezarrita eraikinetako suteen aurkako babesaren baldintzak?

- 420a) Eraikuntzaren Kode Teknikoan.
- 420b) Suteetatik Babesteko Kode Teknikoan.
- 420c) Segurtasun Batzorde Teknikoan.
- 420d) Osasun eta Prebentzioko Kode Teknikoan.

421 Eraikinak sute-sektoreetan banatuta daude. Horrek honako hauei eragiten die:

- 421a) Sektoreak zedarritzen dituzten horma, sabai eta ateei, bai eta eraikinaren egiturari berari ere.
- 421b) Sektoreak zedarritzen dituzten horma, sabai eta ateei, baina ez eraikinaren egiturari berari.
- 421c) Eraikinaren egiturari berari, baina ez sektoreak mugatzen dituzten horma, sabai eta ateei.
- 421d) Sektoreak mugatzen dituzten ateei, baina ez sabaiei, hormei eta eraikinaren egiturari berari.

422 Zenbat hilean behin egin behar dira zutabe lehorretako suteetatik babesteko instalazioen mantentze-lanak?

- 422a) Hilean behin.
- 422b) Hiru hilean behin.
- 422c) Sei hilean behin.
- 422d) Bederatzi hilean behin.

423 Zenbat hilean behin egin behar dira su-itxalgailuak suteetatik babesteko instalazioen mantentze-lanak?

- 423a) Hilean behin.
- 423b) Hiru hilean behin.
- 423c) Sei hilean behin.
- 423d) Bederatzi hilean behin.

30. gaia

424 Zer da segurtasun aktiboa edo primarioa?

- 424a) Istripurik gerta ez dadin ibilgailuak dituen elementu, gailu edo sistema guztiak, edo, istripurik gertatuz gero, bidaiariengan edo hirugarrenengan izan ditzakeen ondorioak ahalik eta gehien saihesteko edo murrizteko direnak.
- 424b) Istripua gertatzen denean, ibilgailuan doazenek edo hirugarrenek kalterik ez izateko edo istripuaren ondorioak ahalik eta arinenak izateko ibilgailuak dituen elementu, gailu eta sistema guztiak.
- 424c) Ibilgailuak dituen elementu guztiak, istripu bat saihesten lagun dezaketenak.
- 424d) Ibilgailua gidatzen duen pertsonaren eskura dauden elementu guztiak, ibilgailua hobeto gidatzen laguntzen dutenak.

425 Hauetako zein dira segurtasun aktiboko elementuak?

- 425a) Airbagak.
- 425b) Gurpilak.
- 425c) Segurtasuneko bidaiari-lekuak.
- 425d) Buru-euskarriak.

426 Hauetako zein dira segurtasun pasiboko elementuak?

- 426a) Gurpilak.
- 426b) Airbaga.
- 426c) Argiak.
- 426d) Esekidura.

427 Argiteriari dagokionez, lanpara guztien funtzionamendua eta faroen altueraren doikuntza berrikusi behar ditugu, gutxienez:

- 427a) Egunean behin.
- 427b) Astean behin.
- 427c) Hilean behin
- 427d) Urtean behin.

428 Pneumatikoez ari garela, zen da erantzun zuzena?

- 428a) Pneumatiko guztiek itsaspen bera dute; itsaspenaren mende dago ibilgailuak martxan dabilenean duen segurtasuna.
- 428b) Pneumatikoen tenperatura igotzeak pneumatikoen presioa gutxitzea eragiten du.
- 428c) Pneumatikoez beroan duten presioa egiaztatu behar dugu, gutxienez 10 edo 12 km egin ondoren, edo gutxienez ordubetez ibili ondoren.
- 428d) Ardatz bereko gurpilek presio bera izan behar dute beti.

429 Pneumatikoen presioa neurtzeko, zer erabiltzen da?

- 429a) Higrometroa.
- 429b) Manometroa.
- 429c) Kalibrea.
- 429d) Barometroa.

430 Motelgailuak hemen daude:

- 430a) Ibilgailuaren direkzioan.
- 430b) Ibilgailuaren balazta-sisteman.
- 430c) Ibilgailuaren esekiduran.
- 430d) Ibilgailuaren hozte-sisteman.

431 Ibilgailuaren zenbait elementuak ibilgailuaren ibilbidea aldatzeko balio dute, gurrpil gidariaren desbideratze-angelua aldatzen dutelako. Zein dira elementu horiek?

- 431a) Balazta-sistema.
- 431b) Argiak.
- 431c) Esekidura.
- 431d) Direkzioa.

432 Adierazi zein den erantzun zuzena.

- 432a) Pneumatikoen presioak EZ du eraginik direkzio-sisteman.
- 432b) Direkzio-sistemako elementuen lasaierak gurrpilen orientazioa aldatzen dute.
- 432c) Direkzio-sistemako desorekek eragiten dituzte beti gurrpiletako edo balazta-sistemako matxurak.
- 432d) Direkzioaren akatsak pneumatikoaren banda zentralaren higadura erregularrean islatzen dira.

433 Zein da erantzun OKERRA? Balazta-sistemarekin arriskurik ez izateko, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- 433a) Urtean behin gutxienez, balazta-diskoaren eta -pastillen, loturen eta ponpatxoaren egoera berrikusi behar dugu,
- 433b) Astean behin, balazta-likidoaren maila berrikusi behar dugu eta, bi urtean behin edo fabrikatzaileak zehazten duenean, likidoa aldatu behar dugu.
- 433c) Gutxienez hilean behin, galibo-argiak eta horien altueraren doikuntza berrikusi behar ditugu.
- 433d) Likidoa daramaten loturek pitzadurarik, orbanik edo ihesik ez dutela berrikusi behar dugu.

434 Non egon behar du balazta-likidoaren mailak?

- 434a) MAX markaren gainean, gainezka egon gabe.
- 434b) Deposituaeren erdian.
- 434c) MAX. eta MIN. marken artean.
- 434d) MIN markaren gainean, justu-justu.

- 435** Hauetako zein *EZ* da balazta-sistemekin lotutako segurtasun aktiboko gailu bat?
- 435a) Blokeoaren aurkako sistema edo ABS.
 - 435b) Airbaga edo SRS sistema (Segurtasun Sistema Betegarria)
 - 435c) BAS edo Larrialdiko Balaztatzerako Laguntza Sistema.
 - 435d) Egonkortasun-programa elektronikoa edo ESP.
- 436** Adierazi zein den erantzun zuzena, **ABS Blokeoaren kontrako Sistemari** dagokionez.
- 436a) ABS sistema martxan dagoen bitartean, halako dardara edo erreboteak suma ditzakegu bolantean.
 - 436b) ABSak balaztatzearen intentsitatea erregulatzen du, gidatzen duenak egiten duen gain-presioaren arabera.
 - 436c) ABSak norabidea kontrolatzeko aukera ematen du, balazta gogor zapalduta ere.
 - 436d) Muturreko balaztatze-egoeretan, ABS sistemaz balaztatzeko teknika balaztatzeko sistema arruntean erabiltzen den teknika bera da.
- 437** Airea girotzeko sistema:
- 437a) Bi urtean behin aldatu beharko da, ondo funtzionatu arren.
 - 437b) Urtean behin edo gutxiagotan aldatu beharko da, fabrikatzailearen jarraibideen arabera.
 - 437c) Edozein tailerretan karga daiteke, makineria espezializatuaren beharrik gabe.
 - 437d) Gas hozgarriarekin kargatzen da, oso kutsagarria dena, eta leku espezializatuetan soilik.
- 438** Autoan goazela talka egiten badugu:
- 438a) Gomendagarria da segurtasun-uhala berrikustea.
 - 438b) Ezinbestekoa da segurtasun-uhala aldatzea.
 - 438c) Segurtasun-uhala produktu kimiko egoki batekin garbitu behar dugu.
 - 438d) Segurtasun-uhala osatzen duten zuntzek beren egitura berreskuratzen dute, berehalaxe.
- 439** Automobilaren mantentze-lanen liburuak dioenari jarraikiz, airbagaren elementuei berrikuspen bat egin beharko zaie, maiztasun honekin:
- 439a) Urtean behin.
 - 439b) Bost urtean behin.
 - 439c) 10.000 km-tik behin.
 - 439d) 20.000 km-tik behin.
- 440** Markatu aukera **OKERRA**, koipeztatzeko edo lubrifikatzekeo zirkuituari dagokionez.
- 440a) Hagaxka adierazle bat erabili behar dugu, eta mutur bat motorretik kanpo utzi, eta bestea karterraren barnean sartu.
 - 440b) Komeni da olio-iragazkia aldatzea olio-aldaketa bakoitzarekin.
 - 440c) Motorra hotzean edo zerbitzu-tenperaturan dagoela, jarraibideen eskuliburuak zehazten duenari jarraikiz.
 - 440d) Motorra zahartzen doan heinean, komeni da olio-aldaketen maiztasuna murriztea.
- 441** Hozte-sistemari dagokionez, zein da erantzun zuzena?
- 441a) Likido hozgarria gehitzen denean, guztiz bete behar da espantsio-andela.
 - 441b) Garrantzitsua da hozte-zirkuituaren tapoia motorra bero dagoela irekitzea, lurruna atera dadin.
 - 441c) Paraleloan funtzionatzen duten bi uhaleko motorretan, bat aldatu behar bada, biak batera aldatu behar dira.
 - 441d) Hozgarriaren zirkulazio-ponparen gorputzaren kanpoaldean pitzadurak badaude, fabrikatzailearen jarraibideen arabera estali beharko dira.

442 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Mantentze-lanei dagokienez, hauek dira ibilgailu hibridoen desberdintasun eta abantaila nagusietako batzuk:

- 442a) Gehienak automatikoak dira; ondorioz, eskuko enbragea daukate.
- 442b) Beren bizitza erabilgarrian zehar, ohiko ibilgailuek baino olio gutxiago kontsumitzen dute.
- 442c) Hibridoetan, balazta-pedala elektronikoa da.
- 442d) Isurketa gutxi izaten dutenez, partikula-iragazkiak denbora gehiago irauten du garbi.

443 Gaur egun, zenbat urtez irauteko daude prestatuta ibilgailu elektriko baten bateriak, bai nagusia bai osagarriak?

- 443a) 5-10 urte.
- 443b) 10-15 urte.
- 443c) 15-20 urte.
- 443d) Ibilgailuaren bizitza erabilgarri osoa.

444 Automobil elektrikoa errekontzako edo hibridoa baino askoz sinpleagoa izan arren, badu:

- 444a) Abiadura-kaxa.
- 444b) Direkzioa.
- 444c) Enbragea.
- 444d) Olio-iragazkiak.

445 Karga azkarrei esker, bateriak kopuru hau kargatzen du oso denbora laburrean:

- 445a) Edukieraren % 50.
- 445b) Edukieraren % 60.
- 445c) Edukieraren % 80.
- 445d) Edukieraren % 100.

31. gaia

446 Zer da zibernauta bat?

- 446a) Informatikari profesional bat.
- 446b) Interneten nabigatzen duen pertsona bat.
- 446c) Informatika-programatzaile bat.
- 446d) Nabigatzaile-mota bat.

447 Zer da Safari?

- 447a) Gaur egun gehien erabiltzen den nabigatzailea.
- 447b) Linux sistema eragileetan erabiltzen den nabigatzailea.
- 447c) Apple gailuetan aurrez instalatutako nabigatzailea.
- 447d) Gutxi erabili den nabigatzaile bat (% 2,88 baino ez), Interneten hasieran erabili zena eta gaur egun zaharkituta geratu dena.

448 Opera:

- 448a) Norvegiako Opera Software enpresak sortutako nabigatzaile bat da.
- 448b) Apple-ren nabigatzaile lehenetsia da.
- 448c) Ez da bateragarria Microsoft Windowsekin.
- 448d) Mahaiko ordenagailurako bertsioak ditu, baina ez mugikorretarako eta tabletetarako.

449 Nabigatzaile batean bilaketak egiteko:

- 449a) URL osoa idatzi behar da helbide-barran; bestela, nabigatzaileak ezin du bilaketa egin.
- 449b) Lehendabizi, saioa hasi behar da nabigatzailean.
- 449c) Helbide-barra erabiltzen da, eta idatzi ahala, nabigatzaileak bilaketa-iradokizun automatikoak egiten ditu.
- 449d) Erantzun guztiak okerrak dira.

450 Hasi saioa Google Chrome-n. Erantzun hauetako zein da OKERRA?

- 450a) Gomendagarria da ordenagailu partekatuetan edo erabilera publikoetan saioa hastea, segurtasun eta pribatutasun handiagoa izateko.
- 450b) Nabigatzaile batean saioa hastean, nabigazio-historia gordetzen du eta beste datu batzuk sinkronizatzen ditu gailuen artean.
- 450c) Informazio jakin bat eskuratzeko eta Googleren zerbitzuak soilik irekiz erabiltzeko erosotasuna dakar.
- 450d) Esan nahi du Googlek sarbidea duela saioa hasten duen pertsonaren datuetan eta erabil ditzakeela.

451 Nabigatzailearen interfazeari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- 451a) Fitxa bakar batean leiho bat baino gehiago ireki ahal izango dira.
- 451b) Leihoan, nabigatzailearen menu nagusirako sarbidea dago.
- 451c) Leihoak dinamikoak dira, eta horrek esan nahi du aukeratu eta arrastatu egin daitezkeela leihoen ordena aldatzeko.
- 451d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

452 Zertarako balio du fitxa ireki baten eskuinaldean dagoen (+) ikonoak?

- 452a) Uneko orriaren tamaina handitzeko.
- 452b) Leiho berri bat irekitzeko.
- 452c) Leiho berean fitxa berri bat irekitzeko.
- 452d) Irekita dagoen fitxa baten eskuinaldean ez da agertzen horrelako ikonorik.

453 Zertarako balio du fitxa ireki baten eskuinaldean dagoen (-) ikonoak?

- 453a) Uneko orrialdearen tamaina txikitzeko.
- 453b) Leiho nagusia ixteko.
- 453c) Ireki den azken fitxa ixteko.
- 453d) Irekita dagoen fitxa baten eskuinaldean ez da agertzen horrelako ikonorik.

454 Nabigazio pribatua Chrome-n. Zein da erantzun zuzena?

- 454a) Nabigazio pribatu batean sartzeko urratsak: konfigurazio-ikonoan (helbide-barraren eskuinaldean), menu nagusia irekitzen da, eta, bertan, «Leiho pribatu berria» aukeran klik egin behar da.
- 454b) Teklatuaren bidez sar gaitetze nabigazio pribatuan, Ctrl+Mayús+P tekla sakatuz.
- 454c) Ezkutuko leiho bat irekitzen baduzu eta beste bat irekitzen baduzu, saio pribatuak ez du leiho berrian jarraituko; berriz aktibatu behar da ezkutuko modua leiho berrian.
- 454d) Kostu ekonomikoa duen nabigazioa da.

455 Zer gertatzen da Chrome-n modu pribatuan nabigatzen denean?

- 455a) Chromek nabigazio-historia gordetzen du, baina ez cookieak, webguneetako datuak eta inprimakietan sartutako informazioa.
- 455b) Gehitu diren laster-markak ezabatzen dira.
- 455c) Deskargatu diren fitxategiak ez dira ezabatzen.
- 455d) Nabigatzen ari den pertsonaren jarduera ezin du ikusi haren enpresak, ikastetxeak edo Interneteko zerbitzuen hornitzaileak.

456 Zer tekla sakatu behar dira Mozilla Firefoxen sartzeko, han modu pribatuan nabigatzeko?

- 456a) Ctrl+N
- 456b) Ctrl+Mayús.+N
- 456c) Ctrl+P
- 456d) Ctrl+Mayús.+P

457 Nabigatzaileak eta bilatzaileak. Zein da erantzun OKERRA?

- 457a) Nabigatzaileak disko gogorrean instalatzen dira.
- 457b) Bilatzaileak Interneten daude eta ez dira instalatu behar.
- 457c) Ezin gara nabigatzaile batean sartu, bilatzaileak ez badugu.
- 457d) Nabigatzaileak ezin dira abiarazi Interneteko konexiorik ez badago.

458 Bilaketa bat egitean, zein da gako-hitzari edo -hitzei deitzeko beste modua?

- 458a) Deskriptorea.
- 458b) Bilatzailea.
- 458c) Hautatzailea.
- 458d) Aholkularia.

459 Zer dira gako-hitzak?

- 459a) Interneteko zenbait orrialdetan erabiltzen diren pasahitzak.
- 459b) Informazio jakin bat aurkitzeko Interneten erabiltzen diren bilaketa-irizpideak.
- 459c) Pertsona bat (eta ez robot bat) Internet erabiltzen ari dela egiaztatzeko erabiltzen diren hitzak.
- 459d) Googlek eskaintzen duen laguntza-zerbitzua.

460 Google bilatzailea. Zein da erantzun OKERRA?

- 460a) Ahots bidezko bilaketak egiteko aukera ematen du; horretarako, «Ok, Google» esan behar da, edo mikrofonoa hautatu.
- 460b) Ohartarazten du behar bezala erabili behar direla ortografia eta letra larriak izen bereziak direnean, bilaketa eraginkorrak egiteko.
- 460c) Google da Google Chrome nabigatzailearen bilaketa-tresna bat.
- 460d) Googleren bilaketa-koadroan, kontsulta-terminoa edo -terminoak sartu behar dira.

461 Bilaketaren emaitzak. Zein da erantzun OKERRA?

- 461a) Bilatzaileek bilaketa bat egin ondoren bueltatzen dizkiguten aukerak dira.
- 461b) Bilatzaile guztiek emaitza berberak bueltatzen dituzte.
- 461c) Posizionamendu-faktoreek eragiten dute orrialde bat posizio batean edo bestean agertzea.
- 461d) Bilaketaren emaitza subjektiboa da.

462 Bilaketen emaitzetako posizionamendu-faktoreak. Zein da erantzun zuzena?

- 462a) Barne-faktoreak honako hauek dira: lotzen dituzten orrialdeen kalitatea, sare sozialetako aipamenak, etab.
- 462b) Orrialdearen edukia bera da kanpoko posizionamendu-faktoreetako bat.
- 462c) Posizionamendu-faktoreak etengabe aldatzen ari dira, eta barne- eta kanpo-faktoreetan banatzen dira.
- 462d) Erantzun guztiak okerrak dira.

463 Bilaketaren emaitzak zer zati ditu?

- 463a) Izenburua, orrialdearen URLa, informazio gehigarria eta deskribapena.
- 463b) Aurkitutako posizionamendu-faktoreen kopurua eta orrialdearen URLa.
- 463c) Aurkitutako gako-hitzak, orrialdearen deskribapena eta URLa.
- 463d) Emaitza-zerrendako kokapen-zenbakia, orrialdearen URLa, informazio gehigarria eta deskribapena.

464 Nola aktibatzen da kalkulagailuaren funtzioa Googlen?

- 464a) Bilaketa-koadroan, *kalkulagailua* hitza idatziz.
- 464b) Bilaketa-koadroaren ezker aldean dagoen kalkulagailu itxurako ikonoari eman ez.
- 464c) Bilaketa-koadroan, eragiketa matematikoa zuzenean teklatuz.
- 464d) Googlek ez du funtzio hori.

32. gaia

465 Komeni al da estrategia argi bat izatea informazio-zikloaren fase bakoitzerako?

- 465a) Horri esker, gauzatzen ditugun ekintzak optimizatu ahal izango ditugu erabiltzen ditugun datuekin, informazioarekin eta eduki digitalarekin.
- 465b) Ez da efizientea, eta, beraz, komeni da alde aurreko estrategiak saihestea.
- 465c) Zenbakizko datuak bilatzeko besterik ez da komeni izatea.
- 465d) Ez da eraginkorra, eta, beraz, komeni da alde aurreko estrategiak saihestea.

466 Eduki digitala biltegitratzeko eta berreskuratzeko prozesua aldatzen da, honako hauek kontuan hartuta:

- 466a) Fitxategiak edo karpetak gorde edo biltegitratuko ditugun tokia.
- 466b) Gorde eta berreskuratu beharreko eduki-mota.
- 466c) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 466d) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.

467 Fitxategien eta karpeten arteko aldea...

- 467a) Ez dago alde argirik fitxategien eta karpeten artean.
- 467b) Dokumentu bakoitzari artxibo esaten zaio, eta normalean karpetetan gordetzen da.
- 467c) Karpeta batek karpetak eduki ditzake (azpikarpetak).
- 467d) Zuzenak b) eta c) erantzunak dira.

468 Mahai gaine ordenagailu batean edo ordenagailu eramangarri batean fitxategiak gordetze eta antolatze, honako jarraibide hauek hartuko ditugu kontuan:

- 468a) Karpeten eta azpikarpeten egitura argi bat ezartzea.
- 468b) Izen autoesplikatzailerak erabiltzea.
- 468c) Dokumentu bakoitza hasieratik dagokion karpetan gordetzea.
- 468d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

469 Fitxategi edo karpeta bat erraz identifikatu ahal izateko, komenigarria da izen labur bat izatea. Gainera, hodeira igo behar bada, komeni da:

- 469a) Izena hitz batek baino gehiagok osatzen badute, tarterik ez erabiltzea.
- 469b) Beste sistema edo plataforma batzuekin bateraezinak diren karaktereak ez erabiltzea.
- 469c) Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.
- 469d) Egilea barne hartzen duten izenak erabiltzea.

- 470 Fitxategi-administratzailea, fitxategi-kudeatzailea edo fitxategi-esploratzailea (ingelesez, *file manager*) dela eta, zein da baieztapen OKERRA?**
- 470a) Programa informatiko bat da, erabiltzaile-interfazea ematen duena fitxategiak eta direktorioak administratzeko.
 - 470b) Karpetak eta fitxategiak beren direktorio-egituran oinarritutako zuhaitz hierarkiko batean ikus daitezke.
 - 470c) Fitxategietan edo fitxategi taldeetan egiten diren eragiketa arruntenen artean daude, besteak beste, fitxategiak sortu, ireki, izena aldatu, kopianu, mugitu, ezabatu edo bilatzea.
 - 470d) Gure ordenagailuaren sistema eragilearen arabera, fitxategi-administratzaile bat izango dugu edo ez.
- 471 Microsoft Windowseko sistema eragilean, nola deitzen zaio fitxategien administratzaileari?**
- 471a) Fitxategien administratzailea.
 - 471b) Fitxategien esploratzailea.
 - 471c) Fitxategien antolatzailea.
 - 471d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 472 Normalean ataza-barran dagoen «fitxategien arakatzaila» irudikatzen duen ikonoan klik eginez, bertara sartuko zara, eta, sarbide azkarraren bidez, honako hauek aurkituko dituzu:**
- 472a) Ekipamenduko karpeta guztiak.
 - 472b) Ohiko karpeten eta fitxategi berrien ikuspegi orokor bat.
 - 472c) Ezkerreko menuan karpeten sistema dago.
 - 472d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.
- 473 Ordenagailuan gorde nahi den informazioa antolatzeko modurik onena da:**
- 473a) Sistema eragileak ezarritako sisteman oinarrituta, gorde beharreko fitxategi-motaren arabera (dokumentuak, irudiak, musika, 3Dko objektuak, bideoak...) fitxategiak zenbait karpetan antolatzean oinarri hartuta.
 - 473b) Erabiltzaile bakoitzaren beharren arabera.
 - 473c) Behar diren artxiboak azkar aurkitzeko aukera ematen duen antolamendua.
 - 473d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.
- 474 Karpeta mailan zenbait ekintza egiteko, elkarreraginean erabili nahi duzun karpetara joan eta, zer egin behar duzu?**
- 474a) Egin klik ezkerreko botoiarekin. Orduan, laster-menua irekiko da eta egin ditzakezun ekintzak (karpeta ezabatu, izena aldatu, etab.) adieraziko dizkizu.
 - 474b) Egin klik bi aldiz ezkerreko botoiarekin. Orduan, laster-menua irekiko da eta egin ditzakezun ekintzak (karpeta ezabatu, izena aldatu, etab.) adieraziko dizkizu.
 - 474c) Egin klik eskuineko botoiarekin. Orduan, laster-menua irekiko da eta egin ditzakezun ekintzak (karpeta ezabatu, izena aldatu, etab.) adieraziko dizkizu.
 - 474d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 475 Karpeta baten testuinguru-menuaren barruan, propietateetan klik egitean:**
- 475a) Karpetaren propietateak bistara daitezke.
 - 475b) Karpeta partekatu edo pertsonalizatu daiteke.
 - 475c) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
 - 475d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 476 Outlook-en, nola identifikatzen dira erantsitako datuak dituzten posta elektronikoko mezuak?**
- 476a) Izartxo (*) bat dutelako mezuen zerrendan.
 - 476b) Paper-kliparen ikono bat (📎) dutelako mezuen zerrendan.
 - 476c) Harridura-ikono bat (!) dutelako mezuen zerrendan.
 - 476d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 477 Outlook-ek mota askotako fitxategiak onartzen ditu, baina birusak izan ditzaketen erantsitako datu ez-segururak izan daitezkeenak blokeatu egiten ditu (fitxategi hauek barne: bat, exe, vbs eta js).**
- 477a) Erantsitako datuak blokeatu ahal izateko, antibirusa erabili behar dugu.
 - 477b) Outlook-ek ezin ditu erantsitako datuak blokeatu antibirus edo firewall bat erabili gabe.
 - 477c) Guztiz egia da.
 - 477d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 478 Non ikusten dira mezu elektronikoen baten fitxategi erantsiak?**
- 478a) Irakurketa-panelean.
 - 478b) Zuzenean goiburua edo mezuaren gaiaren azpian.
 - 478c) Mezuaren gorputzean.
 - 478d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 479 Erantsitako datuak gordetzeko, lehenik eta behin, erantsitako datuen ikonoaren eskuinaldean dagoen goitibeherako gezia klik egin behar da. Erantsitako datuen menu goitibeherakoan, aukera hauek daude:**
- 479a) «Gorde honela».
 - 479b) «Gorde erantsitako datu guztiak...».
 - 479c) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
 - 479d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 480 Outlook-eko posta-mezuetan fitxategiak ez ezik, honako hauek ere erants daitezke:**
- 480a) Kontaktuak.
 - 480b) Posta-mezuak.
 - 480c) Irudiak.
 - 480d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 481 Outlook-ek berriki landu dituen dokumentuen jarraipena egiten du, eta dokumentu horiek honako leku hauetan egon daitezke biltegiaratu:**
- 481a) Ekipamenduan.
 - 481b) One Drive-n (hodeian bakarrik).
 - 481c) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
 - 481d) Ekipamenduan bakarrik gorde daitezke.
- 482 Aurretik One Drive-n kargatutako fitxategi baterako esteka bat posta elektronikoko bidez partekatzen denean, honako hau ere egin daiteke:**
- 482a) Beste baimen batzuk ezartzea, mezuaren hartzaileek mezua ikusi eta editatu ahal izan dezaten, edo beste erabiltzaile batzuekin partekatu ahal izan dezaten.
 - 482b) Beste baimen batzuk ezartzea, mezuaren hartzaileek mezua ikusi eta editatu ahal izan dezaten, baina ez beste erabiltzaile batzuekin partekatu.
 - 482c) Beste baimen batzuk ezartzea, mezuaren hartzaileek mezua ikusi eta partekatu ahal izan dezaten, baina ez editatu.
 - 482d) Ez da beharrezkoa beste baimen batzuk ezartzea, mezuaren hartzaileek mezua ikusi eta editatu edo beste erabiltzaile batzuekin partekatu ahal izan dezaten.

33. gaia

483 Ergonomiaren helburuak dira:

- 483a) Langilearen lanpostua haren beharretara egokitzea.
- 483b) Laneko arriskuak murriztea.
- 483c) Lan-errendimendua hobetzeko teknologia berriak sartzea.
- 483d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

484 Hezur eta muskuluetakako nahasmenduak (HMN):

- 484a) Laneko gaixotasun ohikoenetako bat dira, eta Europa osoko milioika langileri eragiten diete.
- 484b) Lanean jatorria duten gaixotasunak dira, eta bizkarrari, lepoari, sorbaldei eta goiko gorputz-adarrei eragiten diete.
- 484c) Osasun-arazoak sortzen dituzte, hala nola min eta ondoez txikiak.
- 484d) Osasun-arazoak sortzen dituzte, min eta ondoez txikietatik hasita koadro mediko larriagoetaraino, baina ez dute desgaitasun-egoerarik sortzen.

485 Zeintzuk dira hezur-giharretako arazoentako nagusiak?

- 485a) Bizkarreko minak eta lesioak, eta goiko gorputz-adarren laneko nahasmenduak («mugimendu errepikakorren ondoriozko lesioak» esan ohi zaie).
- 485b) Bizkarreko minak eta lesioak, eta beheko gorputz-adarren laneko nahasmenduak («mugimendu errepikakorren ondoriozko lesioak» esan ohi zaie).
- 485c) Goiko gorputz-adarren laneko nahasmenduak eta beheko gorputz-adarren laneko nahasmenduak («mugimendu errepikakorren ondoriozko lesioak» esan ohi zaie).
- 485d) Erantzun guztiak okerrak dira.

486 Hauek dira hezur eta muskuluetakako nahasmenduen (HMNen) kausa fisiko eta arrisku-faktoreetako batzuk:

- 486a) Mugimendu errepikakorrak edo behartuak.
- 486b) Zamak manipulatzeko, batez ere makurtzean eta biratzean.
- 486c) Jarrera berean luzaroan zutik edo eserita egotea.
- 486d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 487 Jarrera-ohitura batzuek bizkarrezurra gainkargatzen dute, eta bizkarreko eta lepoko minak eragiten dituzte, hala nola:**
- 487a) Luzaroan jarrera berean egoteak, tente, etzanda nahiz eserita.
 - 487b) Bizkarrezurraren kurba fisiologikoak handitzen dituzten jarrera zehatz batzuk hartzen ditugunean.
 - 487c) Erantzun guztiak okerrak dira.
 - 487d) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
- 488 Jartzeko ohitura batzuek lagundu egiten dute gure bizkarrezurrak jasaten duen esfortzua eta karga murrizten. Zutik gaudela, honela jokatzeari gomendatzen da:**
- 488a) Jarri beti oin bat bestea baino aurrerago eta maiz aldatu jarrera.
 - 488b) Ibili burua eta toraxa tente dituzula, eta eraman beti orpo baxuko oinetako erosoak.
 - 488c) Gutxi gorabehera, ordu erdiz behin oinez ibili eta luzatze-eraketak egin.
 - 488d) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
- 489 Jartzeko ohitura batzuek lagundu egiten dute gure bizkarrezurrak jasaten duen esfortzua eta karga murrizten. Etzanda gaudela, honela jokatzeari gomendatzen da:**
- 489a) Ahoz gora jarri.
 - 489b) Ahoz gora egotean molestiarik izanez gero, jarri burko bat belautan azpian.
 - 489c) Ahoz gora lokartzea lortu ezean, jarri pixka bat saiheska.
 - 489d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 490 Jartzeko ohitura batzuek lagundu egiten dute gure bizkarrezurrak jasaten duen esfortzua eta karga murrizten. Eserita gaudela, honela jokatzeari gomendatzen da:**
- 490a) Jarri beti oin bat bestea baino aurrerago eta maiz aldatu jarrera.
 - 490b) Eduki bizkarrezurra tente eta behar bezala lerrotuta, oinazpiak lurrean ondo bermatuta eta belautan angelu zuzenean.
 - 490c) Zutik jarri gutxi gorabehera orduro eta egin luzatze-eraketaren bat edo beste.
 - 490d) Zuzenak dira b) eta c) aukerak.
- 491 Jartzeko ohitura batzuek lagundu egiten dute gure bizkarrezurrak jasaten duen esfortzua eta karga murrizten. Pisua kargatzen ari garela, honela jokatzeari gomendatzen da:**
- 491a) Tolestu belautan, ez bizkarra, eta eduki oinak beti gainazal sendo eta lau batean bermatuta.
 - 491b) Altxa kukubilko jarreratik, belautan astiro tolestuz.
 - 491c) Altxatzen den objektua gorputzaren ondoan mantendu, gehienez ere bularraren pareraino jasota.
 - 491d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 492 Jartzeko ohitura batzuek lagundu egiten dute gure bizkarrezurrak jasaten duen esfortzua eta karga murrizten. Ordenagailuaren aurrean gaudela, honela jokatzeari gomendatzen da:**
- 492a) Kokatu pantaila halako eran non erdigunea begien parean eta aurrez aurre geldituko zaitzun.
 - 492b) Teklatua altuera egokian jarri behar duzu, idazteko sorbaldak goratu beharrik ez izateko moduan.
 - 492c) Besaurreak lan-mahaiaren gainean jarri.
 - 492d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

493 Datuak bistartzeko pantaila baten aurrean jarrera egokia izateko, parametro hauetako bat edo batzuk hartu behar dira kontuan:

- 493a) Pantailaren goiko lerroa ikuspen-lerro horizontalaren mailan egon behar da, edo pixka bat beherago.
- 493b) Pantailaren eta begien arteko distantzia ez da 40 cm-tik beherakoa izan behar, ezta 90 cm-tik gorakoa ere.
- 493c) Buruaren biraketak saihesteko, gehien erabiltzen den bistaratzeko-elementua, pantaila edo dokumentua, erabiltzailearen aurre-aurrean jarriko da, ahal den guztia.
- 493d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

494 Datuak bistartzeko pantaila baten aurrean jarrera egokia izateko, parametro hauetako bat edo batzuk hartu behar dira kontuan:

- 494a) Saguak eta sarrera-gailuek teklaturik hurbil egon behar dute.
- 494b) Izterrek horizontalean egon behar dute, hankekin 90° eta 100° arteko angelua eginez.
- 494c) Oinak lurrean ondo bermatu behar dira.
- 494d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

495 Eserita gaudela, hankak eserlekuetik zintzilik egotea eta oinek euskarririk ez izatea saihestu behar da, izan ere:

- 495a) Zainetako odola nekezago heltzen da bihotzera, eserlekuak belanpean edo izterren atzealdean egiten duen presioa dela eta.
- 495b) Zirkulazio txarra edukiz gero, okerrago egin dezake hanketako edema.
- 495c) Odolbilduak izateko arriskua handitu dezake.
- 495d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

496 Begiekin aparteko ahalegina egitea dakarten jarduerak egiten ditugunean, argiztapen natural egokia behar dugu.

- 496a) Ahal den guztietan.
- 496b) Ezin bada, ikusmenari kalte txikiena egiteko modurik onena litzateke sabaian giro-argia instalatzea, jarduera egiteko intentsitate egokiarekin, zuzenean jarduera hori (eta ez begiak) argizatzen duen beste argi-iturri batekin batera.
- 496c) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.
- 496d) Erantzun guztiak okerrak dira.

497 Argi urdina erraz ikusteko moduko erradiazioen multzo bat da, eta batez beste hemen daude kokatuta:

- 497a) 380 nm (muturra urdin-morea) eta 750 nm (muturra gorria) artean.
- 497b) 300 nm (muturra urdin-morea) eta 700 nm (muturra gorria) artean.
- 497c) 400 nm (muturra urdin-morea) eta 800 nm (muturra gorria) artean.
- 497d) Erantzun guztiak okerrak dira.

498 Zergatik da onuragarria argi urdin-turkesa?

- 498a) Argi horrekin, gure garunak gorputzaren erritmo biologikoa erritmo zikliko naturalekin sinkronizatzen duelako (argiarekin, tenperaturekin...).
- 498b) Aktibatu eta animatu egiten gaitu. Errendimendua eta ikasteko gaitasuna hobetu ditzake.
- 498c) Garrantzi handia du begi-niniaren konstriktio-erreflexuan, hau da, begiak eguzki-erradiazioetik babesten dituen erreflexuan.
- 498d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

499 Ikusmen-nekearen sintomak honako hauek izan ohi dira:

- 499a) Begietako mina: begietan tentsioa izatearen sentsazioa, betazaletako astuntasuna, begietako astuntasuna, azkurak, erremina, begiak igurzteko beharra, logura, begietako erresumina, begi-klisken ugaritzea.
- 499b) Ikusmenaren nahasmenduak: pantailetak elementuak lauso ikustea.
- 499c) Begietatik kanpoko sintomak: buruko mina, bertigoa, urduritasun- eta antsietate-sentsazioa, eta garondoko eta bizkarrezurreko mina.
- 499d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

500 Begietako nekea prebenitzeko:

- 500a) Ziurtatu behar dugu lan-eremuko argiak elkarren artean ahalik eta berdinenak direla eta itsutzen, gehiegi distiratzen edo ñir-ñir egiten duten argirik ez dagoela.
- 500b) Horretarako, ona da distira gutxitzea eta distiren kontrako iragazki bat edo LCD pantaila bat erabiltzea.
- 500c) Ikusmenari 15 minuturik behin atsedena eman behar zaio, begiak erlaxatzeko eta nekea murrizteko.
- 500d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

